EUSKAL HERRIA

Adierazle sozioekonomikoen galeria 2026



AURKIBIDEA

HITZAURREA 4

I. EUSKAL HERRIKO PANORAMIKA

1. DEMOGRAFIA

1.1 BIZTANLERIA ETA LURRALDEA 7
1.2 JAIOTZAK, HERIOTZAK ETA BEREZKO HAZKUNDEA 9
1.3 MIGRAZIOA ETA JAIOLEKUA 10
1.4 ADIN EGITURA ETA ZAHARTZEA 12
LABURPENA 14

2. EKONOMIA

2.1 ABERASTASUNA ETA EGITURA PRODUKTIBOA 16
2.2 ENPRESAK ETA EKONOMIA SOZIALA 17
2.3 BERRIKUNTZA: IKERKETA ETA GARAPENA 19
2.4 KANPO-MERKATARITZA 20
2.5 LANA: PRODUKTIBITATEA, SOLDATAK ETA ZAINTZA 21
2.6 ZOR PUBLIKOA 23
LABURPENA 24

3. GIZARTEA

3.1 LANA ETA PRESTAKUNTZA 26
3.2 ERRENTA, PREZIOAK ETA DESBERDINTASUNA 28
3.3 BABES SOZIALA, BERDINTASUNA ETA ONGIZATEA 30
LABURPENA 31

4. KULTURA ETA HIZKUNTZAK

4.1 EUSKARAREN EZAGUTZA 33
4.2 EUSKARAREN ERABILERA 35
4.3 KULTURA: ENPLEGUA, GASTUA ETA LIBURUGINTZA 36
LABURPENA 37

5. INGURUMENA

5.1 ENERGIA 39
5.2 LURRALDEA ETA BIOANIZTASUNA 40
5.3 AIREA ETA ATMOSFERA 42
5.4 MATERIALAK ETA HONDAKINAK 43
LABURPENA 44
AGINTE-TAULA: EUSKAL HERRIKO PANORAMIKA 45

AURKIBIDEA

II. EUSKAL HERRIA EUROPAN

1. DEMOGRAFIA

1.1 BIZTANLERIA 49
1.2 JAIOTZAK ETA HERIOTZAK 52
1.3 MIGRAZIOA ETA JAIOLEKUA 55
1.4 ZAHARTZEA 57
LABURPENA: DEMOGRAFIA EUROPAN 60

2. EKONOMIA

2.1 ABERASTASUNA ETA EGITURA PRODUKTIBOA 62
2.2 ENPRESAK ETA EKONOMIA SOZIALA 66
2.3 BERRIKUNTZA: IKERKETA ETA GARAPENA 67
2.4 KANPO-MERKATARITZA 69
2.5 LANA: PRODUKTIBITATEA, LAN-KOSTUA, SOLDATAK ETA ZAINTZA 70
2.6 ZOR PUBLIKOA 72
LABURPENA: EKONOMIA EUROPAN 73

3. GIZARTEA

3.1 LANA ETA PRESTAKUNTZA 75
3.2 ERRENTA, PREZIOAK ETA DESBERDINTASUNA 77
3.3 POBREZIA-ARRISKUA ETA ONGIZATEA 79
3.4 GENERO-BERDINTASUNA 81
LABURPENA: GIZARTEA EUROPAN 82

4. KULTURA ETA HIZKUNTZAK

4.1 KULTUR ENPLEGUA 84
4.2 KULTUR GASTU PUBLIKOA 85
4.3 HIZKUNTZA GUTXITUAK EUROPAN 86
LABURPENA: KULTURA EUROPAN 89

5. INGURUMENA

5.1 ENERGIA 91
5.2 LURRALDEA, BIODIBERTSITATEA ETA URA 92
5.3 AIREAREN KALITATEA ETA ISURKETAK 94
5.4 HONDAKINAK 95
LABURPENA: INGURUMENA EUROPAN 96
AGINTE-TAULA: EUSKAL HERRIA EUROPAN 97

MARKO KONTZEPTUALA 100

GAINDEGIAREN DATUATARIA 102

ZUZENDARITZA TALDEA ETA BATZORDE ZIENTIFIKOA 103

OHARRAK ETA ITURRIAK

OHARRAK ETA ITURRIAK 104
ARGAZKIAK 106
BABESLEAK 107

HITZAURREA

GAINDEGIAren 2026ko adierazleen galeria honek, ondorengo orrialdeetan ikusiko duzuen bezala, berrikuntza nabarmenak dakartza edukiaren aldetik; baina dolua ere badakar berarekin.

Hitzaurre hau Iñaki Dorronsorok idatziko zuen, iaz egin zuen bezala, bidean galdu ez bagenu. Baina hala gertatu da: aurtengo udan, ekainean, joan zitzaigun. Minbizi bortitz batek eraman zuen, urtebetez biziaren hariari irmo heltzeko ahalegina egin ondoren.

Gure eskerrik zintzoena eta aitortzarik sakonena berari. Bere bizitzan beste askotan egin zuen bezala, GAINDEGIAri estualdiko garaia iritsi zitzaionean ere baiezko borobila eman zigun, elkarteko lehendakaritzaren ardura hartzea proposatu genionean. Agur eta ohore, burkide prestua!

Berrikuntzak aipatu ditut arestian. Bi dira, nagusiki. Aipamen labur bat baino ez diet egingo, ondorengo orrialdeetan garatzen denaren aurrerapen gisa.


Lehena, galeria bera ez bada ere, gure estatistikagintzaren emaitza berria da: DatuAtaria. Horrela deitu diogu —berez, datu-ataria da— gaur egungo proiektu-izenen estiloari jarraituz. Ikertzaileek, jakin-minez daudenek, irakasleek, ikasleek… Euskal Herri osoko egoera sozioekonomikoari buruzko datu estatistikoak ezagutu nahi badituzte, etengabe elikatzen den datu-ataria izango dute eskura, edozein unetan kontsultatzeko.

Bigarrena, galeria hau bera, 2026koa. Hausnarketa-prozesu sakon baten ondorioz ezarritako marko kontzeptual berriaren lehen emaitza da. GAINDEGIAk goi-mailako Batzorde Zientifiko bat jarri zuen abian bere ibilbide berrirako, hamazazpi adituk osatua eta Anjeles Iztueta koordinatzaile duena. Bestalde, 2025eko martxoan, maila bereko berrogeitik gora adituren arteko mintegia egin zen Nafarroako Unibertsitate Publikoan, marko kontzeptual berria sortzeko. Harrezkero, elkarlana etengabea izan da, eta haren lehen emaitza da orain eskuetan duzuen galeria hau.

Orain, zuen, erabiltzaileon, esku uzten dugu epaia.

GAINDEGIAko Zuzendaritza Taldearen izenean,
Xabier Oleaga-Arondo

EUSKAL HERRIKO PANORAMIKA





DEMOGRAFIA

Heriotzak jaiotzak baino gehiago dira: migrazioari esker hazten da Euskal Herria

Euskal Herriak 3.200.870 biztanle zituen 2023an, 1999an baino %10,3 gehiago. 2014tik, heriotzak jaiotzak baino gehiago dira, eta hazkunde osoa migrazio-saldoari zor zaio. Biztanleria zahartzen eta jatorriz anitzagoa izaten ari da: lautik bat 65 urtetik gorakoa da, eta hirutik bat Euskal Herritik kanpo jaio da.

3.200.870
biztanle Euskal Herrian (2023)

-‰3,5
berezko hazkundea, 1.000 biztanleko (2023)

%24,2
65 urtetik gorakoak (2023)

%32,3
Euskal Herritik kanpo jaioak (2022)


1.1
BIZTANLERIA ETA LURRALDEA

3,2 milioi biztanle, mende hasieran baino %10,3 gehiago, eta gero eta pilatuago

2023an, Euskal Herriak 3.200.870 biztanle zituen, 1999an baino 298.366 gehiago (%10,3)[1]. Hazkundea ez da berdina izan lurralde guztietan: Lapurdin (%29,3) eta Nafarroa Garaian (%24,9) izan da handiena; Bizkaian ia ez da aldatu (%0,6), eta Zuberoak biztanleak galdu ditu (-%7).


Bizkaia da herrialderik populatuena: euskal herritarren %35,8 bizi da bertan; ondoren datoz Gipuzkoa (%22,5) eta Nafarroa Garaia (%21). Ipar Euskal Herriak 329.856 biztanle ditu, guztizkoaren %10,3a. Hego Euskal Herriko[2] urteko datuek erakusten dute hazkundeak jarraitu egin duela: 2025ean 2.904.223 biztanle zituen, 2023an baino 33.209 gehiago.

Biztanleria. Euskal Herria, 1999-2023 (biztanle kopurua)



Iturria: EUSTAT, INE (Udal Errolda), INSEE. Lanketa: Gaindegia.

Biztanleriaren aldaketa, herrialdeka. Euskal Herria, 1999-2023 (%)



Iturria: EUSTAT, INE (Udal Errolda), INSEE. Lanketa: Gaindegia.

Biztanleria, pisu demografikoa eta dentsitatea, herrialdeka. Euskal Herria, 2023

Herrialdea	Biztanleak	Pisua (%)	Aldaketa 1999-2023 (%)	Biztanleria-dentsitatea (biztanle/km²)
Araba	334.748	10,5	%16,6	100,6
Bizkaia	1.144.471	35,8	%0,6	511,8
Gipuzkoa	720.049	22,5	%6,3	364,0
Nafarroa Garaia	671.746	21,0	%24,9	64,6
Lapurdi	282.954	8,8	%29,3	324,3
Nafarroa Beherea	32.855	1,0	%15,8	24,7
Zuberoa	14.047	0,4	-%7,0	17,7
Euskal Herria	**3.200.870**	**100,0**	**%10,3**	**152,9**


Iturria: EUSTAT, INE (Udal Errolda), INSEE. Lanketa: Gaindegia.

[1] Grafikoetan jasotako datuez gain, txostenaren testuetan aipatutako datu guztiak Gaindegiaren DatuAtarian daude eskuragarri.

[2] Hego Euskal Herria: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia (Ipar Euskal Herria gabe). Grafikoetan, mapetan eta tauletan «Euskal Herria*» gisa adierazten da.


Euskal Herriko batez besteko dentsitatea 152,9 biztanle/km²-koa da, baina banaketa oso desorekatua da. Bizkaiak (511,8), Gipuzkoak (364) eta Lapurdik (324,3) dentsitate handiak dituzte; Nafarroa Beherea (24,7) eta Zuberoa (17,7), berriz, populazio sakabanatuko lurraldeak dira. 1.000 biztanle/km²-tik gorako 38 udalerritan bizi da biztanleen %52,3, lurraldearen %2,5 baino ez badute ere; 20 biztanle/km²-tik beherako 244 udalerriek, aldiz, lurraldearen %46,3 hartzen dute eta biztanleen %2,7 baino ez dute biltzen.

Biztanleria-dentsitatea, udalerrika. Euskal Herria, 2023 (biztanle/km²)



Iturria: EUSTAT, INE (Udal Errolda), INSEE. Lanketa: Gaindegia.

Biztanleria-dentsitatea, herrialdeka. Euskal Herria, 2023 (biztanle/km²)



Iturria: EUSTAT, INE (Udal Errolda), INSEE. Lanketa: Gaindegia.

Biztanleen %52,3 lurraldearen %2,5ean bizi da.


1.2
JAIOTZAK, HERIOTZAK ETA BEREZKO HAZKUNDEA

2014tik, urtero hiltzen dira jaiotzen direnak baino gehiago

Jaiotza-tasa 2008an iritsi zen gailurrera (‰10,2) eta ordutik ia etengabe jaitsi da: ‰ 6,1 izan zen 2024an. Heriotza-tasa, aldiz, igo egin da biztanleria zahartu ahala (‰9,8). Ondorioz, berezko hazkundea[3] negatiboa da 2014tik, eta - ‰ 3,8 izan zen 2024an.


2023an, Euskal Herri osoan 20.428 jaiotza eta 31.764 heriotza erregistratu ziren: -11.336 pertsonako berezko hazkundea (- ‰3,5). Herrialde guztietan da negatiboa. Zuberoan (-‰7,9) eta Nafarroa Beherean (- ‰ 4,9) da biziena, heriotza-tasa handienekoak baitira; Nafarroa Garaian (-‰2) eta Araban (- ‰ 2,1), leunena. Lapurdik du jaiotza-tasarik handiena (‰7,6), eta Zuberoak txikiena (‰5,5).

Jaiotza-tasa eta heriotza-tasa. Euskal Herria, 1996-2024 (1.000 biztanleko)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE. Lanketa: Gaindegia.

Berezko hazkundea, herrialdeka. Euskal Herria, 2023 (1.000 biztanleko)



Iturria: EUSTAT, INE, INSEE. Lanketa: Gaindegia.

Jaiotza-tasa eta heriotza-tasa, herrialdeka. Euskal Herria, 2023 (1.000 biztanleko)

Herrialdea	Jaiotza-tasa	Heriotza-tasa	Berezko hazkundea
Araba	6,7	8,7	-2,1
Bizkaia	5,8	10,4	-4,6
Gipuzkoa	6,3	10,4	-4,1
Nafarroa Garaia	6,7	8,7	-2,0
Lapurdi	7,6	10,6	-3,0
Nafarroa Beherea	7,5	12,4	-4,9
Zuberoa	5,5	13,4	-7,9
Euskal Herria	**6,4**	**9,9**	**-3,5**

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE. Lanketa: Gaindegia.

[3] Berezko hazkundea: jaiotzak ken heriotzak.


1.3
MIGRAZIOA ETA JAIOLEKUA

Migrazioak eusten dio hazkundeari: 31.156 pertsonako saldoa 2024an

Hego Euskal Herrian, etorritakoen eta joandakoen arteko aldea positiboa da urtero. 2024an, 31.156 pertsonakoa izan zen (‰10,7). 2021ean, pandemiaren eraginez, 5.589 baino ez zen izan; 2022tik 2024ra, aldiz, 89.695 pertsona gehiago iritsi dira joan direnak baino.


Saldo horrek konpentsatzen du berezko hazkunde negatiboa: 2024an, Hego Euskal Herrian -10.934 pertsonakoa izan zen berezko hazkundea, baina migrazioari esker biztanleria 20.222 pertsona hazi zen. Arabak du saldo-tasarik handiena (‰12,5) eta Gipuzkoak txikiena (‰8,8). Ipar Euskal Herrian ez dago urteko migrazio-daturik.

Migrazio-saldoa. Euskal Herria*, 2021-2024 (pertsona kopurua)




Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: INE (Migrazioen Estatistika). Lanketa: Gaindegia.

Migrazio-saldoa, herrialdeka. Euskal Herria*, 2024 (1.000 biztanleko)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: INE (Migrazioen Estatistika). Lanketa: Gaindegia.

Kanpoan jaiotako biztanleria (Euskal Herritik kanpo jaioak). Euskal Herria, 2003-2025 (%)




Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: INE, INSEE. Lanketa: Gaindegia.

Migrazio-fluxuek biztanleriaren jatorria aldatu dute. Euskal herritarren %32,3 Euskal Herritik kanpo jaio da (2022). Hego Euskal Herrian proportzio hori %27 zen 2003an eta %31,3 da 2025ean, baina jatorria guztiz aldatu da: Espainian jaiotakoak %22,9tik %15,7ra jaitsi dira, eta beste lekuetan jaiotakoak %4,2tik %15,6ra igo.


Ipar Euskal Herrian, biztanleen %55,9 Euskal Herritik kanpo jaio da, gehienak Frantziako beste departamenduetan. Hegoaldean, Araba (%35,5) eta Nafarroa Garaia (%32,5) dira proportziorik handienekoak, eta Gipuzkoa (%26) txikienekoa. Adinaren arabera, 16-64 urtekoen %21,4 beste lekuetan jaio da, eta 65 urtetik gorakoen %37,8, Espainian.

Biztanleria jaiolekuaren arabera, lurraldeka. Euskal Herria, 2022 (%)



Iturria: INE, INSEE. Lanketa: Gaindegia.

Biztanleria jaiolekuaren arabera, adin-taldeka. Euskal Herria*, 2025 (%)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako. Hegoaldean, EAEn bizi diren Nafarroan jaiotakoak (eta alderantziz) «Espainian jaioak» gisa zenbatzen dira; beraz, Euskal Herritik kanpo jaiotakoen proportzioa zertxobait gainetsita dago. Ipar Euskal Herrian, «Espainian edo Frantzian jaioak» = Frantziako beste departamenduetan jaioak.
Iturria: INE. Lanketa: Gaindegia.

Euskal herritarren hirutik bat Euskal Herritik kanpo jaio da (%32,3).




1.4
ADIN EGITURA ETA ZAHARTZEA

Lau biztanletik bat 65 urtetik gorakoa da, eta piramidea behetik estutzen ari da

Adin-piramideak argi erakusten du zahartze-prozesua. 2012tik 2023ra, 0-14 urtekoen proportzioa %13,7tik %12,6ra jaitsi da, eta 65 urtetik gorakoena %20,5etik %24,2ra igo. Batez besteko adina 43,7 urtetik 46 urtera igo da.

Piramidearen oinarria estutu egin da: gaur egun 45-49 urteko taldea da handiena, eta 0-4 urtekoak horren %38 baino ez dira. Goialdean, 65 urtetik gorako 134.596 pertsona gehiago daude 2012an baino, eta 85 urtetik gorakoak %37,1 hazi dira; adin horretan, 2,1 emakume daude gizon bakoitzeko.


Adin-piramidea, sexuaren arabera. Euskal Herria, 2012 eta 2023 (biztanleria osoaren %)



Oharra: Ipar Euskal Herriko datuak INSEEren 7 adin-bandetatik 5 urteko tarteetara estimatuta.
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE. Lanketa: Gaindegia.


Zahartze-tasa[4] %24,2 zen 2023an (774.075 pertsona), 2012an baino 3,7 puntu gehiago, eta %24,6 da Hego Euskal Herrian 2025ean. Zuberoa da herrialderik zaharrena (%31), eta Nafarroa Garaia gazteena (%20,4). Emakumeen zahartze-tasa (%26,7) gizonena baino nabarmen handiagoa da (%21,5).

Zahartze-tasa. Euskal Herria, 2003-2025 (65 urtetik gorakoen %)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE. Lanketa: Gaindegia.

15 urtetik beherako eta 65 urtetik gorako biztanleria, herrialdeka. Euskal Herria, 2023 (%)



Iturria: EUSTAT, INE, INSEE. Lanketa: Gaindegia.

Adin egituraren adierazle nagusiak. Euskal Herria, 2012 eta 2023

Adierazlea	2012	2023
0-14 urtekoak (%)	13,7	12,6
15-64 urtekoak (%)	65,9	63,2
65 urte eta gehiagokoak (%)	20,5	24,2
80 urte eta gehiagokoak (%)	6,8	7,7
Batez besteko adina (urteak)	43,7	46,0
Zahartze-indizea (65+ / 0-14 × 100)	150	193

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE. Lanketa: Gaindegia.

65 urtetik gorako 193 pertsona daude 15 urtetik beherako 100 bakoitzeko (150 ziren 2012an).

[4] Zahartze-tasa: 65 urtetik gorakoen proportzioa biztanleria osoaren gainean.

LABURPENA

Hazkundea, migrazioari esker. Euskal Herriak 3.200.870 biztanle ditu (2023), 1999an baino %10,3 gehiago. Hazkunde hori ez dator berezko dinamikatik: 2014tik, heriotzak jaiotzak baino gehiago dira, eta migrazio-saldoak konpentsatzen du defizit hori.

Lurralde-desorekak. Lapurdi eta Nafarroa Garaia dira gehien hazi direnak; Bizkaia ia geldirik dago eta Zuberoak biztanleak galtzen ditu. Biztanleen %52,3 lurraldearen %2,5ean bizi da, eta lurraldearen ia erdia oso populazio txikiko udalerriek osatzen dute.

Jaiotza gutxiago, heriotza gehiago. Jaiotza-tasa ‰ 10,2 zen 2008an eta ‰ 6,1 da 2024an; berezko hazkundea negatiboa da herrialde guztietan.

Zahartzea. 65 urtetik gorakoak biztanleen %24,2 dira, eta 193 adineko daude 15 urtetik beherako 100 bakoitzeko. Zuberoa da herrialderik zaharrena (%31).

Jatorri aniztasuna. Euskal herritarren %32,3 Euskal Herritik kanpo jaio da. XX. mendean Espainiatik etorritako belaunaldia zahartzen ari den bitartean, beste lekuetan jaiotakoak dira gaur egungo etorkinen gehiengoa: Hego Euskal Herriko 16-64 urtekoen %21,4a.

Demografiako adierazle nagusiak. Euskal Herria

Adierazlea	Euskal Herria	Joera (aldia)
Biztanleria (kopurua)	3.200.870 (2023)	▲ Hazten (1999-2023)
Biztanleria-dentsitatea (biztanle/km²)	152,9 (2023)	▲ Hazten (1999-2023)
Zahartze-tasa (65 urtetik gorakoen %)	%24,2 (2023)	▲ Hazten (2003-2023) Euskal Herria*: 2003-2011, 2013-2016, 2018-2022
Kanpoan jaiotakoak (Euskal Herritik kanpo) (%)	%32,3 (2022)	▲ Hazten, beste lekuetatik (2003-2022) Euskal Herria*: 2003-2020
Jaiotza-tasa (1.000 biztanleko)	6,4 (2023)	▼ Jaisten 2008tik (1996-2023) Euskal Herria*: 1996, 1998-2013
Heriotza-tasa (1.000 biztanleko)	9,9 (2023)	▲ Hazten (1996-2023); 2022tik beherantz Euskal Herria*: 1996, 1998-2013
Berezko hazkundea (1.000 biztanleko)	-3,5 (2023)	▼ Negatiboa 2014tik (1996-2023) Euskal Herria*: 1996, 1998-2013

Oharra: Joerak: Euskal Herri osoaren daturik ez dagoen urteetan, Euskal Herria* (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) erabili da; urte horiek errenkada bakoitzean adierazten dira.
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE. Lanketa: Gaindegia.



EKONOMIA

Industriak eta esportazioek eusten diote aberastasunari, baina produktibitatea geldirik dago

Euskal Herriko BPGa biztanleko 42.332 eurokoa da (2023), EAPn (erosteko ahalmenaren parekotasunean). Industriak balio erantsiaren %24,1 sortzen du, ondasun-esportazioak BPGaren %36 dira eta I+Gn BPGaren %1,9 inbertitzen da. Hala ere, Hego Euskal Herrian orduko produktibitate erreala ia ez da hazi 2015etik (%3,7), lan-kostu unitarioa %23,4 igo den bitartean. Biztanleko BPGan, Araba eta Gipuzkoa dira lurralderik aberatsenak.

42.332

€ (EAP), BPGa biztanleko (2023)

%24,1

industriaren pisua balio erantsian (2023)

%36

ondasun-esportazioak, BPGaren % (2023)

%1,9

I+Gko gastua, BPGaren % (2023)


2.1 ABERASTASUNA ETA EGITURA PRODUKTIBOA

Biztanleko BPGa 42.332 eurokoa (EAP) da, eta industriak balio erantsiaren laurdena sortzen du

Euskal Herriko barne-produktu gordina biztanleko 42.332 eurokoa (EAP[5]) izan zen 2023an. 2020ko beherakadaren ondoren nabarmen hazi da: 2019an baino %20,2 handiagoa da, termino nominaletan. Araba da lurralderik aberatsena (46.860 €, EAP), eta ondoren datoz Gipuzkoa (43.816), Bizkaia (42.933) eta Nafarroa Garaia (41.517); Ipar Euskal Herria (33.937) nabarmen dago gainerakoen azpitik.


Industria[6] da ekonomiaren ardatz nagusietako bat: balio erantsi gordinaren %24,1 sortzen du (2023), eta manufakturak bakarrik %20,9. Nafarroa Garaian (%29,9), Araban (%29,5) eta Gipuzkoan (%27,7) pisua handiagoa da; Bizkaian (%19,1) eta, batez ere, Ipar Euskal Herrian (%13,8) zerbitzuek dute nagusitasuna. Industriaren pisua nabarmen jaitsi zen 2008ko krisiarekin: Araban %34,8tik %30,8ra, Gipuzkoan %32,3tik %29ra eta Bizkaian %23,8tik %21era (2008-2010); Nafarroa Garaian, %30,6tik %28,7ra urtebetean. Harrezkero, ez da 2008ko mailara itzuli.

BPGa biztanleko. Euskal Herria, 2000-2023 (€, EAP)




Iturria: Eurostat (eskualde-kontuak). Lanketa: Gaindegia.

BPGa biztanleko, lurraldeka. Euskal Herria, 2023 (€, EAP)



Oharra: Ipar Euskal Herriko datua Gaindegiaren estimazioa da, Ipar Euskal Herriko adarkako enpleguaren arabera (ikus ohar metodologikoak).
Iturria: Eurostat (eskualde-kontuak). Lanketa: Gaindegia.

Industriaren pisua balio erantsi gordinean, lurraldeka. Euskal Herria, 2023 (%)



Oharra: Ipar Euskal Herriko datua estimazioa da: departamenduko balio erantsia sektoreka, Ipar Euskal Herriko enpleguaren arabera eskalatuta (INSEE FLORES) eta produktibitatez haztatuta.
Iturria: EUSTAT, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Industriak Euskal Herriko balio erantsiaren %24,1 sortzen du.

[5] EAP (erosteko ahalmenaren parekotasuna; ingelesez, PPS): estatuen arteko prezio-mailen aldeak zuzentzen dituen unitatea, euroetan adierazia.

[6] Industria: B-E sektoreak (erauzketa-industriak, manufaktura, energia eta ur-hornidura eta saneamendua).


2.2
ENPRESAK ETA EKONOMIA SOZIALA

Industria-establezimenduak gutxiago baina handiagoak dira, eta kooperatibek landunen %4,7 enplegatzen dute

Industria-establezimenduak gutxiago dira, baina handiagoak. Batez beste[7] 18,2 langile dituzte (2024); Hego Euskal Herrian 15,1 ziren 2010ean eta 19,1 dira 2025ean, establezimendu kopurua %26,9 murriztu den bitartean. Zuberoan (22,3) eta Nafarroa Garaian (22) dira handienak, eta Nafarroa Beherean (13,2) txikienak.


Enpresa-demografiaren saldoa[8] positiboa da, baina gero eta ahulagoa: 2023an, sortutako enpresak itxitakoak baino 963 gehiago izan ziren, enpresa aktiboen %0,4 (%1,9 2021ean). Nafarroa Garaian, saldoa negatiboa da (-%1). EAEko herrialdeetan, EUSTATen DIRAEren arabera, saldoa negatiboa da 2025ean. Datu hauek ez dira industria-establezimenduen kopuruarekin zuzenean alderagarriak: enpresa-demografiak sektore guztietako enpresak hartzen ditu (Eurostat), eta establezimenduen datuak industriakoak bakarrik.

Industria-establezimenduen batez besteko tamaina. Euskal Herria, 2010-2025 (langileak establezimenduko)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: EUSTAT, NASTAT, INSEE. Lanketa: Gaindegia.

Industria-establezimenduen batez besteko tamaina, herrialdeka. Euskal Herria, 2024 (langileak establezimenduko)



Oharra: Ipar Euskal Herrian, INSEEren udalerrietako establezimendu-datuekin estimatua.
Iturria: EUSTAT, NASTAT, INSEE. Lanketa: Gaindegia.


Industria-establezimendu batek 18,2 langile ditu batez beste Euskal Herrian (2024).

[7] Industria-establezimenduen batez besteko tamaina: langileak (EAEn) edo soldatapekoak (Nafarroa Garaian eta Ipar Euskal Herrian) establezimendu bakoitzeko, tamaina-tarteen erdiguneekin estimatuta.

[8] Enpresa-demografiaren saldoa: urtean sortutako enpresak ken itxitakoak, enpresa aktiboen gainean (ekonomia osoa).


Ekonomia sozialak pisu handia du: kooperatibek[9] 72.320 lanpostu dituzte, landunen %4,7a (2023), 2000n baino gehiago (%3,8). Gipuzkoa (%6,5) eta Bizkaia (%6,5) dira kooperatiba-enpleguaren gunea; Nafarroa Garaian, %3, eta Araban, %2,2.

Kooperatibetako enplegua. Euskal Herria, 2000-2023 (landunen %)




Iturria: CIRIEC, Urssaf, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Kooperatibetako enplegua, lurraldeka. Euskal Herria, 2023 (landunen %)



Oharra: * Ipar Euskal Herria, 2020: Kabiaren kalkulua (CRESS Nouvelle-Aquitaine, INSEE Flores; 1.621 soldatapeko, nekazaritza barne); urte horretarako bakarrik dago datua, eta ez da gainerakoekin guztiz alderagarria. Euskal Herriko serieak Ipar Euskal Herriko estimazio partziala darama: departamenduko kooperatiba-enplegua, Ipar Euskal Herriaren enplegu-zatiaz eskalatua, eta Urssafek neurtzen duen zatia bakarrik (erregimen orokorra, MSA gabe). 2020an, enplegua probintzien artean birsailkatu zen (Gipuzkoatik Bizkaira, batez ere).
Iturria: CIRIEC, Urssaf, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Enpresa-demografiaren saldo garbia (sorrerak ken itxierak). Euskal Herria, 2016-2023 (enpresa aktiboen %)



Oharra: Eurostaten enpresa-demografia (sektore guztiak); 2020ko daturik ez. Azken urteetako itxierak behin-behinekoak dira. Euskal Herriko datuak Ipar Euskal Herriko estimazio bat barne hartzen du, departamenduko datutik eskalatua.
Iturria: Eurostat (enpresa-demografia). Lanketa: Gaindegia.

Kooperatibek 72.320 lanpostu dituzte Euskal Herrian, landunen %4,7a.

[9] Kooperatibetako enplegua: kooperatibetako langileak, landun guztien gainean.


2.3
BERRIKUNTZA: IKERKETA ETA GARAPENA

BPGaren %1,9 I+Gra: Gipuzkoa buru, Ipar Euskal Herria atzean

2023an, Euskal Herrian 2.513 milioi euro inbertitu ziren ikerketan eta garapenean (I+G)[10], BPGaren %1,9a. Ehunekoa egonkor samar mantendu da azken hamarkadan (%1,8 zen 2008an Hego Euskal Herrian). Gipuzkoa (%2,7) nabarmen dago gainerakoen gainetik; ondoren datoz Bizkaia (%1,9), Nafarroa Garaia (%1,8) eta Araba (%1,6). Ipar Euskal Herrian, %0,5 da (estimazioa).


I+Gko langileak[11] enplegu osoaren %2,1 dira (29.842 lanaldi osoko baliokide). Proportzio hori %1,2 zen 2001ean Hego Euskal Herrian, eta nabarmen hazi da harrezkero. Gipuzkoan, lanpostuen %3,1 I+Gn dago; Bizkaian, %2,1; Nafarroa Garaian, %2, eta Araban, %1,8.

I+Gko gastua. Euskal Herria, 2008-2023 (BPGaren %)




Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: EUSTAT, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

I+Gko gastua, lurraldeka. Euskal Herria, 2023 (BPGaren %)




Oharra: Ipar Euskal Herriko datua estimazioa da: Frantziako eskualdeetan I+Gko gastuaren eta ikerketa-jardueretako (NACE 72) enpleguaren artean doitutako erregresio-eredua, Ipar Euskal Herriko NACE 72 enpleguari aplikatuta.
Iturria: EUSTAT, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

I+Gko langileak. Euskal Herria, 2001-2023 (enplegu osoaren %)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako. EAE: EUSTAT; Nafarroa Garaia: Eurostat. Ipar Euskal Herriko datua estimazioa da: Frantziako eskualdeetan I+Gko langileen eta ikerketa-jardueretako (NACE 72) enpleguaren artean doitutako erregresio-eredua, Ipar Euskal Herriko NACE 72 enpleguari aplikatuta.
Iturria: EUSTAT, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

I+Gko langileak, lurraldeka. Euskal Herria, 2023 (enplegu osoaren %)



Oharra: EAE: EUSTAT; Nafarroa Garaia: Eurostat. Ipar Euskal Herriko datua estimazioa da: Frantziako eskualdeetan I+Gko langileen eta ikerketa-jardueretako (NACE 72) enpleguaren artean doitutako erregresio-eredua, Ipar Euskal Herriko NACE 72 enpleguari aplikatuta.
Iturria: EUSTAT, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

[10] I+Gko gastua: lurraldean ikerketan eta garapenean egindako barne-gastua (enpresak, administrazio publikoa, goi-mailako irakaskuntza eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak), BPGaren gainean.

[11] I+Gko langileak: ikerketan eta garapenean ari diren pertsonak (ikertzaileak, teknikariak eta laguntzaileak), lanaldi osoko baliokidetan (LOB), landun guztien gainean.


2.4
KANPO-MERKATARITZA

Ondasun-esportazioak BPGaren %36 dira, eta merkataritza-balantza positiboa da

2023an, Euskal Herriak 44.027 milioi euroko ondasunak esportatu zituen atzerrira, BPGaren %36a. Ratio hori %32,9 zen 2016an eta %39,4ra iritsi zen 2022an. Araba da lurralderik esportatzaileena (%73); ondoren daude Nafarroa Garaia (%41,1), Gipuzkoa (%35,3) eta Bizkaia (%28,1). Ipar Euskal Herrian, %9,7 baino ez (estimazioa).


Ondasun eta zerbitzuen merkataritza-balantza positiboa da Hego Euskal Herrian: BPGaren %1,5 2024an. Atzerriarekiko saldoa nabarmen positiboa da (%6,4), eta estatuko gainerako lurraldeekikoa negatiboa (-%4,9). Nafarroa Garaiak superabit handiagoa du (%5,9) Euskal Autonomia Erkidegoak baino (%0,2).

Ondasun-esportazioak atzerrira. Euskal Herria, 2016-2023 (BPGaren %)




Iturria: EUSTAT, NASTAT, Douanes, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Ondasun-esportazioak atzerrira, lurraldeka. Euskal Herria, 2023 (BPGaren %)




Oharra: Aduana-datuak: ondasunak, atzerrira bakarrik. Ipar Euskal Herriko datua estimazioa da: departamenduko esportazioak (Douanes), Ipar Euskal Herriak departamenduko industrian duen zatiaren arabera eskalatuta.
Iturria: EUSTAT, NASTAT, Douanes, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Merkataritza-balantza (ondasunak eta zerbitzuak). Euskal Herria*, 2010-2024 (BPGaren %)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: EUSTAT, NASTAT, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Merkataritza-balantza, eremuka eta lurraldeka. Euskal Herria*, 2024 (BPGaren %)



Iturria: EUSTAT, NASTAT, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.


2.5
LANA: PRODUKTIBITATEA, SOLDATAK ETA ZAINTZA

Hego Euskal Herrian, produktibitate erreala ia geldirik dago 2015etik, eta lan-kostu unitarioa %23,4 igo da

Hego Euskal Herrian, lan egindako ordu bakoitzeko produktibitatea[12] 51,4 eurokoa da (2024, prezio korronteetan), eta lan-kostua orduko 28,6 eurokoa (22,4 2015ean). Produktibitate erreala[13], ia ez da hazi azken hamarkadan: %3,7 2015etik, 2000-2015 aldian %26 hazi zen bitartean. Lan-kostu unitarioa[14] %23,4 igo da 2015etik (%17,5 2019tik).


Manufakturan, lan-kostua orduko 30 eurokoa da Hego Euskal Herrian (2024): 30,6 Euskal Autonomia Erkidegoan eta 28,4 Nafarroa Garaian. Lan-kostuak balio erantsian duen pisua[15] ia ez da aldatu: Hego Euskal Herrian %61 da ekonomia osoan (%60,6 2015ean) eta %58,2 manufakturan (%65,8 2008an).

Lanaren produktibitatea eta lan-kostua lan egindako orduko, ekonomia osoa. Euskal Herria*, 2000-2024 (euro orduko, prezio korronteak)




Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako. Biak termino nominaletan, prezio korronteetan.
Iturria: Eurostat (eskualde-kontuak). Lanketa: Gaindegia.

Lan-kostua orduko manufakturan, lurraldeka. Euskal Herria*, 2024 (euro orduko)



Oharra: Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia); Ipar Euskal Herrirako ez dago bertako datuetan oinarritutako daturik. Euskal Herria*-ren datua bi eremuen ordainsariak eta orduak batuta kalkulatua da.
Iturria: INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Lan-kostuaren pisua balio erantsian. Euskal Herria*, 2000-2024 (%, autonomoen lana egotzita)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: Eurostat (eskualde-kontuak). Lanketa: Gaindegia.

[12] Produktibitatea orduko: BPGa (prezio korronteak) / lan egindako orduak. Lan-kostua orduko: soldatapekoen ordainsaria (D.1) / soldatapekoen orduak.


[13] Produktibitate erreala: BPGa prezio konstanteetan / lan egindako orduak (indizea, 2015 = 100).

[14] Lan-kostu unitarioa: lan-kostua orduko / produktibitate erreala (indizea, 2015 = 100).

[15] Lan-kostuaren pisua: soldatapekoen ordainsaria (D.1) / balio erantsi gordina, autonomoen lana egotzita.

Soldatapeko bakoitzeko soldata-ordainsaria (enpresaren gizarte-kotizazioak barne) 46.813 eurokoa da Euskal Herrian (2024). Gipuzkoan da handiena (48.945) eta Nafarroa Garaian txikiena (43.109); Ipar Euskal Herrian, 45.919. 2015etik, Euskal Herrian %22 hazi da termino nominaletan: Nafarroa Garaian gehien (%26,8) eta Araban gutxien (%18,4).

Soldata-ordainsaria soldatapeko bakoitzeko, lurraldeka. Euskal Herria, 2024 (euro urtean)




Oharra: Euskal Herriko eta Ipar Euskal Herriko datuak estimazioak dira. Ipar Euskal Herria: INSEEren 158 udalerritako datuetatik estimatua, Frantziako bilakaeraz eguneratua. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa: EUSTAT; Nafarroa Garaia: Eurostat. EUSTATen eta Eurostaten arteko aldea EAEn ez da egonkorra (+%11-12 2015-2019an eta +%6 2020-2024an; haustura metodologikoa 2019/2020an); horregatik, EAEren eta Nafarroa Garaiaren arteko aldea handiagoa da argitaratutako datuekin (%11,4, 2024) oinarri homogeneoan baino (%5,1, Eurostat), eta argitaratutako aldearen murrizketa (%16,5etik %11,4ra) ez da oinarri homogeneoan ageri.
Iturria: EUSTAT, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Soldatapeko bakoitzak 46.813 euro jaso zituen Euskal Herrian 2024an.

Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala[16] murriztu egin da, baina ez da desagertu: Euskal Autonomia Erkidegoan, emakumeen urteko soldata gordina gizonena baino %14 txikiagoa da (%23 2008an); Nafarroa Garaian, %20,4 (%27,9 2008an).


Arrakalaren atzean etxeko lanen eta zaintzaren[17] banaketa desorekatua dago. 2023an, EAEn emakumeek egunean 158 minutu eskaini zizkieten etxeko lanei eta 44 etxeko kideak zaintzeari; gizonek, 110 eta 31. Etxeko lanetan aldea asko murriztu da 1993tik (orduan, emakumeek 256 minutu eta gizonek 63 eskaintzen zizkieten), baina, bi jarduerak batuta, emakumeek astean 7,1 ordu gehiago eskaintzen dizkiete etxeko lanei eta zaintzari.

Soldata-arrakala, emakumeen eta gizonen artean. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa Garaia, 2008 eta 2024 (%)



Oharra: INE, Soldaten Egiturari buruzko Inkesta.
Iturria: INE (Soldaten Egiturari buruzko Inkesta). Lanketa: Gaindegia.

Etxeko lanei eta zaintzari eskainitako denbora, sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa, 2023 (minutu egunean)



Oharra: Biztanleria osoaren batez bestekoa (parte hartzen ez dutenak barne).
Iturria: EUSTAT (Denbora-aurrekontuen Inkesta). Lanketa: Gaindegia.

Emakumeek astean 7,1 ordu gehiago eskaintzen dizkiete etxeko lanei eta zaintzari, bi jarduerak batuta (EAE, 2023).

[16] Soldata-arrakala: gizonen eta emakumeen urteko batez besteko soldata gordinaren arteko aldea, gizonenaren gainean.

[17] Etxeko lanak: sukaldaritza, garbiketa, arropa, erosketak eta etxearen kudeaketa. Zaintza: haurrak, adinekoak eta mendekotasuna duten etxeko kideak zaintzea. Bi jarduerak bereizita neurtzen dira.


2.6
ZOR PUBLIKOA

Herri-administrazioen zorra BPGaren %14,1 da, 2020ko gailurretik behera

Erkidegoetako gobernuen eta toki-administrazioen (udalak, aldundiak) zor publikoa, Gehiegizko Defizitaren Protokoloaren arabera[18], BPGaren %14,1 zen Euskal Herrian 2023an (17.427 milioi euro). Gailurra 2020an izan zen (%20,9, Hego Euskal Herria), eta ordutik jaitsi egin da: %13,7 2025ean (Hego Euskal Herria).


Zorraren zatirik handiena erkidegoetako gobernuena da. Euskal Autonomia Erkidegoan, zorra BPGaren %16,2 da (horietatik %3,9 toki-administrazioena); Nafarroa Garaian, %12,1; Ipar Euskal Herrian, toki-administrazioena baino ez dago, %3,1. Toki-mailan, Bizkaiak du zorrik handiena (%5) eta Nafarroa Garaiak txikiena (%0,3).

Zor publikoa: erkidegoetako gobernuak eta toki-administrazioak. Euskal Herria, 2010-2025 (BPGaren %)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: Espainiako Bankua, Ogasun Ministerioa, DGFiP. Lanketa: Gaindegia.

Zor publikoa, administrazio motaren arabera. Euskal Herria, 2023 (BPGaren %)



Oharra: Ipar Euskal Herrian, udalak eta elkargoa; erkidego-mailako gobernurik ez dago.
Iturria: Espainiako Bankua, Ogasun Ministerioa, DGFiP. Lanketa: Gaindegia.

2020an BPGaren %20,9 zen zor publikoa; 2023an, %14,1.

[18] Gehiegizko Defizitaren Protokoloaren (GDP) araberako zorra: administrazio publikoen zor gordina, balio nominalean, administrazioen arteko zorrak kenduta.

LABURPENA

Ekonomia oparoa, industrian oinarritua. BPGa biztanleko 42.332 eurokoa (EAP) da, eta industriak balio erantsiaren %24,1 sortzen du. Araba eta Gipuzkoa dira lurralderik aberatsenak; Ipar Euskal Herrian, berriz, zerbitzuek dute nagusitasuna.

Kanpora begira. Ondasun-esportazioak BPGaren %36 dira, eta atzerriarekiko merkataritza-saldoa positiboa da (%6,4 Hego Euskal Herrian).

Produktibitatea, geldirik. Hego Euskal Herrian, orduko produktibitate erreala %3,7 baino ez da hazi 2015etik, eta lan-kostu unitarioa %23,4 igo da; soldaten pisua balio erantsian, ordea, ia ez da aldatu (%61). Soldatapeko bakoitzeko ordainsaria 46.813 eurokoa da Euskal Herrian.

Berrikuntza desorekatua. I+Gko gastua BPGaren %1,9 da; Gipuzkoak %2,7 inbertitzen du, eta Ipar Euskal Herriak %0,5.

Lana, etxeko lanak eta zaintza. Soldata-arrakala murriztu egin da (EAEn %14), baina emakumeek astean 7,1 ordu gehiago eskaintzen dizkiete etxeko lanei eta zaintzari. Kooperatibek landunen %4,7 enplegatzen dute. Zor publikoa BPGaren %14,1 da, 2020ko gailurretik behera.

Ekonomiako adierazle nagusiak

Adierazlea	Balioa	Lurralde eremua (urtea)	Joera
BPGa biztanleko (€, EAP)	42.332	Euskal Herria (2023)	▲ Hazten
Industriaren pisua balio erantsi gordinean (%)	%24,1	Euskal Herria (2023)	● Egonkor
Industria-establezimenduen batez besteko tamaina (langileak)	18,2	Euskal Herria (2024)	▲ Hazten
Kooperatibetako enplegua (landunen %)	%4,7	Euskal Herria (2023)	● Egonkor
Enpresa-demografiaren saldo garbia (aktiboen %)	%0,4	Euskal Herria (2023)	▼ Ahultzen
I+Gko gastua (BPGaren %)	%1,93	Euskal Herria (2023)	● Egonkor
I+Gko langileak (enpleguaren %)	%2,12	Euskal Herria (2023)	▲ Hazten
Ondasun-esportazioak (BPGaren %)	%36,0	Euskal Herria (2023)	▲ Hazten
Merkataritza-balantza (BPGaren %)	%1,5	Euskal Herria* (2024)	● Positiboa
Lanaren produktibitatea (€)	51,4	Euskal Herria* (2024)	● Geldirik (erreala)
Lan-kostu unitarioa (indizea, 2015 = 100)	123,4	Euskal Herria* (2024)	▲ Hazten
Lan-kostua orduko manufakturan (€)	30,0	Euskal Herria* (2024)	▲ Hazten
Soldata-ordainsaria soldatapeko bakoitzeko (€)	46.813	Euskal Herria (2024)	▲ Hazten (nominala)
Soldata-arrakala (%)	%14,0	Euskal Autonomia Erkidegoa (2024)	▼ Murrizten
Zor publikoa (BPGaren %)	%14,1	Euskal Herria (2023)	▼ Jaisten

Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: EUSTAT, NASTAT, INE, INSEE, Espainiako Bankua, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.



3

GIZARTEA

Inoiz baino enplegu eta prestakuntza handiagoa, baina prezioek eta pobrezia-arriskuak ez dute amore ematen

Hego Euskal Herrian, 15-64 urteko biztanleen %71,9 lanean ari da (2025), inoizko tasarik handiena, eta 25-64 urtekoen %56,4k goi-mailako ikasketak ditu. Errenta erabilgarria hazi egin da, baina prezioak %18,8 igo dira 2021etik, eta biztanleen %15,1 pobrezia edo bazterkeria arriskuan dago. Gizarte-babeseko gastua eta genero-berdintasuna lurraldeen arabera aldatzen dira.

%71,9

okupazio-tasa, 15-64 urte (Euskal Herria*, 2025)

%56,4

goi-mailako ikasketak, 25-64 urte (Euskal Herria*, 2025)

+%18,8

prezioen igoera, 2021-2025 (Euskal Herria*)

%15,1

pobrezia edo bazterkeria arriskuan, AROPE (Euskal Herria*, 2025)


3.1
LANA ETA PRESTAKUNTZA

Okupazio-tasa inoizko mailarik handienean dago, eta emakumeen eta gizonen arteko aldea laurdenera jaitsi da

Hego Euskal Herrian, 15 eta 64 urte bitarteko biztanleen %71,9 lanean ari zen 2025ean, serieko tasarik handiena. 2008ko krisiaren aurreko gailurra (%69) gainditu da, 2023ko zentsu-datuen arabera Euskal Herri osoan %70,6koa zen tasa, eta 2013ko zorupetik (%62,1) ia hamar puntu igo da.


Gipuzkoa da okupazio-tasa handiena duen herrialdea (%74,8), eta Nafarroa Garaia txikiena (%69,5); Ipar Euskal Herrian, %69,9 (2023). Emakumeen eta gizonen arteko aldea 24,4 puntutik (2003) 6,3 puntura jaitsi da, eta 55-64 urtekoen okupazioa %39,3tik %66,4ra igo da.

Okupazio-tasa (15-64 urte), sexuaren arabera. Euskal Herria, 2003-2025 (%)




Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako. Euskal Herri osoko datuak zentsu-urteetakoak dira (2012, 2017, 2023); gainerakoak, Euskal Herria*.
Iturria: EUSTAT, INSEE, Eurostat (LFS). Lanketa: Gaindegia.

Okupazio-tasa (15-64 urte), lurraldeka. Euskal Herria, 2023 (%)



Iturria: EUSTAT, INSEE, Eurostat (LFS). Lanketa: Gaindegia.

Okupazio-tasa, adin-taldearen eta sexuaren arabera. Euskal Herria*, 2025 (%)




Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: EUSTAT, Eurostat (LFS). Lanketa: Gaindegia.

Goi-mailako ikasketak[19] dituzten 25-64 urteko biztanleak %56,4 dira Hego Euskal Herrian (2025), 2003an baino 21 puntu gehiago (%35,4). Emakumeek gizonek baino askoz maila handiagoa dute: %61,1, gizonen artean, %51,8.


Lurraldeen arteko aldeak nabarmenak dira. 2023an, Gipuzkoa (%57,5) eta Bizkaia (%56,5) zeuden buruan; Nafarroa Garaia (%48,3) eta, batez ere, Ipar Euskal Herria (%44,5) atzean. Euskal Herri osoan, %53,4.

Goi-mailako ikasketak dituzten 25-64 urtekoak, sexuaren arabera. Euskal Herria, 2003-2025 (%)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: EUSTAT, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Goi-mailako ikasketak dituzten 25-64 urtekoak, lurraldeka. Euskal Herria, 2023 (%)



Oharra: Ipar Euskal Herria: INSEE, biztanleriaren errolda.
Iturria: EUSTAT, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Hego Euskal Herrian, 25-64 urteko emakumeen %61,1ek goi-mailako ikasketak ditu; gizonen %51,8k.

[19] Goi-mailako ikasketak: ISCED 5-8 mailak (goi-mailako heziketa-zikloak, graduak, masterrak eta doktoregoak).




3.2
ERRENTA, PREZIOAK ETA DESBERDINTASUNA

Errenta hazi da, baina 2021etik prezioak ia %19 igo dira

Etxeen errenta erabilgarria[20] 26.078 eurokoa (EAP) da biztanleko Hego Euskal Herrian (2023): 26.800 EAEn eta 23.700 Nafarroa Garaian. 2012ko zorupetik (17.373) asko hazi da, eta azken urtean bakarrik %14,6. 2021ean, Ipar Euskal Herria barne, Euskal Herriko errenta 20.880 eurokoa (EAP) zen, eta Iparraldekoa (19.163) Nafarroa Garaikoaren parekoa.


Prezioen igoerak errentaren hazkundearen zati handi bat jan du. Kontsumo-prezioak %18,8 igo dira Hego Euskal Herrian 2021etik 2025era; 2022an, %8,2 urtebetean. 2025ean, inflazioa %2,9 izan zen Hegoaldean.

Etxeen errenta erabilgarria biztanleko. Euskal Herria, 2000-2023 (€, EAP)




Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Etxeen errenta erabilgarria biztanleko, lurraldeka. Euskal Herria, 2021 (€, EAP)




Oharra: Ipar Euskal Herriko datua estimazioa da (INSEE FILOSOFI). Eurostatek 2023an jauzi handia erakusten du, erosahalmen-paritateen eguneratzeagatik neurri batean.
Iturria: INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Kontsumo-prezioen urteko aldakuntza. Euskal Herria*, 2004-2025 (%)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: INE (KPI). Lanketa: Gaindegia.

Kontsumo-prezioen aldakuntza metatua, lurraldeka. Euskal Herria*, 2021-2025 (%)




Oharra: Hegoaldea: INEren KPI. Ipar Euskal Herrirako ez dago indize propiorik.
Iturria: INE (KPI). Lanketa: Gaindegia.

[20] Etxeen errenta erabilgarria: zergak eta gizarte-kotizazioak ordaindu eta gizarte-prestazioak jaso ondoren etxeek kontsumitzeko edo aurrezteko duten errenta.

Pobrezia edo bazterkeria arriskuan dauden pertsonak (AROPE[21]) biztanleen %15,1 dira Hego Euskal Herrian (2025), 2015ean baino gutxiago (%17,2). Joerak, ordea, aurkakoak dira: EAEn jaitsi egin da (%14,7), eta Nafarroa Garaian %12,4tik (2019) %16,5era igo. EUSTATen inkestak (EPDS) zifra handiagoa ematen du EAErako: %20,6 (2024).


Errentaren desberdintasuna moderatua da: Gini indizea[22] 29,6koa da Hego Euskal Herrian (2023). Gipuzkoa da herrialderik berdintasunezkoena (27,7) eta Nafarroa Garaia desberdinena (30,9); Ipar Euskal Herrian, 28,9 (2021). 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, Getxo (33,6) eta Errenteria (24,7) dira muturrak.

Pobrezia edo bazterkeria arriskua (AROPE). Euskal Herria*, 2015-2025 (%)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako. Eurostat, EU-SILC (EB2030 definizioa); Euskal Herria*, biztanleriaz haztatua. Ipar Euskal Herriko daturik ez.
Iturria: Eurostat (EU-SILC). Lanketa: Gaindegia.

Gini indizea, lurraldeka. Euskal Herria*, 2023 (0-100)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako. INEren Etxeen Errentaren Banaketaren Atlasa (udalerrietako banaketak batuta). Ipar Euskal Herrian, 28,9 (2021, INSEE FILOSOFI).
Iturria: INE (Etxeen Errentaren Banaketaren Atlasa). Lanketa: Gaindegia.

Nafarroa Garaian, pobrezia edo bazterkeria arriskuan daudenak %12,4tik %16,5era igo dira 2019tik.

[21] AROPE (EB2030 definizioa): pobrezia-arriskuan (errenta baliokidea mediana nazionalaren %60tik behera), gabezia material eta sozial larrian edo lan-intentsitate oso txikiko etxeetan bizi diren pertsonak.

[22] Gini indizea: errentaren banaketaren desberdintasuna, 0 (berdintasun osoa) eta 100 (desberdintasun osoa) bitartean.




3.3
BABES SOZIALA, BERDINTASUNA ETA ONGIZATEA

EAEk BPGaren %28 bideratzen du gizarte-babesera; bizitzarekiko gogobetetasuna 7,4koa da

Gizarte-babeseko gastua[23] BPGaren %28,3 da Euskal Autonomia Erkidegoan (2024), 2008an baino 8 puntu gehiago (%19,9). Pandemiak gailurrera eraman zuen (%29,5 2020an). Nafarroa Garaian, %20,8 zen 2019an, azken datu argitaratuan; Hego Euskal Herrian, %23,5.


Genero-berdintasunaren indizea[24] 66koa da EAEn EUSTATen 2025eko edizioan, 2020koan baino 2 puntu gehiago; Gipuzkoak egin du aurrerapenik handiena (63,2tik 67,6ra). 2020ko edizioan, Nafarroa Garaiak 74,6 zuen, eta Hego Euskal Herriak 66,4 (hurbilketa). Edizio-urtea ez da datuen urtea (2-3 urte lehenagokoak dira), eta metodologia berrikusi da edizioen artean.

Gizarte-babeseko gastua. Euskal Herria*, 2003-2024 (BPGaren %)




Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako. EUSTAT eta NASTAT (ESSPROS); Nafarroa Garaiko azken datua 2019koa da. Ipar Euskal Herriko daturik ez.
Iturria: EUSTAT, NASTAT. Lanketa: Gaindegia.

Genero-berdintasunaren indizea, lurraldeka. Euskal Herria*, 2020 eta 2025eko edizioak (0-100)



Oharra: EUSTAT, NASTAT. Urtea = edizioa: datuak 2-3 urte lehenagokoak dira; edizioen artean etena dago. Euskal Herria*: EAEren eta Nafarroa Garaiaren batez besteko haztatua (hurbilketa). Ipar Euskal Herrirako ez dago indize homologorik.
Iturria: EUSTAT, NASTAT. Lanketa: Gaindegia.

Bizitzarekiko gogobetetasuna, lurraldeka. Euskal Herria*, 2024 (batez bestekoa, 0-10)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako. EAE: EUSTAT, Ongizate pertsonalaren inkesta. Nafarroa Garaia: INE, Bizi Baldintzen Inkesta. Ipar Euskal Herriko daturik ez.
Iturria: EUSTAT, INE. Lanketa: Gaindegia.

Biztanleek bizitzarekiko duten gogobetetasuna handia eta egonkorra da: 7,42 0-10 eskalan Hego Euskal Herrian (2024). Lurraldeen arteko aldeak txikiak dira (Bizkaia 7,37, Nafarroa Garaia 7,47), eta EAEn 7,08tik (2014) 7,40ra igo da.

[23] Gizarte-babeseko gastua (ESSPROS): pentsio, osasun, langabezia, familia, etxebizitza eta gizarte-bazterkeriaren arloetako gizarte-babeseko sistemen gastua, BPGaren gainean.

[24] Genero-berdintasunaren indizea (EIGEren metodologia): emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sei eremutan (lana, dirua, ezagutza, denbora, boterea eta osasuna), 1etik 100era (100 = berdintasun osoa).

LABURPENA

Enplegua, gorenean. Okupazio-tasa %71,9 da Hego Euskal Herrian (15-64 urte), serieko handiena, eta emakumeen eta gizonen arteko aldea 6,3 puntura jaitsi da. Gipuzkoa buru; Nafarroa Garaia eta Ipar Euskal Herria atzean.

Prestakuntza handia, emakumeen eskutik. Hego Euskal Herrian, 25-64 urtekoen %56,4k goi-mailako ikasketak ditu; emakumeen artean, %61,1. Ipar Euskal Herria (%44,5) da atzean dagoen lurraldea.

Errenta hazi, prezioak ere bai. Errenta erabilgarria 26.078 eurokoa (EAP) da biztanleko Hego Euskal Herrian, baina prezioak %18,8 igo dira 2021etik.


Pobrezia eta desberdintasuna, moderatuak. Hego Euskal Herrian, biztanleen %15,1 dago pobrezia edo bazterkeria arriskuan, baina Nafarroa Garaian gora egin du (%16,5). Gini indizea 29,6koa da.

Babesa eta ongizatea. EAEk BPGaren %28,3 bideratzen du gizarte-babesera. Genero-berdintasunaren indizea 66koa da EAEn, eta bizitzarekiko gogobetetasuna 7,42koa Hego Euskal Herrian.

Gizarteko adierazle nagusiak

Adierazlea	Balioa	Lurralde eremua (urtea)	Joera
Okupazio-tasa, 15-64 urte (%)	%70,6	Euskal Herria (2023)	▲ Hazten
Kontsumo-prezioen aldakuntza metatua, 2021etik (%)	%18,8	Euskal Herria* (2021-2025)	▲ Hazten (moteltzen)
Gizarte-babeseko gastua (BPGaren %)	%28,3	Euskal Autonomia Erkidegoa (2024)	▲ Hazten
Goi-mailako ikasketak, 25-64 urte (%)	%53,4	Euskal Herria (2023)	▲ Hazten
Bizitzarekiko gogobetetasuna (0-10)	7,42	Euskal Herria* (2024)	● Egonkor
Genero-berdintasunaren indizea (0-100, edizioa)	66,0	Euskal Autonomia Erkidegoa (2025)	▲ Hobetzen
Etxeen errenta erabilgarria biztanleko (€, EAP)	20.880	Euskal Herria (2021)	▲ Hazten
Pobrezia edo bazterkeria arriskua, AROPE (%)	%15,1	Euskal Herria* (2025)	▼ Jaisten (NGn gora)
Gini indizea (0-100)	32,2	Euskal Herria (2021)	▼ Jaisten

Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako. Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berrienak: Okupazio-tasa, 15-64 urte: %71,9 (2025); Goi-mailako ikasketak, 25-64 urte: %56,4 (2025); Etxeen errenta erabilgarria biztanleko: 26.078 (2023); Gini indizea: 29,6 (2023).
Iturria: EUSTAT, NASTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.



EUSKAL HERRIA · ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOEN GALERIA 2026



KULTURA ETA HIZKUNTZAK

Euskara belaunaldi berrietan zabaldu da, baina erabilerak ez du ezagutzaren erritmoa hartu

Hego Euskal Herrian 990.437 euskaldun daude (2021), 5 urtetik gorakoen %36,1a; 10-14 urtekoen artean, %74,3. Erabilera apalagoa da Euskal Herri osoan: kalean, elkarrizketen %12,6 egiten da euskaraz, eta lanean, langileen %30,9k erabiltzen du lankideekin. Hego Euskal Herrian, kulturak 44.900 lanpostu ditu, eta euskaraz 2.791 titulu argitaratu ziren 2023an.

990.437
euskaldun, 5 urtetik gora (Euskal Herria*, 2021)

%36,1
euskaldunen dentsitatea (Euskal Herria*, 2021)

%30,9
lankideekin euskara erabiltzen dutenak (Euskal Herria, 2021)

44.900
kultur enplegua (Euskal Herria*, 2025)


4.1
EUSKARAREN EZAGUTZA

Euskaldunak 5 urtetik gorakoen herena baino gehiago dira, eta haur eta gazteen artean, hirutik bi

2021ean, Hego Euskal Herrian 990.437 euskaldun[25] zeuden, 5 urtetik gorako biztanleen %36,1, eta beste 395.163 euskaldun hartzaile (%14,4). Euskaldunen %41,4 Bizkaian bizi da, eta %39,7 Gipuzkoan. Euskal Autonomia Erkidegoan 897.878 dira, eta Nafarroa Garaian 92.559.

Hiztunen dentsitatea oso desberdina da lurraldeen artean: Gipuzkoan biztanleen %56,9 da euskalduna, Bizkaian %37,1, Araban %30,1 eta Nafarroa Garaian %14,6. Adinak markatzen du alderik handiena: 10-14 urtekoen %74,3 da euskalduna, 40-64 urtekoen %26,3 eta 65 urtetik gorakoen %19,3.


Biztanleria hizkuntza-gaitasunaren arabera, lurraldeka. Euskal Herria*, 2021 (5 urtetik gorakoen %)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako. Ipar Euskal Herriko daturik ez: Frantziako zentsuak ez du hizkuntza-galderarik.
Iturria: EUSTAT, NASTAT (2021eko biztanleria-zentsuak). Lanketa: Gaindegia.

10-14 urtekoen %74,3 euskalduna da; 65 urtetik gorakoen artean, %19,3.

Biztanleria hizkuntza-gaitasunaren arabera, adin-taldeka. Euskal Herria*, 2021 (%)




Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: EUSTAT, NASTAT (2021eko biztanleria-zentsuak). Lanketa: Gaindegia.

[25] Euskalduna: euskaraz ondo hitz egiten duena; euskaldun hartzailea: euskaraz ondo ulertu baina ondo hitz egiten ez duena (5 urtetik gorako biztanleak).

Eskualdeen arteko aldeak are handiagoak dira. Lea Artibain biztanleen %80,1 da euskalduna, eta guztira 8 eskualdetan gainditzen da %60a, Bizkaiko kostaldetik eta Gipuzkoatik Nafarroa Garaiko ipar-mendebaldera hedatzen den eremuan. Erriberan, berriz, euskaldunak gutxiengo txikia dira: Tuteraldean, %1,2.

Euskaldunen dentsitatea, eskualdeka. Euskal Herria*, 2021 (5 urtetik gorakoen %)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako. Udalerrien kopuruak eskualdeka batuta (Nafarroa Garaian, zazpi eskualde). Ipar Euskal Herriko daturik ez: Frantziako zentsuak ez du hizkuntza-galderarik.
Iturria: EUSTAT, NASTAT (2021eko biztanleria-zentsuak). Lanketa: Gaindegia.


4.2
EUSKARAREN ERABILERA

Lanean euskara erabiltzen dutenak ia bikoiztu egin dira 1991tik; kalean, erabilera %12-13an dago egonkor

Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Euskal Herriko langileen %30,9k erabiltzen zuen euskara lankideekin[26] 2021ean, 1991n %17,5ek; euskara nagusi dutenak %7,9tik %16,5era igo dira. Gipuzkoan, langileen erdiak baino gehiagok erabiltzen du (%55,4); Nafarroa Garaian (%12,6) eta Ipar Euskal Herrian (%12), askoz gutxiagok. Araban igo da gehien: %5,8tik %25era.


Kaleko erabilerak[27], berriz, egonkortasuna erakusten du: Euskal Herrian, elkarrizketen %12,6 egiten da euskaraz (2021), 2006ko gailurraren (%13,7) azpitik. Haurrek erabiltzen dute gehien (%19,3), eta 65 urtetik gorakoek gutxien (%8,1). Gipuzkoan elkarrizketen %30,6 da euskaraz eta Bizkaian %9,4; Araban, Nafarroa Garaian eta Ipar Euskal Herrian, %5 inguru.

Euskararen erabilera lankideekin. Euskal Herria, 1991-2021 (%)




Oharra: Lanean ari diren 16 urtetik gorakoak.
Iturria: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa (Inkesta Soziolinguistikoa). Lanketa: Gaindegia.

Euskararen erabilera lankideekin, lurraldeka. Euskal Herria, 2021 (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa (Inkesta Soziolinguistikoa). Lanketa: Gaindegia.

Euskararen kale-erabilera, adin-taldeka. Euskal Herria, 1989-2021 (elkarrizketen %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra (Kale Erabileraren Neurketa). Lanketa: Gaindegia.

Euskararen kale-erabilera, lurraldeka. Euskal Herria, 2021 (elkarrizketen %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra (Kale Erabileraren Neurketa). Lanketa: Gaindegia.

[26] Lankideekiko erabilera: lanean ari diren 16 urtetik gorakoak; euskara erabiltzen dutenak dira euskara nagusi dutenak eta euskara eta erdara neurri berean edo erdara gehiago erabiltzen dutenak.

[27] Kale-erabilera: kalean entzundako elkarrizketen behaketa zuzena; euskaraz egindako elkarrizketak, guztien gainean.

4.3
KULTURA: ENPLEGUA, GASTUA ETA LIBURUGINTZA


Hego Euskal Herrian, kulturak 44.900 lanpostu ditu, eta 216 euro gastatzen dira biztanleko

Kultur enplegua 44.900 pertsonakoa da Hego Euskal Herrian (2025): 36.000 Euskal Autonomia Erkidegoan eta 8.900 Nafarroa Garaian. Krisiaren ondoren 34.400era jaitsi zen (2013), eta 2022an gailurra jo zuen (51.000).

Gobernu autonomikoek eta udalek kulturan likidatutako gastua 621,3 milioi eurokoa izan zen 2023an, 216 euro biztanleko: 225 EAEn eta 189 Nafarroa Garaian. Udalek egiten dute gastuaren zatirik handiena (%61,4), eta 2015etik biztanleko gastua %47,1 hazi da, termino nominaletan.


Euskarazko liburugintza ere hazi egin da: 2023an 2.791 titulu argitaratu ziren, 2000n baino %58,2 gehiago. Hazkundea formatu digitalari zor zaio: 955 titulu digital (%34,2); paperezkoak 2008ko gailurraren azpitik daude.

Kultur enplegua. Euskal Herria*, 2011-2025 (milaka pertsona)




Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako. Biztanleria Aktiboaren Inkestatik eratorria (lagin txikia). Ipar Euskal Herriko daturik ez.
Iturria: Kultura Ministerioa (CULTURAbase). Lanketa: Gaindegia.

Kultur gastu publikoa biztanleko (gastu likidatua), administrazio motaren arabera. Euskal Herria*, 2023 (euro)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako. Euro korronteak. Ipar Euskal Herriko daturik ez.
Iturria: Kultura Ministerioa (CULTURAbase), INE. Lanketa: Gaindegia.

Euskaraz argitaratutako tituluak, euskarriaren arabera. Euskal Herria, 2000-2023 (titulu kopurua)



Iturria: J. M. Torrealdai (euskal liburugintzaren urteko azterketak). Lanketa: Gaindegia.

LABURPENA

Ezagutza, belaunaldiz belaunaldi. Hego Euskal Herrian 990.437 euskaldun daude, 5 urtetik gorakoen %36,1a; 10-14 urtekoen artean, %74,3.

Lurralde-aldeak. Gipuzkoan biztanleen %56,9 da euskalduna, eta Nafarroa Garaian %14,6. Kaleko eta laneko erabileran ere aldeak handiak dira.

Erabilera, ezagutzaren atzetik. Kalean elkarrizketen %12,6 egiten da euskaraz, egonkor; lanean, langileen %30,9k erabiltzen du lankideekin (%17,5 1991n).


Kultura. Hego Euskal Herrian, kulturak 44.900 lanpostu ditu, eta administrazioek 216 euro gastatzen dituzte biztanleko. Euskaraz 2.791 titulu argitaratu ziren 2023an, herena digitalak.

Kultura eta hizkuntzetako adierazle nagusiak

Adierazlea	Balioa	Lurralde eremua (urtea)	Joera
Euskararen ezagutza: euskaldunak, 5 urtetik gora (kopurua)	990.437	Euskal Herria* (2021)	▲ Gazteetan hazten
Euskaldunen dentsitatea (%)	%36,1	Euskal Herria* (2021)	▲ Gazteetan hazten
Kultur enplegua (pertsonak)	44.900	Euskal Herria* (2025)	● Gorabeheratsu
Kultur gastu publikoa biztanleko (gastu likidatua) (€)	216	Euskal Herria* (2023)	▲ Hazten
Euskaraz argitaratutako tituluak	2.791	Euskal Herria (2023)	▲ Hazten (digitala)
Euskararen erabilera lankideekin (%)	%30,9	Euskal Herria (2021)	▲ Hazten
Euskararen kale-erabilera (%)	%12,6	Euskal Herria (2021)	● Egonkor

Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: EUSTAT, NASTAT, Inkesta Soziolinguistikoa, Soziolinguistika Klusterra, J. M. Torrealdai, Kultura Ministerioa. Lanketa: Gaindegia.





5 INGURUMENA

Energian eta isurietan aurrera, baina lurzoruak, bioaniztasunak eta hondakinek erronka handiak dituzte

Hego Euskal Herriko ekonomiak energia gutxiago darabil BPG unitateko (%20 gutxiago 2014tik), baina azken energia-kontsumoa %17,9 hazi da; berriztagarriek azken kontsumoaren %22,3 hartzen dute. Isurketa antropogenikoen ingurumen-inpaktua %35,9 jaitsi da 2005etik, baina PM2.5 partikulek OMEren gomendioa gainditzen dute. Euskal Herrian, Natura 2000 sareko kasuen %76,6 dago egoera onean; Hego Euskal Herrian, hiri-hondakinen %44,8 biltzen da gaika.

%22,3

energia berriztagarrien kuota (Euskal Herria*, 2023)

–%35,9

isurien ingurumen-inpaktua, 2005-2022 (Euskal Herria)

8,3

µg/m³ PM2.5, OMEren gomendioa: 5 (Euskal Herria, 2025)

%76,6

Natura 2000: kontserbazio-egoera onean (Euskal Herria, 2024)


5.1
ENERGIA

Ekonomiak energia gutxiago darabil BPG unitateko, baina kontsumo osoa hazi egin da; berriztagarriak hazten ari dira, Nafarroa Garaiaren bultzadaz

Energia-intentsitatea[28] 77,7 teP-koa da Hego Euskal Herrian (2024), 2014an baino %20 gutxiago (97,1). Euskal Autonomia Erkidegoak 74,4 teP behar ditu milioi euroko, eta Nafarroa Garaiak 89,2. Jaitsiera nabarmenena 2023an gertatu zen. Jaitsiera hori erlatiboa da: azken energia-kontsumoa bera 7.798 ktep-ekoa zen 2014an eta 9.191 ktep-ekoa 2024an (%17,9 gehiago); BPGa kontsumoa baino gehiago hazi da.


Energia berriztagarriek[29] azken kontsumo gordinaren %22,3 hartzen dute Hego Euskal Herrian (2023; %18,3 2014an). Nafarroa Garaia aurrean dago (%28,3, 2024), EAEren aldean (%20,4). Aldea are handiagoa da ahalmen instalatuan: Nafarroa Garaiak 3.688 watt berriztagarri ditu biztanleko, EAEk baino 10,6 aldiz gehiago (348). Hego Euskal Herrian 1.128 W dira biztanleko, 2015ean baino %70,4 gehiago.

Energia-intentsitatea. Euskal Herria*, 2010-2024 (teP BPGaren milioi euroko)




Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako. Ipar Euskal Herriko daturik ez.
Iturria: EUSTAT, Nafarroako Gobernua (energia-balantzea), Eurostat (BPGa). Lanketa: Gaindegia.

Energia berriztagarrien kuota azken energia-kontsumo gordinean, lurraldeka. Euskal Herria*, 2014 eta 2023 (%)



Iturria: EUSTAT, Nafarroako Gobernua (energia-balantzea). Lanketa: Gaindegia.

Elektrizitate berriztagarria sortzeko ahalmen instalatua, lurraldeka. Euskal Herria*, 2015 eta 2025 (watt biztanleko)



Iturria: REE (REData), Eurostat (biztanleria). Lanketa: Gaindegia.

Nafarroa Garaiak EAEk baino 10,6 aldiz ahalmen berriztagarri gehiago du biztanleko.

[28] Energia-intentsitatea: energiaren azken kontsumoa (tona petrolio baliokidetan, teP), BPGaren milioi euro bakoitzeko.

[29] Energia berriztagarrien kuota: energia berriztagarrien azken kontsumo gordina, energiaren azken kontsumo gordin osoaren gainean.


5.2
LURRALDEA ETA BIOANIZTASUNA

Lurzoru artifiziala %10 hazi da 2006tik, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako basoetan landaketak nagusi dira

Euskal Herriko lurraldearen %30,7 basoa da, eta baso horien %69,2 naturala. Aldeak handiak dira: Ipar Euskal Herrian %96 eta Nafarroa Garaian %83,2 dira naturalak, baina Bizkaian %24 eta Gipuzkoan %38,8 baino ez, landaketak nagusi direlako.


Erabilera artifizialeko lurzorua[30] 7.551 hektarea hazi da 2006-2018 aldian (%10,5), eta Euskal Herriko lurraldearen %4 hartzen du (2018); Hego Euskal Herrian, %3,7. Hazkunde gehiena 2006-2012an gertatu zen (%9,6); 2012tik, %0,9 baino ez. Lapurdin, lurraldearen %16,7 da artifiziala, eta Bizkaian %8,4; Zuberoan, %0,8 baino ez. Araban hazi da gehien (%15,8).

Baso naturalak baso osoaren gainean, herrialdeka. Euskal Herria, 2018-2024 (%)



Oharra: Azken mapa forestala: EAE 2024, Nafarroa Garaia 2021, Ipar Euskal Herria 2018. Sailkapen propioa (bertako espezieak vs. landaketak).
Iturria: Mapa forestalak (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, IGN-F). Lanketa: Gaindegia.


Lurzoru artifizialaren hazkundea, herrialdeka. Euskal Herria, 2006-2018 (%)



Iturria: Copernicus (CORINE Land Cover). Lanketa: Gaindegia.

Natura 2000 sareko kasuen %76,6 dago egoera onean, EBko batez bestekoaren (%80,3) azpitik.

Lurzoru artifiziala, lurraldearen gainean, herrialdeka. Euskal Herria, 2018 (%)




Iturria: Copernicus (CORINE Land Cover). Lanketa: Gaindegia.

[30] Erabilera artifizialeko lurzorua: hiri-guneak, industria- eta merkataritza-guneak, garraio-azpiegiturak, meategiak, zabortegiak eta eraikuntza-guneak.

Natura 2000 sareko habitat eta espezieen kasuen %76,6 kontserbazio-egoera onean[31] dago Euskal Herrian (2024; 1.289 kasu ebaluatuta) eta 2013an baino gutxiago (%82,2). Nafarroa Garaia (%91,3) dago egoerarik onenean; EAE (%65,3) eta Ipar Euskal Herria (%64,6), atzean.


Ur-masen egoera ekologikoa hobetzen ari da EAEn: %54,5 dago egoera onean (2024; %47 2019an). 2022ko plangintza-zikloan, Hego Euskal Herriko ibaien %67,2 zegoen egoera onean: Gipuzkoan %71,8 eta Bizkaian %70,4, eta Araban %58,1.

Natura 2000: kontserbazio-egoera onean dauden kasuak. Euskal Herria, 2013-2024 (%)




Iturria: EEA (Natura 2000, Standard Data Forms). Lanketa: Gaindegia.

Natura 2000: kontserbazio-egoera onean dauden kasuak, lurraldeka. Euskal Herria, 2024 (%)




Iturria: EEA (Natura 2000, Standard Data Forms). Lanketa: Gaindegia.

Egoera ekologiko onean dauden ur-masak. Euskal Autonomia Erkidegoa, 2019-2024 (%)



Iturria: URA (Eusko Jaurlaritza). Lanketa: Gaindegia.

Egoera ekologiko onean dauden ur-masak: ibaiak, lurraldeka. Euskal Herria*, 2022 (%)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako. Iturriak ez datoz bat: URAren arabera, EAEko ibaien %49,5 zegoen egoera onean 2022an; MITECO/WISEren arabera, %66,1.
Iturria: MITECO / WISE (EEA). Lanketa: Gaindegia.

[31] Natura 2000 kontserbazio-egoera: kontserbazio-egoera bikaina (A) edo ona (B) duten habitat eta espezieen kasuak, ebaluatutako kasuen gainean, guneak izendatzean bildutako datuekin (Standard Data Forms).


5.3
AIREA ETA ATMOSFERA

Isurketa antropogenikoen ingurumen-inpaktua herena jaitsi da 2005etik; PM2.5 partikulek, ordea, OMEren gomendioa gainditzen dute

Biztanleek jasaten duten PM2.5 partikula finen[32] kontzentrazioa 8,3 µg/m³-koa da Euskal Herrian (2025), 2018ko gailurraren (10,7 µg/m³) eta EBk 2030erako ezarritako mugaren (10 µg/m³) azpitik. Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioa (5 µg/m³), ordea, 1,7 aldiz gainditzen du. Araban (8,9 µg/m³), Nafarroa Garaian (8,8 µg/m³) eta Bizkaian (8,6 µg/m³) dago kontzentraziorik handiena; Zuberoan (6,5 µg/m³), txikiena.


Isurketa antropogenikoen ingurumen-inpaktua (IAI[33]) %35,9 jaitsi da 2005-2022 aldian: 1.856 mila pertsona-baliokidetik 1.190 milara. Jaitsierarik handiena 2007-2009 artean gertatu zen (%17,2: 1.832 milatik 1.517 milara), krisi ekonomikoarekin eta industriaren pisuaren beherakadarekin batera (ikus 2.1). Gipuzkoan jaitsi da gehien (%61,4), eta Nafarroa Garaian gutxien (%20,9). Biztanleko, Nafarroa Garaiaren inpaktua (0,65 pertsona-baliokide) EAErena (0,30 pertsona-baliokide) baino bi aldiz handiagoa da.

PM2.5 kontzentrazioa (biztanleriak jasandakoa). Euskal Herria, 2016-2025 (µg/m³, batez bestekoa)




Iturria: EEA (PM2.5 sareta interpolatua), JRC (GHS-POP). Lanketa: Gaindegia.

PM2.5 kontzentrazioa, herrialdeka. Euskal Herria, 2025 (µg/m³)




Iturria: EEA (PM2.5 sareta interpolatua), JRC (GHS-POP). Lanketa: Gaindegia.

Isurketa antropogenikoen ingurumen-inpaktua (IAI). Euskal Herria, 2005-2022 (milaka pertsona-baliokide)



Iturria: Amalur EIS, Copernicus (CAMS 8.0). Lanketa: Gaindegia.

IAIaren aldaketa, lurraldeka. Euskal Herria, 2005-2022 (%)



Iturria: Amalur EIS, Copernicus (CAMS 8.0). Lanketa: Gaindegia.

[32] PM2.5: 2,5 µm-tik beherako diametroko partikula esekiak; biztanleek jasaten duten kontzentrazioa, biztanleriaz haztatutako urteko batez bestekoa.

[33] IAI: isuri bakoitza bere ingurumen-inpaktuaren arabera haztatuta (JRCren EF3.1 LCIA metodoa), 2010eko pertsona-baliokidetan (WENFIp adierazlea).


5.4
MATERIALAK ETA HONDAKINAK

Hondakin gutxiago eta gaikako bilketa gehiago, baina EBren %55eko helburutik urrun

Hiri-hondakinen %44,8 biltzen da gaika[34] Hego Euskal Herrian (2023; %32,6 2010ean), baina 2018tik tasa geldirik dago. Ipar Euskal Herria (%62,4, 2025) eta Gipuzkoa (%58,1) daude aurrean; Bizkaia (%37,1), atzean. Errefusa kenduta, birziklatze-tasa erreala 9 puntu inguru txikiagoa da, eta EBk %55eko helburua du 2025erako.


Hondakinen sorkuntza (guztiak) 2,48 tonakoa da biztanleko Hego Euskal Herrian (2024; 3,13 2016an); mineralak kanpo, 1,35. Nafarroa Garaiak (4,45) EAEk (1,88) baino gehiago sortzen du biztanleko. Materialen bertako kontsumoa (DMC[35]) EAEn 10,4 tonakoa da biztanleko (2022), 2006ko gailurraren (20,1) erdia inguru.

Hiri-hondakinen birziklatze-tasa (gaikako bilketa). Euskal Herria, 2010-2023 (%)




Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: Eusko Jaurlaritza (hiri-hondakinen estatistika), Bil Ta Garbi, INE. Lanketa: Gaindegia.

Hiri-hondakinen birziklatze-tasa, lurraldeka. Euskal Herria, azken urtea (%)




Oharra: Azken urtea: EAEko herrialdeak 2024, Nafarroa Garaia 2023, Ipar Euskal Herria 2025 (Bil Ta Garbi).
Iturria: Eusko Jaurlaritza, Bil Ta Garbi, INE. Lanketa: Gaindegia.

Hondakinen sorkuntza (guztiak). Euskal Herria*, 2016-2024 (tona biztanleko)



Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako.
Iturria: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Ingurumen Behatokia. Lanketa: Gaindegia.

Materialen bertako kontsumoa (DMC). Euskal Autonomia Erkidegoa, 2005-2022 (tona biztanleko)



Iturria: Eusko Jaurlaritza (materialen fluxuen estatistika). Lanketa: Gaindegia.

[34] Gaikako bilketa: hiri-hondakinetatik gaika bildutakoa (errefusa barne), hiri-hondakin guztien gainean.

[35] DMC (materialen bertako kontsumoa): barne-erauzketa gehi inportazioak ken esportazioak, biztanleko.

LABURPENA

Energia: eraginkorrago, baina kontsumo handiagoarekin. Hego Euskal Herrian, energia-intentsitatea %20 jaitsi da 2014tik, baina azken energia-kontsumoa %17,9 hazi da; berriztagarriek azken kontsumoaren %22,3 hartzen dute, eta Nafarroa Garaia da ahalmen berriztagarriaren motorra.

Lurraldea eta natura, presiopean. Lurzoru artifiziala %10,5 hazi da 2006-2018an; Natura 2000 sareko kasuen %76,6 dago egoera onean, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako basoetan landaketak nagusi dira.

Airea, hobetzen. Isurketa antropogenikoen ingurumen-inpaktua %35,9 jaitsi da 2005etik; PM2.5ak OMEren gomendioa 1,7 aldiz gainditzen du oraindik.

Hondakinak. Hego Euskal Herrian, biztanleko 2,48 tona hondakin sortzen dira, eta hiri-hondakinen %44,8 biltzen da gaika, EBren helburutik urrun.

Ingurumeneko adierazle nagusiak

Adierazlea	Balioa	Lurralde eremua (urtea)	Joera
Energia-intentsitatea (teP / milioi €)	77,7	Euskal Herria* (2024)	▼ Jaisten
Energia berriztagarrien kuota (%)	%22,3	Euskal Herria* (2023)	▲ Hazten
Elektrizitate berriztagarria sortzeko ahalmen instalatua (W/biztanleko)	1.128	Euskal Herria* (2025)	▲ Hazten
Baso naturalak (basoaren %)	%69,2	Euskal Herria (2018-2024)	● Egonkor
Lurzoru artifizialaren hazkundea (%)	%10,5	Euskal Herria (2006-2018)	▲ Hazten (moteltzen)
PM2.5 kontzentrazioa (µg/m³)	8,3	Euskal Herria (2025)	▼ Jaisten
Hiri-hondakinen birziklatze-tasa (%)	%45,0	Euskal Herria (2020)	● Geldirik
Materialen bertako kontsumoa (t/biztanleko)	10,4	Euskal Autonomia Erkidegoa (2022)	▼ Jaisten
Natura 2000, egoera onean (%)	%76,6	Euskal Herria (2024)	▼ Jaisten
Egoera ekologiko onean dauden ur-masak (%)	%54,5	Euskal Autonomia Erkidegoa (2024)	▲ Hobetzen
Isurketa antropogenikoen ingurumen-inpaktua, IAI (mila p.-bal.)	1.190	Euskal Herria (2022)	▼ Jaisten
Hondakinen sorkuntza (guztiak) (t/biztanleko)	2,48	Euskal Herria* (2024)	▼ Jaisten

Oharra: * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), urte horietan Iparraldeko daturik ez dagoelako. Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berrienak: Hiri-hondakinen birziklatze-tasa: %44,8 (2023).
Iturria: EUSTAT, Nafarroako Gobernua, URA, Amalur EIS, Eusko Jaurlaritza, Bil Ta Garbi, REE, MITECO, INE, Copernicus, EEA. Lanketa: Gaindegia.



AGINTE-TAULA: EUSKAL HERRIKO PANORAMIKA

Demografia

Adierazlea	Azken datua	Aurreko datua	Aldaketa
Biztanleria	**3.200.870** 2023	**3.130.249** 2017	▲ +%2,3
Jaiotza-tasa (‰)	**6,4** 2023	**6,6** 2022	▼ -0,2
Heriotza-tasa (‰)	**9,9** 2023	**10,9** 2022	▼ -0,9
Berezko hazkundea (‰)	**-3,5** 2023	**-4,2** 2022	▲ +0,7
Migrazio-saldoa (‰)	**10,7*** 2024	**9,7*** 2023	▲ +1,0
Kanpoan jaiotako biztanleria (%)	**%32,3** 2022	**%32,2** 2021	▲ +0,1 p.
Zahartze-tasa (%)	**%24,2** 2023	**%22,3** 2017	▲ +1,9 p.

Ekonomia

Adierazlea	Azken datua	Aurreko datua	Aldaketa
BPGa biztanleko (€, EAP)	**42.332** 2023	**38.780** 2022	▲ +%9,2
Industriaren pisua (balio erantsiaren %)	**%24,1** 2023	**%24,7** 2022	▼ -0,6 p.
Industria-establezimenduen batez besteko tamaina (langileak)	**18,2** 2024	**17,6** 2023	▲ +0,6
Kooperatibetako enplegua (landunen %)	**%4,7** 2023	**%4,8** 2022	● 0,0 p.
Enpresen saldo garbia (enpresa aktiboen %)	**%0,4** 2023	**%0,6** 2022	▼ -0,2 p.
I+Gko gastua (BPGaren %)	**%1,9** 2023	**%1,9** 2022	▲ +0,1 p.
I+Gko langileak (enplegu osoaren %)	**%2,1** 2023	**%2,0** 2022	▲ +0,1 p.
Ondasun-esportazioak (BPGaren %)	**%36,0** 2023	**%39,4** 2022	▼ -3,4 p.
Lanaren produktibitatea (indizea, 2015 = 100)	**103,7*** 2024	**103,7*** 2023	● 0,0
Lan-kostua orduko manufakturan (euro)	**30,0*** 2024	**29,0*** 2023	▲ +%3,3
Lan-kostuaren pisua balio erantsian (%)	**%61,0*** 2024	**%60,7*** 2023	▲ +0,3 p.
Soldata-ordainsaria soldatapeko bakoitzeko (euro)	**46.813** 2024	**45.171** 2023	▲ +%3,6
Zor publikoa (BPGaren %)	**%14,1** 2023	**%15,7** 2022	▼ -1,6 p.

Gizartea

Adierazlea	Azken datua	Aurreko datua	Aldaketa
Okupazio-tasa, 15-64 (%)	**%70,6** 2023	**%66,6** 2017	▲ +4,0 p.
Goi-mailako ikasketak, 25-64 (%)	**%53,4** 2023	–	–
Etxeen errenta erabilgarria biztanleko (€, EAP)	**20.880** 2021	**19.388** 2020	▲ +%7,7
Kontsumo-prezioen urteko aldakuntza (%)	**%2,9*** 2025	**%3,0*** 2024	▼ -0,1 p.
Pobrezia edo bazterkeria arriskua, AROPE (%)	**%15,1*** 2025	**%15,6*** 2024	▼ -0,5 p.
Gini indizea (0-100)	**32,2** 2021	**32,3** 2020	▼ -0,1
Gizarte-babeseko gastua (BPGaren %)	**%23,5*** 2019	**%23,0*** 2018	▲ +0,5 p.
Genero-berdintasunaren indizea (0-100)	**66,4*** 2020	**73,2*** 2019	▼ -6,8

Gizartea (jarraipena)

Adierazlea	Azken datua	Aurreko datua	Aldaketa
Bizitzarekiko gogobetetasuna (0-10)	**7,42*** 2024	**7,38*** 2022	▲ +0,04

Kultura eta hizkuntzak

Adierazlea	Azken datua	Aurreko datua	Aldaketa
Euskararen ezagutza: euskaldunak, 5 urtetik gorakoak (%)	**%36,1*** 2021	–	–
Euskararen erabilera lankideekin (%)	**%30,9** 2021	**%17,5** 1991	▲ +13,4 p.
Euskararen kale-erabilera (elkarrizketen %)	**%12,6** 2021	**%12,6** 2016	● 0,0 p.
Kultur enplegua (milaka pertsona)	**45*** 2025	**48*** 2024	▼ -%6,3

Ingurumena

Adierazlea	Azken datua	Aurreko datua	Aldaketa
Energia-intentsitatea (teP BPGaren milioi euroko)	**77,7*** 2024	**77,9*** 2023	▼ -0,2
Energia berriztagarrien kuota (%)	**%22,3*** 2023	**%20,3*** 2022	▲ +2,0 p.
Elektrizitate berriztagarria sortzeko ahalmen instalatua (watt biztanleko)	**1.128*** 2025	**1.000*** 2024	▲ +%12,8
Lurzoru artifiziala (azaleraren %)	**%4,0** 2018	**%3,9** 2012	● 0,0 p.
Natura 2000: kontserbazio-egoera ona (%)	**%76,6** 2024	**%76,5** 2023	▲ +0,1 p.
Egoera ekologiko onean dauden ur-masak (%)	**%54,5** (EAE) 2024	**%48,5** (EAE) 2023	▲ +6,0 p.
PM2.5 kontzentrazioa (µg/m^3)	**8,3** 2025	**8,1** 2024	▲ +0,2
Isurketa antropogenikoen ingurumen-inpaktua (pertsona-baliokide biztanleko)	**0,38*** 2022	**0,38*** 2021	● 0,00
Hondakinen sorkuntza (tona biztanleko)	**2,48*** 2024	**2,24*** 2023	▲ +0,24
Hiri-hondakinen birziklatze-tasa, gaikako bilketa (%)	**%45,0** 2020	–	–
Materialen bertako kontsumoa (tona biztanleko)	**10,4** (EAE) 2022	**12,1** (EAE) 2021	▼ -1,7

Oharra: Azken datua eta serieko aurreko datu eskuragarria (urtea grisez). Aldaketa: ehunekoetan, puntu-aldea (p.); tasetan eta indizeetan, aldea; kopuru eta balio monetarioetan, aldaketa erlatiboa (%). Geziak norabidea adierazten du, ez balorazioa. * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe. EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa. Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berrienak: Biztanleria: 2.904.223 (2025); Jaiotza-tasa: 6,1 (2024); Heriotza-tasa: 9,8 (2024); Berezko hazkundea: -3,8 (2024); Kanpoan jaiotako biztanleria: %31,3 (2025); Zahartze-tasa: %24,6 (2025); Industria-establezimenduen batez besteko tamaina: 19,1 (2025); Zor publikoa: %13,7 (2025); Okupazio-tasa, 15-64: %71,9 (2025); Goi-mailako ikasketak, 25-64: %56,4 (2025); Etxeen errenta erabilgarria biztanleko: 26.078 (2023); Gini indizea: 29,6 (2023); Hiri-hondakinen birziklatze-tasa, gaikako bilketa: %44,8 (2023).

II

EUSKAL HERRIA EUROPAN





1 DEMOGRAFIA

Europako biztanleria zaharrenetakoa: 65 urtetik gorakoen proportzioan, Euskal Herria bigarrena da estatuen artean, bai emakumeetan bai gizonetan

Jaiotza-tasa Europako apalenetakoa da, eta migrazioak eusten dio biztanleriari. Euskal Herria Europako estatu eta erregioekin alderatuta.

%27,1

65 urtetik gorako emakumeak, Euskal Herria* (2025): 38 estatuen artean 3. ehunekorik handiena

%22

65 urtetik gorako gizonak, Euskal Herria* (2025): 38 estatuen artean 3. ehunekorik handiena

‰6,1

jaiotza-tasa, Euskal Herria* (2024): 40 estatuen artean, Monakokoa bakarrik da apalagoa

‰10,7

migrazio-saldoa, Euskal Herria* (2024): 40 estatuen artean 9. handiena


1.1
BIZTANLERIA

Tamainaz, Euskal Herria Europako estatu ertain-txikien mailan dago, Kroaziaren eta Lituaniaren artean, eta Europako erregioen zerrendaren erdialdean.

2025ean, Hego Euskal Herriak 2.904.223 biztanle zituen; Euskal Herri osoak, 3.200.870 2023an, azken datu eskuragarrian. Estatu gisa sailkatuta, 38 estatuen artean 25. postuan legoke, Kroaziaren (3,9 milioi) eta Lituaniaren (2,9 milioi) artean, eta Euskal Herri osoa ere postu berean (25.). Eslovenia, Letonia, Estonia, Zipre, Luxenburgo, Malta edo Islandia baino handiagoa da.


Erregioen artean, 110 erregiotatik 61. da Hego Euskal Herria eta 55. Euskal Herri osoa (2023). Tamaina bertsuko erregioak dira, besteak beste, Schleswig-Holstein, Ipar Grezia eta Lituania: Euskal Herriak Europako erregio ertain baten neurria du.

Biztanleria, Europako estatuak eta Euskal Herria (milioi biztanle, 2025)



Oharra: Euskal Herria: 2023. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: 2.904.223 (2025).
Iturria: EUSTAT, INE (Udal Errolda), INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.


Biztanleria, Euskal Herriaren tamaina bertsuko Europako erregioak (milioi biztanle, 2025)



Oharra: Euskal Herria: 2023. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: 2.904.223 (2025).
Iturria: EUSTAT, INE (Udal Errolda), INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.


Dentsitatean, Hego Euskal Herriak 161,8 biztanle zituen km² bakoitzeko 2025ean, eta Euskal Herri osoak 152,9 2023an. 36 estatuen artean 9. dentsitaterik handiena da, Italiaren (195,1) atzetik eta Danimarkaren (139,6) aurretik. Malta (1.817,2), Herbehereak (482,6) eta Belgika (387,5) dira dentsoenak. Erregioen artean, 110 erregiotatik 41. da: inguruko erregio gehienek dentsitate txikiagoa dute, hala nola Kantabriak (111,5), Akitaniak (87), Midi-Pirinioek (70,3), Errioxak (64,8) eta Aragoik (28,6).

Biztanleria-dentsitatea, Europako estatuak eta Euskal Herria (biztanle/km², 2025)



Oharra: Euskal Herria: 2023. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: 161,8 (2025). Maltaren barra ardatzetik kanpo dago (1.817,2).
Iturria: EUSTAT, INE (Udal Errolda), INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.


Biztanleria-dentsitatea, dentsitate antzekoa duten erregioak eta Euskal Herria (biztanle/km², 2025)



Oharra: Euskal Herria: 2023. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: 161,8 (2025).
Iturria: EUSTAT, INE (Udal Errolda), INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Adin-piramideak biztanleria zahartu baten irudia ematen du: oinarria estua da, eta 45-64 urteko taldeak dira zabalenak. Europar Batasuneko estatu gazteenetakoarekin (Irlanda) alderatuta, Euskal Herriak haur eta gazte gutxiago ditu, eta adineko gehiago. Euskal Herri osoaren piramidea (2023) Hego Euskal Herriarenaren ia berdina da.

Adin-piramidea: Euskal Herria eta Irlanda (biztanleriaren %, sexuaren eta adinaren arabera, 2025)



Oharra: Euskal Herria: 2023. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: 2.904.223 (2025). Irlanda erreferentzia gisa hautatu da, Europar Batasunean biztanleria gazteenetakoa duen estatua delako (65 urtetik gorako emakumeen proportziorik txikiena): Euskal Herriaren piramidearekiko kontrastea erakusten du. Ehunekoak lurralde bakoitzeko biztanleria osoaren gainean.
Iturria: EUSTAT, INE (Udal Errolda), INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.




1.2
JAIOTZAK ETA HERIOTZAK

Euskal Herriko jaiotza-tasa Europako apalenetakoa da, bai estatuen artean bai erregioen artean.

2024an, 6,1 jaiotza izan ziren mila biztanleko Hego Euskal Herrian, eta ‰ 6,4 Euskal Herri osoan 2023an. 40 estatuen sailkapenean 39. postuan dago: Italia (‰ 6,3) eta Espainia (‰ 6,5) ditu gertuen, eta Monako bakarrik dago azpitik. Erregioen artean, 110 erregiotatik 101. da.


Heriotza-tasa (‰ 9,8 Hego Euskal Herrian), aldiz, Europako erdibidean dago (40 estatuetatik 21.), biztanleria zaharra izan arren. Biak elkartuta, berezko hazkundea negatiboa da (- ‰ 3,8): 40 estatuen artean 28. postuan dago, Portugalen (- ‰ 3) eta Alemaniaren (- ‰ 4) artean. Letoniak, Bulgariak eta Lituaniak saldo negatiboagoa dute; Turkia, Islandia eta Irlanda dira hazkunde handiena dutenak.

Jaiotza-tasa, Europako estatuak eta Euskal Herria (1.000 biztanleko, 2024)



Oharra: Euskal Herria: 2023. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: 6,1 (2024).
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.


Berezko hazkundea, Europako estatuak eta Euskal Herria (1.000 biztanleko, 2024)



Oharra: Euskal Herria: 2023. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: -3,8 (2024).
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Beherakada azkarra izan da. Hego Euskal Herriko jaiotza-tasa ‰10,2 zen 2008an, eta ‰6,1 2024an; Euskal Herri osoan, ‰9,1 zen 2014an eta ‰6,4 2023an. Grafikoko estatu guztiek behera egin dute azken urteetan, gehienek maila altuagotik.

Jaiotza-tasaren bilakaera, Euskal Herria eta zenbait estatu (1.000 biztanleko, 2000-2025)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta.
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Jaiotza-tasarik apalenak dituzten Europako erregioak eta Euskal Herria (1.000 biztanleko, 2024)


Erregioa	Estatua	Jaiotza-tasa (1.000 biztanleko)
Asturiasko Printzerreria	Espainia	4,5
Galizia	Espainia	4,9
Kantabria	Espainia	5,1
Gaztela eta León	Espainia	5,2
Turingia	Alemania	5,6
Mecklenburg-Vorpommern	Alemania	5,8
Erdialdea	Italia	5,8
Brandenburg	Alemania	5,9
Saxonia-Anhalt	Alemania	5,9
Saxonia	Alemania	6,1
Extremadura	Espainia	6,2
Ipar Grezia	Grezia	6,2
Ipar-Mendebaldea	Italia	6,2
Erdialdeko Makroeskualdea	Polonia	6,2
Euskal Herria	–	**6,4**

Oharra: Euskal Herria: 2023. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: 6,1 (2024).
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Europako 40 estatuetatik, batek bakarrik du Euskal Herriak baino jaiotza-tasa apalagoa (2023)

Erregioen mapak jaiotza-tasa apalen eremua erakusten du: Espainiako iparraldea eta mendebaldea, Italia, Alemaniako ekialdea eta Greziako iparraldea. Euskal Herria eremu horren ertzean dago. Iparraldeko mugakide dituen Akitaniak (‰ 8) eta Midi-Pirinioek (‰8,2) tasa nabarmen altuagoak dituzte; hegoaldean, Errioxa (‰6,3) eta Aragoi (‰6,3) Hego Euskal Herriaren parean daude, eta Kantabria (‰5,1) eta Asturias (‰4,5) azpitik.

Jaiotza-tasa, Europako erregioak (1.000 biztanleko, 2024)



Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Euskal Herria eta inguruko erregioak: adierazle demografiko nagusiak (tasak 1.000 biztanleko; 65+, %; azken datuak)

Erregioa	Jaiotza-tasa	Heriotza-tasa	Berezko hazkundea	Migrazio-saldoa	65+ emakumeak	65+ gizonak
Midi-Pirinioak	8,2	9,9	-1,7	7,5	%25,3	%21,1
Akitania	8,0	10,4	-2,4	9,5	%26,7	%22,2
Euskal Herria	**6,4**	**9,9**	**-3,5**	**–**	**%26,7**	**%21,5**
Errioxa	6,3	10,2	-3,9	11,9	%24,5	%20,4
Aragoi	6,3	10,3	-3,9	13,5	%25,1	%20,1
Gaztela eta León	5,2	11,9	-6,7	10,7	%29,5	%24,9
Kantabria	5,1	10,3	-5,2	9,9	%26,9	%22,0
Euskal Herria*	**–**	**–**	**–**	**10,7**	**–**	**–**

Oharra: Jaiotzak, heriotzak, hazkundea eta migrazioa: 2024; 65+: 2025. * Euskal Herria*: adierazle hauetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta. Euskal Herria: 2023. urteko datuak (migraziorik ez).
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.


1.3
MIGRAZIOA ETA JAIOLEKUA

Migrazio-saldoak eusten dio Euskal Herriko biztanleriari, eta saldo-tasa Europako altuenen artean dago.

2024an, Hego Euskal Herriko migrazio-saldoa ‰ 10,7 izan zen. 40 estatuen artean 9. postuan legoke; Liechtensteinek, Portugalek (‰ 19,2) eta Maltak (‰ 18,7) dute saldorik handiena, eta Italia (‰4,3) eta Alemania (‰5,4) Hego Euskal Herriaren azpitik daude. Erregioen artean, 110 erregiotatik 17. da; inguruko erregioetan, Akitaniak ‰ 9,5, Errioxak ‰ 11,9 eta Kantabriak ‰9,9 izan zuten.


Lurralde eremutik kanpo jaiotakoak biztanleen %32,3 dira Euskal Herrian (2022), Euskal Herritik kanpo jaiotako guztiak kontuan hartuta: 32 lurraldeen artean 3. ehunekorik handiena, Liechtensteinen (%68,6) eta Luxenburgoren (%49,4) atzetik eta Suitzaren (%29,7) eta Zipreren (%25,1) aurretik. Europako ekialdeko estatuek askoz ehuneko txikiagoak dituzte. Hego Euskal Herrian, proportzio hori %29,2 zen 2012an eta %31,3 2025ean.

Migrazio-saldoa, Europako estatuak eta Euskal Herria* (1.000 biztanleko, 2024)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta (2024). Euskal Herri osoaren urteko daturik ez dago.
Iturria: INE (Migrazioen Estatistika), Eurostat. Lanketa: Gaindegia.


Lurralde eremutik kanpo jaiotako biztanleria, Europako estatuak eta Euskal Herria (%, 2022)



Oharra: Estatuak: bizi diren estatutik kanpo jaiotakoak. Euskal Herria: Euskal Herritik kanpo jaiotakoak (Espainiako eta Frantziako beste lurraldeetan jaioak barne), I. zatiko datu bera.
Iturria: INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Erregioen mapan, migrazio-saldo handienak Europako hegoaldean eta mendebaldean daude: Valentziako Erkidegoan, Portugalen, Maltan eta Katalunian, besteak beste. Saldo negatiboenak Ile-de-Francen, Frantziako ipar-ekialdean (Pikardia, Champagne-Ardenne) eta Letonian daude. Hego Euskal Herria (‰ 10,7) 110 erregioen artean 17. da, Gaztela eta Leonen eta Galiziaren parean, eta Akitania (‰9,5) eta Kantabria (‰9,9) baino gorago.

Migrazio-saldoa, Europako erregioak (1.000 biztanleko, 2024)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta. Europar Batasuneko erregioak: 2024ko datuak. Grisez: daturik ez; gris argiz: EBtik kanpo. Ertz beltzez: Euskal Herria.
Iturria: INE (Migrazioen Estatistika), Eurostat. Lanketa: Gaindegia.


1.4
ZAHARTZEA

Euskal Herriko biztanleria Europako zaharrenetakoa da: 65 urtetik gorakoen proportzioan, bigarrena litzateke estatuen artean 2023an, bai emakumeetan bai gizonetan.

2025ean, Hego Euskal Herriko emakumeen %27,1 eta gizonen %22 ziren 65 urtetik gorakoak; Euskal Herri osoan, %26,7 eta %21,5 2023an, urte horretako estatuen artean 2. ehunekorik handiena bi sexuetan. Emakumeetan, Monakok (%28,5) eta Bulgariak (%28) bakarrik dute ehuneko handiagoa; Italia (%27) eta Letonia (%26,8) atzetik daude. Gizonetan, Monakok (%26,1) eta Italiak (%22,3) gainditzen dute, eta Portugal (%22) ia berdin dago.


Erregioen artean, Hego Euskal Herria 23. da emakumeetan eta 28. gizonetan (110 erregio). Biztanleria zaharrenak dituzten erregioak Alemaniako ekialdean (Saxonia-Anhalt, Turingia, Mecklenburg-Vorpommern), Frantziako erdialdean (Limousin) eta Espainiako ipar-mendebaldean (Asturias) daude.

65 urtetik gorako emakumeak, Europako estatuak eta Euskal Herria (emakumeen %, 2025)



Oharra: Euskal Herria: 2023. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: %27,1 (2025).
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.


65 urtetik gorako gizonak, Europako estatuak eta Euskal Herria (gizonen %, 2025)



Oharra: Euskal Herria: 2023. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: %22,0 (2025).
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Mapak zahartzearen geografia erakusten du: Alemaniako ekialdea, Espainiako ipar-mendebaldea, Italiako iparraldea eta Frantziako erdialdea dira eremu zaharrenak, eta Melilla, Ceuta, Brusela, Irlanda eta Luxenburgo gazteenak. Hego Euskal Herriko emakumeen %27,1 dira 65 urtetik gorakoak: 110 erregioen artean 23. ehunekorik handiena, Bretainiaren eta Provence-Alpes-Côte d'Azurren parean.


Zahartze-tasa: emakumeak, Europako erregioak (65 urtetik gorako emakumeen %, 2025)



Oharra: Euskal Herria: 2023. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: %27,1 (2025). Europar Batasuneko erregioak: 2025eko datuak. Grisez: daturik ez; gris argiz: EBtik kanpo. Ertz beltzez: Euskal Herria.
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.


Zahartzeak gora egiten jarraitzen du. Euskal Herri osoan, 2012an emakumeen %23,1 eta gizonen %17,7 ziren 65 urtetik gorakoak, eta %26,7 eta %21,5 2023an. Hego Euskal Herrian, %27,1 eta %22 ziren 2025ean.

Zahartze-tasaren bilakaera: emakumeak, Euskal Herria eta zenbait estatu (%, 2003-2025)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta.
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Zahartze-tasaren bilakaera: gizonak, Euskal Herria eta zenbait estatu (%, 2003-2025)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta.
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Biztanleria zaharrena duten Europako erregioak: emakumeak (65 urtetik gorakoen %, 2025)

Erregioa	Estatua	65+ (%)
1. Saxonia-Anhalt	Alemania	%32,0
2. Turingia	Alemania	%31,3
3. Asturiasko Printzerreria	Espainia	%31,2
4. Limousin	Frantzia	%31,0
5. Mecklenburg-Vorpommern	Alemania	%30,9
6. Saxonia	Alemania	%30,6
7. Ipar eta Hego-Ekialdeko Bulgaria	Bulgaria	%29,7
8. Poitou-Charentes	Frantzia	%29,6
9. Gaztela eta León	Espainia	%29,5
10. Galizia	Espainia	%29,5
19. Euskal Herria (2023)	–	**%26,7**

Oharra: Euskal Herria: 2023. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: %27,1 (2025).
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Biztanleria zaharrena duten Europako erregioak: gizonak (65 urtetik gorakoen %, 2025)

Erregioa	Estatua	65+ (%)
1. Limousin	Frantzia	%25,9
2. Asturiasko Printzerreria	Espainia	%25,2
3. Mecklenburg-Vorpommern	Alemania	%25,1
4. Poitou-Charentes	Frantzia	%25,1
5. Gaztela eta León	Espainia	%24,9
6. Saxonia-Anhalt	Alemania	%24,7
7. Turingia	Alemania	%24,7
8. Korsika	Frantzia	%24,3
9. Galizia	Espainia	%24,1
10. Erdialdeko Grezia	Grezia	%23,9
26. Euskal Herria (2023)	–	**%21,5**

Oharra: Euskal Herria: 2023. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: %22,0 (2025).
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

LABURPENA: DEMOGRAFIA EUROPAN

Tamaina ertain-txikia. 2,9 milioi biztanlerekin (2025), Hego Euskal Herria 25. litzateke Europako 38 estatuen artean, eta 61. 110 erregioen artean; Euskal Herri osoak 3,2 milioi zituen 2023an. Dentsitatean (161,8 biztanle/km^2), 9. estatuen artean.

Europako biztanleria zaharrenetakoa. Hego Euskal Herrian, 65 urtetik gorakoak emakumeen %27,1 eta gizonen %22 dira: bi kasuetan, estatuen artean 3. ehunekorik handiena.

Jaiotza gutxi. Jaiotza-tasa (‰6,1 Hego Euskal Herrian, 2024) Europako bigarren apalena da estatuen artean.

Migrazioaren ekarpena. Berezko hazkundea negatiboa da (- ‰ 3,8), baina migrazio-saldoa (‰ 10,7 Hego Euskal Herrian, 2024) Europako altuenen artean dago.

Erregioen artean. Euskal Herriak Espainiako iparraldeko, Italiako eta Alemaniako ekialdeko erregioekin partekatzen du profila: jaiotza gutxi eta biztanleria zaharra. Mugakide dituen Frantziako erregioek, aldiz, jaiotza-tasa altuagoak dituzte.

Demografiaren adierazle nagusiak: Euskal Herriaren balioa eta postua Europan

Adierazlea (urtea)	Euskal Herria	Postua estatuen artean	Postua erregioen artean
Biztanleria, milioi (2023)	3,2	25. / 37	**55. / 110**
Biztanleria-dentsitatea, biztanle/km^2 (2023)	152,9	9. / 36	**42. / 110**
Jaiotza-tasa, 1.000 biztanleko (2023)	6,4	39. / 40	**98. / 110**
Heriotza-tasa, 1.000 biztanleko (2023)	9,9	21. / 40	**79. / 110**
Berezko hazkundea, 1.000 biztanleko (2023)	-3,5	28. / 40	**65. / 110**
Migrazio-saldoa, 1.000 biztanleko (2024)*	10,7	9. / 40	**17. / 110**
Zahartze-tasa: emakumeak, % (2023)	%26,7	2. / 37	**19. / 110**
Zahartze-tasa: gizonak, % (2023)	%21,5	2. / 37	**26. / 110**
Lurralde eremutik kanpo jaiotakoak, % (2022)	%32,3	3. / 32	–

Oharra: Postua: 1 = baliorik handiena; zerrendako lurralde kopurua barra ondoren. Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) postua estatuen artean, daturik berrienarekin: Biztanleria, milioi: 25. / 38 (2025); Biztanleria-dentsitatea, biztanle/km^2: 9. / 36 (2025); Jaiotza-tasa, 1.000 biztanleko: 39. / 40 (2024); Heriotza-tasa, 1.000 biztanleko: 21. / 40 (2024); Berezko hazkundea, 1.000 biztanleko: 28. / 40 (2024); Zahartze-tasa: emakumeak, %: 3. / 38 (2025); Zahartze-tasa: gizonak, %: 3. / 38 (2025). * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta.
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.





EKONOMIA

Europako ekonomia industrialenetakoa: manufakturaren pisuan, Euskal Herria bosgarrena da estatuen artean

Aberastasun-maila Europako goiko herenean dago, ikerketan langile asko ditu eta kooperatibetako enpleguan aurrena da, Europako estatu eta erregioekin alderatuta.

%21,1

manufakturaren pisua balio erantsian (2023): 33 estatuen artean 5. handiena

42.332

BPGa biztanleko, € EAP (2023): 32 estatuen artean 9. postuan

%2,1

I+Gko langileak, enplegu osoaren %, Euskal Herria (2023): 34 estatuen artean 6. handiena

%4,9

kooperatibetako enplegua, landunen % (2021): estatuen artean ehunekorik handiena


2.1
ABERASTASUNA ETA EGITURA PRODUKTIBOA

Biztanleko BPGan, Euskal Herria Europako goiko herenean dago, Alemaniaren eta Suediaren ondoan. Industriaren pisuan, berriz, Europako ekonomia industrialenen artean dago.

2023an, Euskal Herriko BPGa biztanleko 42.332 euro (EAP[5]) izan zen. 32 estatuen artean 9. postuan legoke, Alemaniaren eta Suediaren ondoren eta Maltaren eta Finlandiaren aurretik. Luxenburgo eta Irlanda dira nabarmen aberatsenak. Erregioen artean, 110 erregiotatik 27. da, Ipar Rin-Westfaliaren eta Ekialdeko Herbehereen parean.


Industriak balio erantsiaren %24,3 sortzen du Euskal Herrian, eta manufakturak bakarrik %21,1. Estatuen artean, 7. da industriaren pisuan eta 5. manufakturarenean: Irlandak, Txekiak, Esloveniak eta Turkiak bakarrik dute manufaktura-pisu handiagoa, eta Alemania (%20,7) Euskal Herriaren atzetik dago. Erregioen artean, 110 erregiotatik 27. da industriaren pisuan (ikus mapa).

BPGa biztanleko, Europako estatuak eta Euskal Herria (€ EAP, 2023)



Oharra: Euskal Herriko datuak Ipar Euskal Herriko estimazio bat barne hartzen du, Pirinio Atlantikoetako departamenduaren datutik eskalatua.
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Manufakturaren pisua balio erantsi gordinean, Europako estatuak eta Euskal Herria (%, 2023)




Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

[5] EAP (erosteko ahalmenaren parekotasuna; ingelesez, PPS): estatuen arteko prezio-mailen aldeak zuzentzen dituen unitatea, euroetan adierazia.

Biztanleko BPGaren mapak Europako ardatz aberatsa erakusten du, Irlandatik eta Herbehereetatik Alemaniako hegoaldera eta Austriara, eta hiriburu-erregioak nabarmentzen dira (Luxenburgo, Hamburgo, Brusela, Ile-de-France). Grezia, Bulgaria, Errumaniako hegoaldea, Hungariako eta Poloniako ekialdea eta Italiako hegoaldea eta uharteak daude beheko mailetan. Euskal Herria (42.332 €, EAP) 110 erregioen artean 27. da, Ipar Rin-Westfaliaren eta Ekialdeko Herbehereen parean, eta inguruko erregio guztien gainetik: Aragoi (38.996 €), Errioxa (36.382 €), Midi-Pirinioak (34.646 €) eta Akitania (33.908 €).


BPGa biztanleko, Europako erregioak (€ EAP, 2023)



Oharra: Europar Batasuneko erregioak: 2023ko datuak. Grisez: daturik ez; gris argiz: EBtik kanpo. Ertz beltzez: Euskal Herria.
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Erregio-mailan ere, Euskal Herria Europako gune industrialen artean dago: 110 erregiotatik 27. da industriaren pisuan eta 20. manufakturarenean. Pisu handienak Alemaniako hegoaldean (Baden-Württemberg), Poloniako hego-mendebaldean, Hungariako Danubio eskualdean, Irlandan eta Bulgariako ipar eta hego-ekialdean daude. Inguruan, Aragoi (%23,9) eta Errioxa (%26,4) Euskal Herriaren mailan daude; Akitaniak (%13,5) eta Midi-Pirinioek (%17,4) pisu txikiagoa dute.

Industriaren pisua balio erantsi gordinean, Europako erregioak (%, 2023)



Oharra: Ipar Euskal Herriko datua estimazioa da: departamenduko balio erantsia sektoreka, Ipar Euskal Herriko enpleguaren arabera eskalatuta (INSEE FLORES) eta produktibitatez haztatuta.
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.


Euskal Herria eta inguruko erregioak: aberastasuna eta industria (2023)

Erregioa	BPGa biztanleko (€, EAP)	Industria (BEGaren %)	Manufaktura (BEGaren %)	Soldata (euro urtean)
Euskal Herria	**42.332**	**%24,3**	**%21,1**	**45.171**
Aragoi	38.996	%23,9	%18,0	37.980
Errioxa	36.382	%26,4	%21,5	36.347
Midi-Pirinioak	34.646	%17,4	%13,7	50.530
Akitania	33.908	%13,5	%10,0	48.570
Gaztela eta León	32.855	%21,7	%16,2	35.714
Kantabria	31.869	%21,7	%17,8	37.118

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.


Industria-establezimenduen tamainan ere Euskal Herria Europako goiko aldean dago. 2024an, establezimendu bakoitzak 18,2 langile zituen batez beste: 31 estatuen artean 4. tamainarik handiena, Luxenburgoren (33), Alemaniaren (32,2) eta Danimarkaren (18,9) atzetik. Eslovakia (5), Txekia (6) eta Grezia (6,2) dira tamainarik txikienekoak. Erregioen artean, 107 erregiotatik 20. da: Alemaniako erregio gehienek tamaina handiagoa dute, eta inguruko erregioek txikiagoa, hala nola Kantabriak (16), Aragoik (15), Akitaniak (7) eta Midi-Pirinioek (9).

Industria-establezimenduen batez besteko tamaina, Europako estatuak eta Euskal Herria (langileak establezimenduko, 2024)



Iturria: EUSTAT, NASTAT, INSEE, Eurostat (enpresa-egituren estatistika). Lanketa: Gaindegia.

Industria-establezimenduen batez besteko tamaina, tamaina antzekoa duten erregioak eta Euskal Herria (langileak establezimenduko, 2024)



Iturria: EUSTAT, NASTAT, INSEE, Eurostat (enpresa-egituren estatistika). Lanketa: Gaindegia.


2.2
ENPRESAK ETA EKONOMIA SOZIALA

Euskal Herrian enpresa gutxiago sortzen dira Europako estatu gehienetan baino, baina kooperatiben pisua Europako handiena da.

2023an, Euskal Herriko enpresen sorrera-tasa %8,2 izan zen eta itxiera-tasa %7,8; saldo garbia, beraz, positiboa baina txikia (enpresa aktiboen %0,4). 27 estatuen artean 23. da sorrera-tasan, eta 19. saldoan: Lituaniak, Maltak eta Portugalek dute sorrera-tasarik handiena. Erregioen artean, 107 erregiotatik 78. da.


Kooperatibek landunen %%4,9 enplegatzen dute Euskal Herrian (2021): datuak dituzten Europako estatu guztien gainetik, Italiaren (%4,5) eta Finlandiaren (%3,5) aurretik.

Enpresen sorrera-tasa, Europako estatuak eta Euskal Herria (%, 2023)



Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat (enpresa-demografia). Lanketa: Gaindegia.

Kooperatibetako enplegua, Europako estatuak eta Euskal Herria (landunen %, 2021)



Oharra: Estatuen erreferentzia-urtea aldatu egiten da. Euskal Herriko datuak Ipar Euskal Herriko estimazio partziala darama: departamenduko kooperatiba-enplegua, Ipar Euskal Herriaren enplegu-zatiaz eskalatua, eta Urssafek neurtzen duen zatia bakarrik (MSA gabe). Kabiaren arabera (CRESS Nouvelle-Aquitaine, INSEE Flores), Ipar Euskal Herriko kooperatibek 1.621 soldatapeko zituzten 2020an, nekazaritza barne.

Iturria: CIRIEC, Urssaf, Eurostat, Benchmarking the Socio-Economic Performance of the EU Social Economy (2024). Lanketa: Gaindegia.




2.3
BERRIKUNTZA: IKERKETA ETA GARAPENA

I+Gko gastuan Europako erdi-goiko mailan dago Euskal Herria, eta ikerketan diharduten langileen proportzioan, goiko mailan.

2024an, Hego Euskal Herriko I+Gko gastua BPGaren %2,2 izan zen. 33 estatuen artean 9. postuan legoke, Herbehereen eta Frantziaren parean, eta Suediaren, Austriaren, Belgikaren, Finlandiaren, Danimarkaren eta Alemaniaren (%3 inguru edo gehiago) azpitik. Erregioen artean, 2023an 109 erregiotatik 31. zen.


I+Gko langileak, berriz, enplegu osoaren %2,1 ziren Euskal Herrian 2023an: 34 estatuen artean 6. postua, Austriaren atzetik eta Suitzaren aurretik; Danimarka, Suedia eta Belgika dira buruan. Erregioen artean, 109 erregiotatik 19. da Euskal Herria (2023). Datu hori kontuz irakurri behar da, iturrien arteko neurketa-aldeengatik (ikus oharra).

I+Gko gastua, Europako estatuak eta Euskal Herria* (BPGaren %, 2024)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta (2024).
Iturria: EUSTAT, INE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.


I+Gko langileak, Europako estatuak eta Euskal Herria (enplegu osoaren %, 2023)



Oharra: I+Gko langileak lanaldi osoko baliokidetan (LOB), enplegu osoaren gainean. Euskal Herriaren datuak EUSTATen eta INEren I+G estatistiketatik datoz, eta estatuenak Eurostatetik; inkesten estaldura eta neurketa ez dira guztiz berdinak, eta postua kontuz irakurri behar da. Euskal Herriko datuak Ipar Euskal Herriko estimazio bat barne hartzen du: Frantziako eskualdeetan doitutako erregresio-eredua, Ipar Euskal Herriko ikerketa-jardueretako (NACE 72) enpleguari aplikatuta.
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

I+Gko gastua erregio gutxi batzuetan pilatzen da: Baden-Württemberg, Austriako hegoaldea, Suediako hegoaldea eta Midi-Pirinioak daude buruan. Hego Euskal Herria (2,1) 109 erregioen artean 31. da, Madrilen eta Provence-Alpes-Côte d'Azurren parean, eta Espainiako iparraldeko erregio gehienak baino askoz gorago (Kantabria eta Errioxa %1etik behera).

I+Gko gastua, Europako erregioak (BPGaren %, 2023)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta. Europar Batasuneko erregioak: 2023ko datuak. Grisez: daturik ez; gris argiz: EBtik kanpo. Ertz beltzez: Euskal Herria.
Iturria: EUSTAT, INE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.


2.4
KANPO-MERKATARITZA

Ondasun-esportazioek BPGaren herena gainditzen dute Euskal Herrian, Europako erdibidean, eta merkataritza-balantza Europako positiboenetakoa da.

2023an, Euskal Herriko ondasun-esportazioak BPGaren %36 izan ziren. 38 estatuen artean 19. postuan dago, Serbiaren eta Norvegiaren artean. Esportazio-pisu handienak Europako erdialde-ekialdeko estatu industrialetan (Eslovakia, Eslovenia, Hungaria) eta Herbehereetan eta Belgikan daude, salgaien zirkulazio-gune handietan.


Merkataritza-balantza (ondasunak eta zerbitzuak) positiboa da Hego Euskal Herrian: BPGaren %6,4 2024an. 38 estatuen artean 9. postuan legoke, Esloveniaren eta Txekiaren parean.

Ondasun-esportazioak, Europako estatuak eta Euskal Herria (BPGaren %, 2023)



Oharra: Euskal Herria: aduana-datuak (ondasunak); estatuak: kontu ekonomikoak (ondasunak).
Iturria: EUSTAT, NASTAT, Douanes, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Merkataritza-balantza (ondasunak eta zerbitzuak), Europako estatuak eta Euskal Herria* (BPGaren %, 2024)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta (2024). Euskal Herria*: atzerriarekiko merkataritza bakarrik (ez Espainiako eta Frantziako estatuetako beste lurraldeekikoa).
Iturria: EUSTAT, NASTAT (kontu ekonomikoak), Eurostat. Lanketa: Gaindegia.


2.5
LANA: PRODUKTIBITATEA, LAN-KOSTUA, SOLDATAK ETA ZAINTZA

Produktibitatean, lan-kostuan eta soldatetan, Euskal Herria Europako erdi-goiko mailan dago: Europako iparraldeko eta erdialdeko estatuen azpitik eta hegoaldekoen gainetik.

Lan egindako ordu bakoitzeko, Hego Euskal Herriko ekonomiak 50 euro sortu zituen 2023an. 29 estatuen artean 11. postuan legoke, Suediaren eta Italiaren artean; Irlanda eta Luxenburgo dira produktiboenak. Termino errealetan (prezioen eragina kenduta), Hego Euskal Herriko produktibitate errealaren indizea 79,4 zen 2000n eta 103,7 2024an (2015 = 100).


Manufakturako lan-kostua orduko 29 euro izan zen Hego Euskal Herrian (2023): 29 estatuen artean 11. postua, Suediaren eta Italiaren artean. Lan-kostuak balio erantsian duen pisua, autonomoen lana ere egotzita, %60,7 da Hego Euskal Herrian, estatuen erdibidean (16. postua).

Lanaren produktibitatea, Europako estatuak eta Euskal Herria* (euro lan egindako orduko, 2023)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta (2023). Produktibitatea orduko: BPGa prezio korronteetan / lan egindako orduak (termino nominalak). Produktibitate erreala: BPGa prezio konstanteetan / orduak (indizea, 2015 = 100).
Iturria: Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Lan-kostua orduko manufakturan, Europako estatuak eta Euskal Herria* (euro orduko, 2023)




Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta (2023). Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe; Ipar Euskal Herrirako ez dago bertako datuetan oinarritutako daturik.
Iturria: Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Soldatapeko bakoitzaren soldata-ordainsaria 45.171 euro izan zen Euskal Herrian 2023an (46.813 euro 2024an). 30 estatuen artean 11. postuan dago, Alemaniaren eta Suediaren ondoren eta Italiaren aurretik; erregioen artean, 110 erregiotatik 56. postuan.

Ordaindu gabeko lanean, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeek 158 minutu eskaintzen dizkiote egunean etxeko lanari eta gizonek 110 (2023). Datuak dituzten Europako estatuetan (2020), emakumeen denbora handiagoa da, baina gizonena ere bai, eta aldea, oro har, handiagoa. Zaintzan, aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoko gizonen denbora Europako altuenen artean dago.

Soldata-ordainsaria soldatapeko bakoitzeko, Europako estatuak eta Euskal Herria (euro urtean, 2023)



Oharra: Euro nominalak, prezio-mailaren doikuntzarik gabe.
Iturria: EUSTAT, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.

Etxeko lanei eta zaintzari eskainitako denbora, sexuaren arabera (minutu egunean; Europako estatuak, Euskal Autonomia Erkidegoa 2023)

Estatua	Etxeko lana: emakumeak	Etxeko lana: gizonak	Zaintza: emakumeak	Zaintza: gizonak
Euskal Autonomia Erkidegoa	**158**	**110**	**44**	**31**
Austria	194	119	40	19
Bulgaria	231	124	31	13
Alemania	191	135	37	19
Estonia	183	128	31	15
Finlandia	184	143	28	21
Kroazia	232	149	36	21
Hungaria	234	151	45	22
Herbehereak	175	124	32	19
Norvegia	175	132	37	27
Polonia	224	149	60	31
Serbia	224	117	34	15
Frantzia (2010)	–	–	31	14
Italia (2010)	–	–	29	16
Espainia (2010)	–	–	39	26

Oharra: Estatuak: HETUS 2020 edizioa duten guztiak; Frantzia, Italia eta Espainia, 2010eko edizioa (azken eskuragarria), eta etxekoen zaintzaren datua bakarrik. Euskal Autonomia Erkidegoa: EUSTATen Denbora-aurrekontuen inkesta (HETUS gidalerroak). Etxeko lanak eta etxeko kideen zaintza bereizita neurtzen dira (zaintza ez dago etxeko lanen barruan); biztanleria osoaren batez bestekoa. Ez dago Euskal Herri osoaren datu alderagarririk.
Iturria: EUSTAT (Denbora-aurrekontuen Inkesta), Eurostat (HETUS). Lanketa: Gaindegia.




2.6
ZOR PUBLIKOA

Erkidegoetako gobernuen eta toki-administrazioen zorra BPGaren %14,1 zen Euskal Herrian 2023an: Europako handienetakoa, estatu federalen eta erregio-gobernu sendoak dituztenen mailan.

2025ean, Hego Euskal Herriko erkidegoetako gobernuen eta toki-administrazioen zorra BPGaren %13,7 zen. 28 estatuen artean 6. postuan legoke, Belgikaren (%23,2), Espainiaren (%21,3), Alemaniaren (%18,9), Suediaren (%14,2) eta Finlandiaren (%13,7) atzetik. Gobernu-maila horiek eskumen gutxi dituzten estatuetan (Malta, Grezia, Hungaria) zorra %1etik behera dago.

Euskal Herri osoan, zorra BPGaren %14,1 zen 2023an: urte horretan, estatuen artean 4. postua.

Zor publikoa: erkidegoetako gobernuak eta toki-administrazioak, Europako estatuak eta Euskal Herria (BPGaren %, 2025)



Oharra: Euskal Herria: 2023. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: 13,7 (2025). Estatuko administrazio zentralaren zorra kanpo: erkidegoen (estatu federaletan, estatu federatuen) eta toki-erakundeen zorra bakarrik. Euskal Herria: Ipar Euskal Herriko perimetro murriztua (toki-administrazioak).
Iturria: Espainiako Bankua, Ogasun Ministerioa, DGFiP, Eurostat (gobernu-finantzak). Lanketa: Gaindegia.

LABURPENA: EKONOMIA EUROPAN

Aberastasun-maila altua. Biztanleko BPGan (42.332 €, EAP), Euskal Herria 9. litzateke 32 estatuen artean eta 27. 110 erregioen artean.

Industria-ekonomia. Manufakturak balio erantsiaren %21,1 sortzen du: estatuen artean 5. pisurik handiena. Industria-establezimenduen batez besteko tamaina (18,2 langile) estatuen artean 4. handiena da.

Ikerketa. I+Gko gastuan Hego Euskal Herria erdi-goiko mailan dago (9.), eta I+Gko langileen proportzioan Euskal Herria Europako goiko mailan (6. postua, 2023).


Lana. Produktibitatea, lan-kostua eta soldatak Europako erdi-goiko mailan daude (11., 11. eta 11. postuak). Ordaindu gabeko lanean, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen arteko aldea Europako estatu gehienetan baino txikiagoa da.

Enpresak eta ekonomia soziala. Enpresen sorrera apala da (23. 27 estatuetatik), baina kooperatibetako enpleguan Euskal Herria da Europako lehena.

Ekonomiaren adierazle nagusiak: Euskal Herriaren balioa eta postua Europan

Adierazlea (urtea)	Euskal Herria	Postua estatuen artean	Postua erregioen artean
BPGa biztanleko, € EAP (2023)	42.332	9. / 32	**27. / 110**
Industriaren pisua, BEGaren % (2023)	%24,3	7. / 33	**27. / 110**
Manufakturaren pisua, BEGaren % (2023)	%21,1	5. / 33	**20. / 110**
Ondasun-esportazioak, BPGaren % (2023)	%36,0	19. / 38	–
Merkataritza-balantza, BPGaren % (2024)*	%6,4	9. / 38	–
I+Gko gastua, BPGaren % (2024)*	%2,2	9. / 33	**31. / 109**
I+Gko langileak, enplegu osoaren % (2023)	%2,1	6. / 34	**19. / 109**
Lanaren produktibitatea, euro orduko (2023)*	50,0	11. / 29	–
Lan-kostua orduko manufakturan, euro orduko (2023)*	29,0	11. / 29	–
Soldata-ordainsaria soldatapeko bakoitzeko, euro urtean (2023)	45.171	11. / 30	**56. / 110**
Enpresen sorrera-tasa, % (2023)	%8,2	23. / 27	**78. / 107**
Kooperatibetako enplegua, landunen % (2021)	%4,9	1. / 26	–
Industria-establezimenduen batez besteko tamaina, langileak (2024)	18,2	4. / 31	**20. / 107**
Zor publikoa (erkidegoak eta toki-administrazioak), BPGaren % (2023)	%14,1	4. / 28	–

Oharra: Postua: 1 = baliorik handiena; zerrendako lurralde kopurua barra ondoren. Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) postua estatuen artean, daturik berrienarekin: Zor publikoa (erkidegoak eta toki-administrazioak), BPGaren %: 6. / 28 (2025). * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta.
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.





3

GIZARTEA

Europako biztanleria prestatuenetakoa: goi-mailako ikasketetan, Euskal Herria bigarrena da estatuen artean

Errenta Europako altuenen artean dago eta pobrezia-arriskua txikienen artean; okupazio-tasa, berriz, erdibidean. Euskal Herria Europako estatu eta erregioekin alderatuta.

%56,4

goi-mailako ikasketak dituzten 25-64 urtekoak, Euskal Herria* (2025): 35 estatuen artean 2. ehunekorik handiena

26.078

etxeen errenta erabilgarria biztanleko, € EAP, Euskal Herria* (2023): 28 estatuen artean 2. handiena

%15,1

pobrezia edo bazterkeria arriskuan, Euskal Herria* (2025): 32 estatuen artean 3. txikiena

%71,9

okupazio-tasa, 15-64 urte, Euskal Herria* (2025): 35 estatuen artean 20. postuan


3.1
LANA ETA PRESTAKUNTZA

Euskal Herriko biztanleria Europako prestatuenetakoa da: 25-64 urtekoen erdiak baino gehiagok goi-mailako ikasketak ditu, eta estatuen artean Irlandak bakarrik du proportzio handiagoa. Okupazio-tasa, berriz, Europako erdibidean dago.

2025ean, Hego Euskal Herriko 25-64 urtekoen %56,4k goi-mailako ikasketak zituen: 35 estatuen artean 2. ehunekorik handiena, Irlandaren (%58,7) atzetik eta Luxenburgoren (%55,7) parean. Emakumeetan %61,1 da (2. postua) eta gizonetan %51,8 (3.). Erregioen artean, 110 erregiotatik 4. da. Euskal Herri osoan, %53,4 zen 2023an (2. estatuen artean).


15-64 urtekoen okupazio-tasa %71,9 zen Hego Euskal Herrian 2025ean: 35 estatuen artean 20. postua, Finlandiaren eta Letoniaren parean; Islandia, Herbehereak eta Malta dira buruan, %80 edo gehiagorekin. Erregioen artean, 110 erregiotatik 50. da. Euskal Herri osoan, %70,6 zen 2023an (23. estatuen artean).

Goi-mailako ikasketak dituzten 25-64 urtekoak, Europako estatuak eta Euskal Herria (%, 2025)



Oharra: Euskal Herria: 2023. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: %56,4 (2025). Euskal Herria: Ipar Euskal Herriko datua erroldatik (ez Lan Indarraren Inkestatik).
Iturria: EUSTAT, INE (EPA), INSEE (errolda), Eurostat (EU-LFS). Lanketa: Gaindegia.


Okupazio-tasa (15-64 urte), Europako estatuak eta Euskal Herria (%, 2025)



Oharra: Euskal Herria: 2023. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: %71,9 (2025).
Iturria: EUSTAT, INE (EPA), INSEE, Eurostat (EU-LFS). Lanketa: Gaindegia.

Erregioen mapan, goi-mailako ikasketen proportziorik handienak hiriburu-erregioetan eta Europako iparraldean daude, eta Euskal Herria talde horretan dago. Inguruko erregioak baino nabarmen gorago dago: Akitania %44, Midi-Pirinioak %47,9, Kantabria %47,8 eta Errioxa %41,4.

Goi-mailako ikasketak dituzten 25-64 urtekoak, Europako erregioak (%, 2025)



Oharra: Euskal Herria: Ipar Euskal Herriko datua erroldatik (ez Lan Indarraren Inkestatik).
Iturria: EUSTAT, INE (EPA), INSEE (errolda), Eurostat (EU-LFS). Lanketa: Gaindegia.

Euskal Herria eta inguruko erregioak: okupazio-tasa (15-64) eta goi-mailako ikasketak, sexuaren arabera (%, 2025)

Erregioa	Okupazio-tasa	Goi-mailako ikasketak	Goi-mailakoak: emakumeak	Goi-mailakoak: gizonak
Akitania	%72,9	%44,0	%48,9	%38,9
Midi-Pirinioak	%71,8	%47,9	%50,1	%45,6
Errioxa	%71,1	%41,4	%45,8	%37,0
Euskal Herria	**%70,6**	**%53,4**	**%56,9**	**%49,9**
Aragoi	%70,0	%41,0	%44,2	%37,9
Gaztela eta León	%69,1	%42,1	%47,5	%36,9
Kantabria	%68,3	%47,8	%52,6	%42,9

Oharra: Euskal Herria: 2023. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: %56,4 (2025).
Iturria: EUSTAT, INE (EPA), INSEE, Eurostat (EU-LFS). Lanketa: Gaindegia.


3.2
ERRENTA, PREZIOAK ETA DESBERDINTASUNA

Euskal Herriko etxeen errenta erabilgarria Europako altuenen artean dago. Errenta-desberdintasuna eta prezioen igoera, berriz, Europako erdibidean daude.

2023an, etxeen errenta erabilgarria biztanleko 26.078 euro (EAP) izan zen Hego Euskal Herrian: 28 estatuen artean 2. handiena, Luxenburgoren atzetik eta Alemaniaren eta Austriaren aurretik. Erregioen artean, 110 erregiotatik 8. da, Hessenen eta Ile-de-Franceren parean. Euskal Herri osoaren azken datua 2021koa da: 20.880 PPS, estatuen artean 4. postua.


Gini indizea 29,7 da Hego Euskal Herrian (2024): 35 estatuen artean 19. postua, Kroaziaren eta Alemaniaren parean. Turkia, Bulgaria eta Lituania dira desorekatuenak, eta Eslovenia, Txekia eta Eslovakia berdintasunezkoenak. Euskal Herri osoan, 32,2 zen 2021ean (13.). Prezioak %2,9 igo ziren Hego Euskal Herrian 2025ean: 37 estatuen artean 20. postua, Europako erdibidean.

Etxeen errenta erabilgarria biztanleko, Europako estatuak eta Euskal Herria (€ EAP, 2023)



Oharra: Euskal Herria: 2021. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: 26.078 (2023). EAP: erosahalmen-parekotasuna (ingelesez, PPS): euroak, estatuen arteko prezio-mailen aldeak zuzenduta.
Iturria: EUSTAT, INE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.


Gini indizea, Europako estatuak eta Euskal Herria (0-100, 2024)



Oharra: Euskal Herria: 2021. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: 29,7 (2024). Balio handiagoak desberdintasun handiagoa adierazten du.
Iturria: EUSTAT, INE, Eurostat (EU-SILC). Lanketa: Gaindegia.

Etxeen errenta erabilgarriaren mapak ipar-mendebaldea eta hego-ekialdea bereizten ditu: Alemania, Austria, Luxenburgo eta Italiako iparraldea goian, eta Europako ekialdea eta Grezia behean. Hego Euskal Herria (26.078 €, EAP) 110 erregioen artean 8. da, Hessenen eta Ile-de-Franceren parean.

Etxeen errenta erabilgarria biztanleko, Europako erregioak (€ EAP, 2023)



Oharra: Euskal Herria: 2021. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: 26.078 (2023). Europar Batasuneko erregioak: 2023ko datuak. Grisez: daturik ez; gris argiz: EBtik kanpo. Ertz beltzez: Euskal Herria.
Iturria: EUSTAT, INE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.


3.3
POBREZIA-ARRISKUA ETA ONGIZATEA

Pobrezia edo bazterkeria arriskuan dagoen biztanleriaren proportzioa Europako txikienetakoa da, eta bizitzarekiko gogobetetasuna Europako erdibidean.

2025ean, Hego Euskal Herriko biztanleen %15,1 zegoen pobrezia edo bazterkeria arriskuan (AROPE). 32 estatuen artean, Txekiak eta Poloniak bakarrik dute tasa txikiagoa; Albania, Turkia eta Bulgaria dira tasa handienekoak. Erregioen artean, 109 erregiotatik 14. txikiena da.


Bizitzarekiko gogobetetasuna, 0tik 10erako eskalan, 7,35 da Hego Euskal Herrian (2025): 32 estatuen artean 18. postua, Suediaren eta Lituaniaren parean. Finlandia, Errumania, Danimarka eta Austria dira gogobetetasun handienekoak, eta Turkia eta Bulgaria txikienekoak.

Pobrezia edo bazterkeria arriskua (AROPE), Europako estatuak eta Euskal Herria* (%, 2025)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta (2025).
Iturria: EUSTAT, INE, Eurostat (EU-SILC). Lanketa: Gaindegia.

Bizitzarekiko gogobetetasuna, Europako estatuak eta Euskal Herria* (0-10, 2025)




Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta (2025).
Iturria: EUSTAT, INE, Eurostat (EU-SILC). Lanketa: Gaindegia.



Pobrezia edo bazterkeria arriskuak hegoaldeko geografia du: Italiako hegoaldea eta uharteak, Andaluzia, Ceuta eta Melilla daude buruan, eta Poloniako, Txekiako, Flandriako eta Italiako ipar-ekialdeko erregioak behean. Hego Euskal Herria (%15,1) 109 erregioen artean 14. tasarik txikiena da, eta inguruko erregio guztiek tasa handiagoa dute.

Pobrezia edo bazterkeria arriskua (AROPE), Europako erregioak (%, 2025)




Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta. Europar Batasuneko erregioak: 2025eko datuak. Grisez: daturik ez; gris argiz: EBtik kanpo. Ertz beltzez: Euskal Herria.
Iturria: EUSTAT, INE, Eurostat (EU-SILC). Lanketa: Gaindegia.

3.4
GENERO-BERDINTASUNA


Genero-berdintasunaren indizea Europako goiko erdian dago.

Genero-berdintasunaren indizea (EIGE, 0-100) 66,4 zen Hego Euskal Herrian, 2020ko edizioan. EIGEren 2025eko edizioko estatuen ondoan, 28 lurraldeen artean 9. postuan legoke. Suedia (73,7), Frantzia (73,4), Danimarka (71,8) eta Espainia (70,9) daude buruan, eta Hungaria (51,6) eta Zipre (47,6) azken postuetan.

Genero-berdintasunaren indizea, Europako estatuak (2025eko edizioa) eta Euskal Herria* (2020ko edizioa) (0-100)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta. Euskal Herria*: 2020ko edizioa, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroa Garaiko indizeen batez bestekoa, biztanleriaz haztatuta; estatuak: EIGEren 2025eko edizioa. Edizioak ez datoz bat, eta alderaketa kontuz irakurri behar da.
Iturria: EUSTAT, Emakunde, NASTAT, EIGE (Gender Equality Index). Lanketa: Gaindegia.



LABURPENA: GIZARTEA EUROPAN

Prestakuntza. Hego Euskal Herriko 25-64 urtekoen %56,4k goi-mailako ikasketak ditu: estatuen artean 2. ehunekorik handiena, eta erregioen artean 4. postuan.

Enplegua. 15-64 urtekoen okupazio-tasa (%71,9, Hego Euskal Herria) Europako erdibidean dago (20. 35 estatuen artean).

Errenta. Hego Euskal Herriko etxeen errenta erabilgarria (26.078 €, EAP) Europako bigarren handiena da estatuen artean, eta desberdintasuna (Gini 29,7) erdibidean.

Pobrezia-arriskua eta ongizatea. Hego Euskal Herrian, pobrezia edo bazterkeria arriskua (%15,1) estatuen artean hirugarren txikiena da; bizitzarekiko gogobetetasuna (7,35), aldiz, erdibidean.

Genero-berdintasuna. Indizea 66,4 da Hego Euskal Herrian (2020ko edizioa); EIGEren azken edizioko estatuekin alderatuta, 9. postuan legoke.

Gizartearen adierazle nagusiak: Euskal Herriaren balioa eta postua Europan

Adierazlea (urtea)	Euskal Herria	Postua estatuen artean	Postua erregioen artean
Goi-mailako ikasketak, 25-64, % (2023)	%53,4	2. / 35	**5. / 110**
Okupazio-tasa, 15-64, % (2023)	%70,6	23. / 35	**58. / 110**
Etxeen errenta erabilgarria biztanleko, € EAP (2021)	20.880	4. / 28	**21. / 110**
Gini indizea (2021)	32,2	13. / 35	–
Pobrezia edo bazterkeria arriskua (AROPE), % (2025)*	%15,1	30. / 32	**96. / 109**
Kontsumo-prezioen urteko aldakuntza (KPI), % (2025)*	2,9	20. / 37	–
Bizitzarekiko gogobetetasuna, 0-10 (2025)*	7,35	18. / 32	–
Genero-berdintasunaren indizea, 0-100 (2020)*	66,4	9. / 28	–

Oharra: Postua: 1 = baliorik handiena; zerrendako lurralde kopurua barra ondoren. Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) postua estatuen artean, daturik berrienarekin: Goi-mailako ikasketak, 25-64, %: 2. / 35 (2025); Okupazio-tasa, 15-64, %: 20. / 35 (2025); Etxeen errenta erabilgarria biztanleko, € EAP: 2. / 28 (2023); Gini indizea: 19. / 35 (2024). * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta.
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, Eurostat. Lanketa: Gaindegia.





4

KULTURA ETA HIZKUNTZAK

Euskara, Europan ezagutza gehien hazi den hizkuntza gutxitua; kultur enpleguaren pisua, berriz, txikienetakoa

Kultur enplegua, kultur gastu publikoa eta hizkuntza gutxituak, Euskal Herria Europako estatu, erregio eta hizkuntzekin alderatuta.

%3,4

kultur enplegua, enplegu osoaren gainean, Euskal Herria* (2025): 35 estatuen artean 30. postuan

%36,1

euskaldunak, 5 urtetik gorakoen artean, Euskal Herria* (2021): 14 hizkuntza gutxituen artean 6. proportzioa

216 €

kultur gastu publikoa biztanleko, Euskal Herria* (2023): 31 estatuen artean 15. handiena

+4,8

puntu hazi da euskaldunen proportzioa (2001-2021): 14 hizkuntza gutxituen artean 1. hazkunderik handiena


4.1
KULTUR ENPLEGUA

Kulturak enplegu osoan duen pisua Europako txikienetakoa da, estatuekin alderatuta.

2025ean, Hego Euskal Herriko enpleguaren %3,4 kulturaren arlokoa zen (44.900 pertsona). 35 estatuen artean 30. postuan dago, Irlandaren (%3,4) parean eta Greziaren (%3,5) atzetik; Eslovakiak, Turkiak, Bosnia-Herzegovinak eta Errumaniak bakarrik dute pisu txikiagoa. Herbehereak (%5,7), Estonia (%5,3), Malta (%5,1) eta Suitza (%5) daude buruan.


Hego Euskal Herriko serieak gorabehera handiak ditu: %3,9 zen 2011n, gehienekoa 2022an izan zuen (%4, 51.000 pertsona) eta %3,4 da 2025ean.

Kultur enplegua, enplegu osoaren gainean, Europako estatuak eta Euskal Herria* (%, 2025)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta. Euskal Herria*: Espainiako Kultura Ministerioaren datua (CULTURABase); estatuak: Eurostat. Metodologiak ez dira berdinak.
Iturria: Kultura Ministerioa (CULTURAbase, EPA), Eurostat (cult_emp_sex). Lanketa: Gaindegia.

Kultur enpleguaren bilakaera, enplegu osoaren gainean, Euskal Herria* (%, 2011-2025)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta. Inkesta-datua (Biztanleria Aktiboaren Inkesta): urte batetik besterako aldaketek laginaren gorabeherak ere jasotzen dituzte.
Iturria: Kultura Ministerioa (CULTURAbase, EPA). Lanketa: Gaindegia.


4.2
KULTUR GASTU PUBLIKOA

Administrazio publikoek kulturan gastatzen dutena Europako erdibidean dago, bai biztanleko bai BPGaren gainean.

2023an, Hego Euskal Herriko administrazioek 216 euro gastatu zituzten kulturan biztanleko: 31 estatuen artean 15. postua, Hungariaren (222) atzetik eta Esloveniaren (203) aurretik. Islandia (746) eta Luxenburgo (690) dira buruan, eta Grezia (38), Errumania (50) eta Zipre (57) azken postuetan. 2015ean, Hego Euskal Herriko gastua 147 euro zen biztanleko.


BPGaren gainean, kultur gastu publikoa %0,56 da: 15. postua, %0,6 duten estatuen (Frantzia, Danimarka, Finlandia, Txekia…) eta %0,5 dutenen artean. Hungaria (%1,1), Islandia eta Estonia (%1) dira buruan.

Kultur gastu publikoa biztanleko, Europako estatuak eta Euskal Herria* (euro, 2023)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta. Euskal Herria*: autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen gastu likidatua (CULTURABase); estatuak: administrazio publiko osoa, kultur zerbitzuak (COFOG 08.2). Euro korronteak.
Iturria: Kultura Ministerioa (CULTURAbase, gastu likidatua), Eurostat (gov_10a_exp, COFOG 08.2). Lanketa: Gaindegia.

Kultur gastu publikoa, BPGaren gainean, Europako estatuak eta Euskal Herria* (%, 2023)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta. Euskal Herria*: autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen gastu likidatua (CULTURABase); estatuak: administrazio publiko osoa, kultur zerbitzuak (COFOG 08.2). Euro korronteak.
Iturria: Kultura Ministerioa (CULTURAbase, gastu likidatua), Eurostat (gov_10a_exp, COFOG 08.2). Lanketa: Gaindegia.




4.3
HIZKUNTZA GUTXITUAK EUROPAN

Euskara Europako hizkuntza gutxituen erdi-goiko mailan dago hiztunen proportzioan, eta azken bi hamarkadetan ezagutza gehien hazi den hizkuntza da.

2021ean, Hego Euskal Herriko 5 urtetik gorakoen %36,1 euskalduna zen (990.437 pertsona). Datu ofizialak dituzten 14 hizkuntza gutxituen artean 6. postuan dago. Galegoak (93,4), katalanak (80,4) eta frisierak (67) dute hiztunen proportziorik handiena, eta okzitaniera, kashubiera, bretainiera, Eskoziako gaelikoa, rusinera eta sorabiera %10etik behera daude.


Euskal Herri osoan, euskaldunen proportzioa 4,8 puntu hazi da 2001-2021 aldian: 14 hizkuntzaren artean hazkunderik handiena, kashubieraren (+2,2) aurretik. Gaelikoak eta rusinerak bere horretan diraute, eta gainerakoek atzera egin dute: katalanak eta eskozierak puntu bat inguru galdu dute; galesak, irlanderak, bretainierak, aranesak (-3,2) eta galegoak 3-4 puntu; eta frisierak (-7) eta sorabierak (-6), gehien.

Hizkuntza gutxituen ezagutza (hitz egiteko gai direnak, lurraldeko biztanleriaren %) (%, azken datua)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta. Ezagutzaren adierazlea, iturri bakoitzarena: hitz egiten daki edo hitz egin dezake (katalana, galegoa, galesa, irlandera, gaelikoa, eskoziera, aranesa); ondo edo oso ondo hitz egiten du (frisiera); ondo edo nahiko ondo hitz egiten du (bretainiera); elkarrizketa sinple bat izateko adina (okzitaniera). Rusinera (ama-hizkuntza), kashubiera (etxean erabiltzen den hizkuntza) eta sorabiera (hiztun aktiboen estimazioa) ez dira ezagutza-adierazle hertsiak. Galesa: 2021eko errolda. Gaelikoa: erroldak «ezagutza» eta «hizkuntza-gaitasunak» bereizten ditu. Eskoziera: erroldak hizkuntza-gaitasunak jasotzen ditu (hitz egin, ulertu, irakurri, idatzi). Rusinera: ama-hizkuntza (erroldak ama-hizkuntza eta nazionalitatea bereizten ditu); ehunekoa Eslovakiako biztanleria osoaren gainean kalkulatua. Sorabiera: Alemaniako erroldak ez du hizkuntza-galderarik; datuak estimazioak dira. Euskara: euskaldunak, 2021eko biztanleria-zentsuak (Euskal Herria*, 5 urte eta gehiago), I. zatiko datu bera. Katalana: Kataluniako datuak bakarrik. Okzitaniera: Okzitania, Akitania Berria eta Aran (OPLO). Aranesa: 15 urtetik gorakoak. Azken datuaren urtea: 2020-2025.
Iturria: EUSTAT, NASTAT (2021eko biztanleria-zentsuak), Idescat, IGE, ONS, CSO, Région Bretagne, Provincie Fryslân (Fryske Taalatlas), Statistical Office of the Slovak Republic, Statistics Poland (GUS), OPLO, OLCA, National Records of Scotland, Conselh Generau d'Aran, Stiftung für das sorbische Volk. Lanketa: Gaindegia.


Hizkuntza gutxituen ezagutzaren bilakaera (puntu-aldea, hasierako eta azken datu-puntuen artean)



Oharra: Aldiak ez dira berdinak (10-20 urte; ikus taula). Euskara: Inkesta Soziolinguistikoa (Euskal Herri osoa, 16 urte eta gehiago), 2001-2021. Frisiera: 2026ko Taalatlas, 2007ko datuekin alderatuta. Okzitaniera: 2020ko inkesta, 2008ko (Akitania) eta 2010eko (Midi-Pirinioak) inkestekin harmonizatua. Aranesa: 2008, 2013 eta 2018ko serie harmonizatua. Gaelikoa: «hitz egiten du» adierazlea. Kashubiera: 2002an ama-hizkuntza eta 2021ean etxeko hizkuntza, hizkuntza bat baino gehiago adierazteko aukerarekin (galdera desberdinak). Sorabiera: 2005eko estimazioa eta 2024ko hiztun aktiboak. Azken hiru horiek ez dira guztiz konparagarriak.
Iturria: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa (Inkesta Soziolinguistikoa), Idescat, IGE, ONS, CSO, Région Bretagne, Provincie Fryslân (Fryske Taalatlas), Statistical Office of the Slovak Republic, Statistics Poland (GUS), OPLO, OLCA, National Records of Scotland, Conselh Generau d'Aran, Stiftung für das sorbische Volk. Lanketa: Gaindegia.

Erabilerari dagokionez, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen zutenak %17,5 ziren 2021ean (467.700 pertsona), eta %14,6 2001ean.

Hizkuntza gutxituen ezagutzaren bilakaera (puntu-aldea, hasierako eta azken datu-puntuen artean)



Oharra: Zirkuluaren azalera puntu-aldearekiko proportzionala da; kolorea, norabidearen araberakoa (berdin: ±0,5 puntu edo gutxiago). Aldiak ez dira berdinak (10-20 urte; ikus taula). Euskara: Inkesta Soziolinguistikoa (Euskal Herri osoa, 16 urte eta gehiago), 2001-2021. Frisiera: 2026ko Taalatlas, 2007ko datuekin alderatuta. Okzitaniera: 2020ko inkesta, 2008ko (Akitania) eta 2010eko (Midi-Pirinioak) inkestekin harmonizatua. Aranesa: 2008, 2013 eta 2018ko serie harmonizatua. Gaelikoa: «hitz egiten du» adierazlea. Kashubiera: 2002an ama-hizkuntza eta 2021ean etxeko hizkuntza, hizkuntza bat baino gehiago adierazteko aukerarekin (galdera desberdinak). Sorabiera: 2005eko estimazioa eta 2024ko hiztun aktiboak. Azken hiru horiek ez dira guztiz konparagarriak.
Iturria: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa (Inkesta Soziolinguistikoa), Idescat, IGE, ONS, CSO, Région Bretagne, Provincie Fryslân (Fryske Taalatlas), Statistical Office of the Slovak Republic, Statistics Poland (GUS), OPLO, OLCA, National Records of Scotland, Conselh Generau d'Aran, Stiftung für das sorbische Volk. Lanketa: Gaindegia.

Hizkuntza gutxituak Europan: ezagutza, bilakaera eta erabilera (azken datuak)

Hizkuntza (lurraldea)	Aldia	Ezagutza, %	Bilakaera, puntuak	Erabilera, %
Galegoa (Galizia)	2003-2023	%93,4	-3,8	%46,2
Katalana (Katalunia)	2003-2023	%80,4	-1,2	%32,6
Frisiera (Frisia)	2007-2025	%67,0	-7,0	–
Aranesa (Aran)	2008-2023	%53,6	-3,2	%19,7
Irlandera (Irlanda)	2002-2022	%40,0	-2,8	%3,9
Euskara (Euskal Herria*)	**2001-2021**	**%36,1**	**+4,8**	**%17,5**
Eskoziera (Eskozia)	2011-2022	%29,0	-1,0	–
Galesa (Gales)	2001-2021	%17,8	-3,0	%14,8
Okzitaniera (Okzitania)	2008/2010-2020	%7,0	-2,0	%4,0
Kashubiera (Pomerania)	2002-2021	%3,2	+2,2	%1,6
Bretainiera (Bretainia)	2007-2024	%2,7	-2,8	–
Gaelikoa (Eskozia)	2001-2022	%1,3	+0,1	%0,5
Rusinera (Eslovakia)	2001-2021	%1,0	0,0	–
Sorabiera (Lusazia)	2005-2024	%1,0	-6,0	–

Oharra: Euskara: ezagutza, 2021eko biztanleria-zentsuak (Euskal Herria*, 5 urte eta gehiago); aldia, bilakaera eta erabilera, Inkesta Soziolinguistikoa (Euskal Herri osoa, 16 urte eta gehiago; erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak). Erabileraren adierazlea iturri bakoitzarena da, eta ez dira alderagarriak: ohiko hizkuntza (katalana, aranesa), beti edo gehienbat galegoz (galegoa), Annual Population Survey (galesa), astean behin gutxienez (okzitaniera), etxean (gaelikoa, kashubiera); irlanderaren bi datuak adierazle desberdinekin neurtuak dira. Rusinera: ehunekoa Eslovakiako biztanleria osoaren gainean kalkulatua. Kanpo geratu dira ezagutzaren ehunekoa eta haren bilakaera zenbakiz ez dituztenak (korsikera, samiera, alsaziera, mirandesa, limburgera, behe-saxoiera eta sardiniera).
Iturria: EUSTAT, NASTAT (2021eko biztanleria-zentsuak), Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa (Inkesta Soziolinguistikoa), Idescat, IGE, ONS, CSO, Région Bretagne, Provincie Fryslân (Fryske Taalatlas), Statistical Office of the Slovak Republic, Statistics Poland (GUS), OPLO, OLCA, National Records of Scotland, Conselh Generau d'Aran, Stiftung für das sorbische Volk. Lanketa: Gaindegia.



LABURPENA: KULTURA EUROPAN

Kultur enplegua. Hego Euskal Herriko enpleguaren %3,4 kulturaren arlokoa da (2025): estatuen artean 30. postua 35etik, Europako txikienetakoa.

Gastu publikoa. Administrazioen kultur gastua (216 euro biztanleko, BPGaren %0,56a) Europako erdibidean dago: 15. postua 31 estatuen artean.

Hizkuntzak. Hego Euskal Herriko 5 urtetik gorakoen %36,1 euskalduna da (2021): 14 hizkuntza gutxituen artean 6. proportzioa, eta 2001tik ezagutza gehien hazi den hizkuntza (+4,8 puntu).

Kulturaren adierazle nagusiak: Euskal Herria*ren balioa eta postua Europan

Adierazlea (urtea)	Euskal Herria*	Postua estatuen artean
Kultur enplegua, enpleguaren % (2025)*	%3,4	30. / 35
Kulturan lan egiten duten pertsonak (2025)*	44.900	–
Kultur gastu publikoa biztanleko, euro (2023)*	216	15. / 31
Kultur gastu publikoa, BPGaren % (2023)*	0,56	15. / 31

Oharra: Postua: 1 = baliorik handiena; zerrendako lurralde kopurua barra ondoren. * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta. Kultur enplegua eta gastua: Euskal Herria*, Espainiako Kultura Ministerioa; estatuak, Eurostat. Metodologia-aldeak direla eta, postuak orientagarriak dira.
Iturria: Kultura Ministerioa (CULTURAbase), Eurostat. Lanketa: Gaindegia.



EUSKAL HERRIA ADIERAZLEEN KONPARAZIOEKONOMIKOEN GALERIA 2026



5

INGURUMENA

Ibaien egoeran Europako onenen artean eta energia-intentsitatean txikienen artean; energia berriztagarrien kuota, berriz, erdibidean

Energia, lurraldea, ura, airea eta hondakinak, Euskal Herria Europako estatu eta erregioekin alderatuta.

%67,2

egoera onean dauden ibai-masak, Euskal Herria* (2022): 28 estatuen artean 2. ehunekorik handiena

8,3 µg/m³

PM2.5 partikulak airean, Euskal Herria (2025): 39 estatuen artean 11. kutsadurarik txikiena

77,7

energia-intentsitatea, Euskal Herria* (2024): 36 estatuen artean 5. txikiena

%22,3

energia berriztagarrien kuota, Euskal Herria* (2023): 36 estatuen artean 22. postuan


5.1
ENERGIA

BPG unitateko energia-kontsumoa Europako estatu gehienetan baino txikiagoa da; energia berriztagarrien kuota, berriz, Europako erdibidean dago.

2023an, energia berriztagarriak azken energia-kontsumoaren %22,3 izan ziren Hego Euskal Herrian: 36 estatuen artean 22. postua, Frantziaren (%22,5) eta Alemaniaren (%21,5) parean. Islandia (%79,4), Norvegia (%76,7) eta Suedia (%66,4) daude buruan, ur-jauzien eta biomasaren indarrez; Irlanda, Belgika eta Luxenburgo, azken postuetan.


Energia-intentsitatea 77,7 teP-koa zen Hego Euskal Herrian BPGaren milioi euroko 2024an: 36 estatuen artean 5. txikiena, Irlandaren, Danimarkaren, Luxenburgoren eta Norvegiaren atzetik. Islandia, Bosnia-Herzegovina eta Serbia dira energia-intentsiboenak. Alderaketa erlatiboa da: Europako maila bera altua da, eta intentsitate txikiagoak ez du esan nahi energia-erabilera jasangarria denik.

Energia berriztagarrien kuota azken energia-kontsumo gordinean, Europako estatuak eta Euskal Herria* (%, 2023)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta (2023). Euskal Herria*: kuota guztira bakarrik dago (ez elektrizitatean, berokuntzan edo garraioan).
Iturria: EUSTAT, Nafarroako Gobernua (energia-balantzeak), Eurostat (SHARES). Lanketa: Gaindegia.

Energia-intentsitatea, Europako estatuak eta Euskal Herria* (teP BPGaren milioi euroko, 2024)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta (2024). Barne-energia gordinaren kontsumoa BPGaren arabera. Balio txikiagoak eraginkortasun handiagoa adierazten du.
Iturria: EUSTAT, Nafarroako Gobernua (energia-balantzeak), Eurostat. Lanketa: Gaindegia.




5.2
LURRALDEA, BIODIBERTSITATEA ETA URA

Lurzoru artifizialaren proportzioa Europako erdibidean dago, Natura 2000 sareko habitat eta espezieen kontserbazio-egoera Europako batez besteko mailan, eta ibaien egoera ekologikoa Europako onenetakoa da.

2022an, Hego Euskal Herriko lurzoruaren %4,8 zen artifiziala: 28 estatuen artean 11. ehunekorik handiena, Txekiaren eta Irlandaren parean. Malta (%25,9), Herbehereak (%13) eta Belgika (%12) dira artifizializatuenak. Erregioen artean, 106 erregiotatik 57. da.


Natura 2000 sareko guneetan (119 gune Euskal Herrian), ebaluatutako habitat eta espezieen %76,6 zeuden kontserbazio-egoera onean edo bikainean 2024an: 27 estatuen artean 20. postua, Alemaniaren eta Frantziaren parean. Suedia, Zipre eta Txekia daude buruan (%90etik gora), eta Hungaria, Herbehereak eta Belgika azken postuetan.

Lurzoru artifiziala, Europako estatuak eta Euskal Herria* (azaleraren %, 2022)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta (2022). Eraikinak, azpiegiturak eta bestelako gainazal iragazgaitzak. LUCAS inkesta. Euskal Herri osoaren datua (CORINE kartografia) ez da sartu, metodoa desberdina delako.
Iturria: Eurostat (LUCAS). Lanketa: Gaindegia.

Natura 2000: kontserbazio-egoera onean dauden habitat eta espezieak, Europako estatuak eta Euskal Herria (ebaluazioen %, 2024)




Oharra: A eta B kategoriak (bikaina eta ona), guneen datu-orri estandarretan (SDF) izendapen-unean egindako ebaluazioaren arabera.
Iturria: EEA (Natura 2000, Standard Data Forms). Lanketa: Gaindegia.

Uretan, Hego Euskal Herriko ibai-masen %67,2 zeuden egoera ekologiko onean azken plangintza-zikloan (2022): 28 estatuen artean 2. ehunekorik handiena, Norvegiaren (%68,9) atzetik eta Errumaniaren (%66,6) eta Greziaren (%64,2) aurretik. Ur-masa eraldatuetan (potentzial ekologikoa), proportzioa %40,9 da, eta lakuetan %57,1. Herbehereetan, Luxenburgon eta Txekian, aldiz, ia ibai-masa guztiak daude egoera onetik kanpo.


Basoetan, Euskal Herriko baso-azaleraren %69,2 zen naturala 2018an, eta gainerakoa landaketak: 35 lurraldeen artean 20. postua, Finlandiaren (%67,1) eta Luxenburgoren parean. Frantzian (%86,2) eta Espainian (%86,1) proportzioa handiagoa da, eta Erresuma Batuan, Herbehereetan (%10,5) eta Txekian, aldiz, txikiena.

Egoera ekologiko onean dauden ur-masak: ibaiak, Europako estatuak eta Euskal Herria* (%, 2022ko zikloa)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta (2022). Euskal Herria*: ur-masa naturalen egoera (eraldatuen potentziala kanpo); estatuak: ibai-masa guztiak. Ez dira guztiz alderagarriak.
Iturria: URA (Eusko Jaurlaritza), MITECO, EEA (WISE, Ur Esparru Zuzentaraua). Lanketa: Gaindegia.

Baso naturalak, Europako estatuak eta Euskal Herria (baso-azaleraren %, 2018)



Oharra: Estatuak: berez birsortutako basoa (FAO). Euskal Herria: bertako espezieen basoa landaketen aurrean, mapa forestaletatik (sailkapen propioa); metodoa ez da berdina. Euskal Herria*: %65,6 (2021).
Iturria: Mapa forestalak (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, IGN-F), FAO (FRA 2020). Lanketa: Gaindegia.




5.3
AIREAREN KALITATEA ETA ISURKETAK

Euskal Herriko airea Europako garbienetakoa da PM2.5 partikulei dagokienez, eta isurketen ingurumen-inpaktua biztanleko txikienetakoa da.

2025ean, PM2.5 partikulen batez besteko kontzentrazioa 8,3 µg/m³ izan zen Euskal Herrian: 39 estatuen artean 11. txikiena, Frantziaren (8,8) eta Espainiaren (9) azpitik. Islandia, Finlandia eta Estonia dira garbienak, eta Balkanetako estatuak eta Turkia kutsatuenak. Euskal Herriak EBren 2030erako muga (10 µg/m³) betetzen du, baina OMEren gomendioa (5 µg/m³) 1,7 aldiz gainditzen du.


Isurketa antropogenikoen ingurumen-inpaktua (pertsona-baliokideak biztanleko) 0,34 zen Hego Euskal Herrian 2022an: 39 estatuen artean 6. txikiena, Espainiaren (0,32) eta Italiaren (0,36) artean. Erregioen artean, inguruko gehienek inpaktu handiagoa dute: Gaztela eta Leonek (0,64), Asturiasek (0,65) eta Aragoik (0,56), besteak beste.

PM2.5 kontzentrazioa, Europako estatuak eta Euskal Herria (µg/m³, biztanleriaz haztatua, 2025)



Oharra: OMEren gomendioa: 5 µg/m³; EBren 2030erako muga: 10 µg/m³.
Iturria: Copernicus (CAMS), JRC (GHS-POP). Lanketa: Gaindegia.

Isurketa antropogenikoen ingurumen-inpaktua, Europako estatuak eta Euskal Herria* (pertsona-baliokideak biztanleko, 2022)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta (2022). Euskal Herria*: Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa Garaia (ES21 + ES22).
Iturria: Amalur EIS, Copernicus (CAMS 8.1). Lanketa: Gaindegia.


5.4
HONDAKINAK

Biztanleko sortzen diren hondakinak Europako erdibidean daude, eta gaika biltzen den proportzioa estatuen birziklatze-tasen erdibidean.

2022an, 1,41 tona hondakin sortu ziren biztanleko Hego Euskal Herrian, mineral-hondakin nagusiak kanpo utzita: 37 estatuen artean 25. postua, Frantziaren (1,42) eta Portugalen (1,38) parean. Estonia (7,43), Bulgaria (3,79) eta Belgika (2,89) dira hondakin gehien sortzen dutenak. Mineral-hondakinak barne, 2,44 tona izan ziren biztanleko (27. postua). Materialen bertako kontsumoa (DMC), Euskal Autonomia Erkidegoan, 10,4 tona zen biztanleko 2022an: 36 lurraldeen artean 6. txikiena, Frantziaren (10,7) parean eta Italiaren (8,9) eta Espainiaren (9) gainetik.


Hego Euskal Herrian, hiri-hondakinen %44,8 bildu zen gaika 2023an (%45 Euskal Herri osoan, 2020an). Estatuen birziklatze-tasekin alderatuta, 37 lurraldeen artean 13. postuan legoke, Danimarkaren eta Finlandiaren ondoan; Alemania (%68,7), Austria (%62,8) eta Eslovenia (%59,8) daude buruan.

Hondakinen sorkuntza, mineral-hondakin nagusiak kanpo, Europako estatuak eta Euskal Herria* (tona biztanleko, 2022)



Oharra: * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta (2022). Jarduera ekonomiko eta etxe guztietako hondakinak; meatzaritzako eta eraikuntzako mineral-hondakin nagusiak kanpo.
Iturria: Nafarroako Ingurumen Behatokia, Eusko Jaurlaritza, Eurostat (env_wasgen). Lanketa: Gaindegia.

Hiri-hondakinen birziklatze-tasa: birziklatze-tasa erreala (estatuak) eta gaikako bilketa (Euskal Herria), Europako estatuak eta Euskal Herria (%, 2023)



Oharra: Euskal Herria: 2020. urteko datua (Euskal Herri osoaren azken datua). Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) daturik berriena: %44,8 (2023). Kontzeptu desberdinak: Euskal Herria eta Euskal Herria*, gaika bildutakoa (errefusa barne); estatuak, benetan birziklatutakoa (Eurostat). Euskal Herriaren balioa gainestimatuta dago.
Iturria: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Ingurumen Behatokia, Bil Ta Garbi, Eurostat (env_wasmun). Lanketa: Gaindegia.

LABURPENA: INGURUMENA EUROPAN

Energia. Hego Euskal Herrian, energia-intentsitatea Europako txikienetakoa da (5. txikiena), eta energia berriztagarrien kuota (%22,3) erdibidean.

Lurraldea eta ura. Lurzoru artifiziala (%4,8, Hego Euskal Herria) eta baso naturalen proportzioa (%69,2, Euskal Herria) erdibidean daude; ibaien egoera ekologikoa (%67,2 egoera onean, Hego Euskal Herria) Europako onenetakoa da.

Airea. PM2.5 partikulen kontzentrazioa (8,3 µg/m^3) Europako txikienetakoa da, EBren 2030erako mugaren azpitik, baina OMEren gomendioaren gainetik.

Hondakinak. Hego Euskal Herrian, biztanleko 1,41 tona hondakin (mineralak kanpo) eta gaikako bilketa %44,8: biak Europako erdibidean.

Ingurumenaren adierazle nagusiak: Euskal Herriaren balioa eta postua Europan


Adierazlea (urtea)	Euskal Herria	Postua estatuen artean	Postua erregioen artean
Energia berriztagarrien kuota, % (2023)*	%22,3	22. / 36	–
Energia-intentsitatea, teP BPGaren milioi euroko (2024)*	77,7	32. / 36	–
Lurzoru artifiziala, % (2022)*	%4,8	11. / 28	57. / 106
Natura 2000: kontserbazio-egoera ona, % (2024)	%76,6	20. / 27	–
Baso naturalak, baso-azaleraren % (2018)	%69,2	20. / 35	–
Egoera ekologiko onean dauden ur-masak: ibaiak, % (2022)*	%67,2	2. / 28	–
PM2.5 kontzentrazioa, µg/m^3 (2025)	8,3	29. / 39	17. / 39
Isurketa antropogenikoen ingurumen-inpaktua, pertsona-baliokide biztanleko (2022)*	0,34	34. / 39	30. / 39
Hondakinen sorkuntza (mineralak kanpo), tona biztanleko (2022)*	1,41	25. / 37	–
Hiri-hondakinen birziklatze-tasa (gaikako bilketa), % (2020)	%45,0	11. / 36	–

Oharra: Postua: 1 = baliorik handiena; zerrendako lurralde kopurua barra ondoren. Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) postua estatuen artean, daturik berrienarekin: Hiri-hondakinen birziklatze-tasa (gaikako bilketa), %: 13. / 37 (2023). * Euskal Herria*: adierazle honetan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta.
Iturria: EUSTAT, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Amalur EIS, Eurostat, EEA, Copernicus, FAO. Lanketa: Gaindegia.

Euskal Herria eta inguruko erregioak: airea, isurketak eta lurzoru artifiziala (azken datuak)

Erregioa	PM2.5 (µg/m^3, 2025)	Isurketa antropogenikoen ingurumen-inpaktua (2022)	Lurzoru artifiziala (%, 2022)
Errioxa	8,8	0,35	%3,7
Euskal Herria	**8,3**	–	–
Aragoi	8,2	0,56	%2,6
Midi-Pirinioak	8,0	0,39	%4,2
Akitania	7,7	0,40	%5,3
Kantabria	7,3	0,46	%4,1
Euskal Herria*	–	**0,34**	%4,8

Oharra: Euskal Herria: PM2.5; Euskal Herria*: isurketak eta lurzorua (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe).
Iturria: Amalur EIS, Copernicus (CAMS), Eurostat (LUCAS). Lanketa: Gaindegia.



AGINTE-TAULA: EUSKAL HERRIA EUROPAN

Demografia

Adierazlea (urtea)	Euskal Herria	Aldaketa	Postua estatuen artean	Postua erregioen artean
Biztanleria, milioi (2023)	**3.200.870** 2023	▲ +%0,7 2022	25. / 37	55. / 110
Biztanleria-dentsitatea, biztanle/km² (2023)	**152,9** 2023	▲ +1,1 2022	9. / 36	42. / 110
Jaiotza-tasa, 1.000 biztanleko (2023)	**6,4** 2023	▼ -0,2 2022	39. / 40	98. / 110
Heriotza-tasa, 1.000 biztanleko (2023)	**9,9** 2023	▼ -0,9 2022	21. / 40	79. / 110
Berezko hazkundea, 1.000 biztanleko (2023)	**-3,5** 2023	▲ +0,7 2022	28. / 40	65. / 110
Migrazio-saldoa, 1.000 biztanleko (2024)*	**10,7*** 2024	▲ +1,0 2023	9. / 40	17. / 110
Zahartze-tasa: emakumeak, % (2023)	**%26,7** 2023	▲ +1,8 p. 2017	2. / 37	19. / 110
Zahartze-tasa: gizonak, % (2023)	**%21,5** 2023	▲ +1,9 p. 2017	2. / 37	26. / 110
Lurralde eremutik kanpo jaiotakoak, % (2022)	**%32,3** 2022	–	3. / 32	–

Ekonomia

Adierazlea (urtea)	Euskal Herria	Aldaketa	Postua estatuen artean	Postua erregioen artean
BPGa biztanleko, € EAP (2023)	**42.332** 2023	▲ +%9,2 2022	9. / 32	27. / 110
Industriaren pisua, BEGaren % (2023)	**%24,3** 2023	▼ -1,1 p. 2022	7. / 33	27. / 110
Manufakturaren pisua, BEGaren % (2023)	**%21,1** 2023	▼ -0,2 p. 2022	5. / 33	20. / 110
Industria-establezimenduen batez besteko tamaina, langileak (2024)	**18,2** 2024	▲ +0,6 2023	4. / 31	20. / 107
Ondasun-esportazioak, BPGaren % (2023)	**%36,0** 2023	▼ -3,4 p. 2022	19. / 38	–
Merkataritza-balantza, BPGaren % (2024)*	**%6,4*** 2024	▼ -1,4 p. 2023	9. / 38	–
I+Gko gastua, BPGaren % (2024)*	**2,2*** 2024	▲ +0,1 2023	9. / 33	31. / 109
I+Gko langileak, enplegu osoaren % (2023)	**2,1** 2023	▲ +0,1 2022	6. / 34	19. / 109
Lanaren produktibitatea, euro orduko (2023)*	**50,0*** 2023	▲ +%4,8 2022	11. / 29	–
Lan-kostua orduko manufakturan, euro orduko (2023)*	**29,0*** 2023	▲ +%5,2 2022	11. / 29	–
Soldata-ordainsaria soldatapeko bakoitzeko, euro urtean (2023)	**45.171** 2023	▲ +%4,8 2022	11. / 30	56. / 110
Enpresen sorrera-tasa, % (2023)	**8,2** 2023	▲ +0,2 2022	23. / 27	78. / 107
Kooperatibetako enplegua, landunen % (2021)	**%4,9** 2021	–	1. / 26	–
Zor publikoa (erkidegoak eta toki-administrazioak), BPGaren % (2023)	**14,1** 2023	▼ -1,6 2022	4. / 28	–

Gizartea

Adierazlea (urtea)	Euskal Herria	Aldaketa	Postua estatuen artean	Postua erregioen artean
Goi-mailako ikasketak, 25-64, % (2023)	**%53,4** 2023	–	2. / 35	5. / 110
Okupazio-tasa, 15-64, % (2023)	**%70,6** 2023	▲ +4,0 p. 2017	23. / 35	58. / 110

Gizartea (jarraipena)

Adierazlea (urtea)	Euskal Herria	Aldaketa	Postua estatuen artean	Postua erregioen artean
Etxeen errenta erabilgarria biztanleko, € EAP (2021)	**20.880** 2021	▲ +%7,7 2020	4. / 28	21. / 110
Gini indizea (2021)	**32,2** 2021	▼ -0,1 2020	13. / 35	–
Pobrezia edo bazterkeria arriskua (AROPE), % (2025)*	**%15,1*** 2025	▼ -0,5 p. 2024	30. / 32	96. / 109
Kontsumo-prezioen urteko aldakuntza (KPI), % (2025)*	**2,9*** 2025	▼ -0,1 2024	20. / 37	–
Bizitzarekiko gogobetetasuna, 0-10 (2025)*	**7,35*** 2025	▼ -0,07 2024	18. / 32	–

Kultura eta hizkuntzak

Adierazlea (urtea)	Euskal Herria	Aldaketa	Postua estatuen artean	Postua erregioen artean
Kultur enplegua, enpleguaren % (2025)*	**%3,4*** 2025	▼ -0,3 p. 2024	30. / 35	–
Kultur gastu publikoa biztanleko, euro (2023)*	**216*** 2023	▲ +23,5 2022	15. / 31	–
Hizkuntza gutxituen ezagutza: euskara (%)	**%36,1*** 2021	–	6. / 14	–
Hizkuntza gutxituen ezagutzaren bilakaera: euskara (puntuak)	**+4,8 p.** 2001-2021	–	1. / 14	–

Ingurumena

Adierazlea (urtea)	Euskal Herria	Aldaketa	Postua estatuen artean	Postua erregioen artean
Energia berriztagarrien kuota, % (2023)*	**%22,3*** 2023	▲ +2,0 p. 2022	22. / 36	–
Energia-intentsitatea, teP BPGaren milioi euroko (2024)*	**77,7*** 2024	▼ -0,2 2023	32. / 36	–
Lurzoru artifiziala, % (2022)*	**%4,8*** 2022	▲ +0,1 p. 2018	11. / 28	57. / 106
Natura 2000: kontserbazio-egoera ona, % (2024)	**%76,6** 2024	▲ +0,1 p. 2023	20. / 27	–
Baso naturalak, baso-azaleraren % (2018)	**%69,2** 2018	–	20. / 35	–
Egoera ekologiko onean dauden ur-masak: ibaiak, % (2022)*	**%67,2*** 2022	–	2. / 28	–
PM2.5 kontzentrazioa, µg/m³ (2025)	**8,3** 2025	▲ +0,2 2024	29. / 39	17. / 39
Isurketa antropogenikoen ingurumen-inpaktua, pertsona-baliokide biztanleko (2022)*	**0,34*** 2022	▲ +0,01 2021	34. / 39	30. / 39
Hondakinen sorkuntza (mineralak kanpo), tona biztanleko (2022)*	**1,41*** 2022	▼ -0,16 2020	25. / 37	–
Hiri-hondakinen birziklatze-tasa (gaikako bilketa), % (2020)	**%45,0** 2020	–	11. / 36	–

Oharra: Euskal Herriaren balioa (urtea grisez) eta aurreko urtearekiko aldaketa (ehunekoetan, puntu-aldea; balio monetarioetan, aldaketa erlatiboa). Postua: 1 = baliorik handiena; marrako puntuak Euskal Herriaren kokapena erakusten du estatuen artean: ezkerrean, egoera okerragoa, eta eskuinean, hobea, adierazle bakoitzaren zentzuaren arabera (adibidez, Gini indizean edo AROPEn, balio txikiagoa da hobea); adierazle neutroetan (biztanleria, dentsitatea, egitura-adierazleak…), eskuinean baliorik handiena. Hizkuntzetan, postua hizkuntza gutxituen artean. * Euskal Herria*: Ipar Euskal Herria gabe. Euskal Herria*-ren (Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe) postua estatuen artean, daturik berrienarekin: Biztanleria, milioi: 25. / 38 (2025); Biztanleria-dentsitatea, biztanle/km²: 9. / 36 (2025); Jaiotza-tasa, 1.000 biztanleko: 39. / 40 (2024); Heriotza-tasa, 1.000 biztanleko: 21. / 40 (2024); Berezko hazkundea, 1.000 biztanleko: 28. / 40 (2024); Zahartze-tasa: emakumeak, %: 3. / 38 (2025); Zahartze-tasa: gizonak, %: 3. / 38 (2025); Zor publikoa (erkidegoak eta toki-administrazioak), BPGaren %: 6. / 28 (2025); Goi-mailako ikasketak, 25-64, %: 2. / 35 (2025); Okupazio-tasa, 15-64, %: 20. / 35 (2025); Etxeen errenta erabilgarria biztanleko, € EAP: 2. / 28 (2023); Gini indizea: 19. / 35 (2024); Hiri-hondakinen birziklatze-tasa (gaikako bilketa), %: 13. / 37 (2023).



MARKO KONTZEPTUALA

MARKO KONTZEPTUALA

Txosten honetako adierazleak Gaindegiaren Batzorde Zientifikoak Delphi prozesu batean adostutako marko kontzeptualetik datoz.

Prozesua. Gaindegiak 2025ean berritu zuen bere adierazle-sistema, Batzorde Zientifikoarekin batera eta Delphi metodoa erabiliz: adituek hainbat itzulitan baloratu zituzten proposamenak, adostasunera iritsi arte. Lehenik marko kontzeptuala adostu zen; gero, haren arabera, adierazleak hautatu ziren.


Misioa. Euskal Herriaren errealitate demografiko, sozial, ekonomiko, ekologiko eta kulturala modu integratuan bistaratzea, Euskal Herria bere osotasunean irudikatzeko eta haren egoera eta bilakaera ezagutzeko, ongizatean, partaidetzan, kohesioan eta berdintasunean oinarritutako komunitate gisa ulertuta.

Bost dimentsio. Markoa iraunkortasunaren ikuspegitik abiatzen da: garapena orekatua da ekonomiak, gizarteak eta ingurumenak elkarren kaltetan izan gabe aurrera egiten dutenean. Hiru zutabe horiei kultura gehitu zaie, euskara barne, dimentsio propio gisa. Demografia erdigunean dago, beste lauen oinarria delako: biztanleriaren tamainak, egiturak eta mugimenduek eragina dute lanean, zaintzan, baliabideen erabileran eta hizkuntzaren transmisioan.

Zeharkako begiradak. Dimentsio guztiak zeharkatzen dituzte desberdintasunak agerian uzten dituzten begiradek: generoak batez ere, eta adin-taldeak, enpresen tamainak eta jarduera-sektoreak. Horregatik ematen dira adierazleak, ahal den guztietan, sexuaren edo adinaren arabera.

Lurraldea. Datuak herrialdeka eta Euskal Herri osorako ematen dira. Ipar Euskal Herriko daturik ez dagoenean, hutsunea agerian uzten da (Euskal Herria*), eta estimazioak beharrezkoak direnean bakarrik erabiltzen dira, oharrarekin. Bigarren zatiak adierazle berberak Europako estatu eta erregioen ondoan kokatzen ditu.

Gaindegiaren adierazle-sistemaren marko kontzeptuala



Delphi prozesua, urratsez urrats

1. **Marko kontzeptuala.** «Euskal Herriko ongizate adierazle sistema / Irizpideak aztergai» jardunalditik abiatuta, misioa, markoa, dimentsioak eta zeharkako begiradak adostu ziren.

2. **Adierazleen hautaketa.** Dimentsio bakoitzeko proposamenak baloratu eta adierazle-multzoa berretsi zen.

3. **Datu falta.** Ipar eta Hego Euskal Herriko datuen desorekaren aurrean jarraitu beharreko irizpideak finkatu ziren.



Delphi prozesuaren lehen urratseko jardunaldia, Nafarroako Unibertsitate Publikoan (Iruñea), 2025eko martxoaren 28an: «Euskal Herriko ongizate adierazle sistema / Irizpideak aztergai». Berrogeitik gora aditu bildu ziren, unibertsitateetako ikertzaileak eta administrazioetako estatistikariak.

Hautatutako adierazleak, dimentsioka

DEMOGRAFIA

Biztanleria • Biztanle-dentsitatea • Adin-egitura • Zahartze-tasa • Euskal Herritik kanpo jaiotakoak • Migrazio-saldoa • Jaiotza-tasa • Heriotza-tasa • Berezko hazkundea

EKONOMIA

BPG biztanleko • Industriaren pisua balio erantsian • Industria-establezimenduen tamaina • Enpresen saldo garbia • Ekonomia sozialeko enplegua • Esportazioak • Merkataritza-balantza • I+G gastua • I+G langileak • Lanaren produktibitatea • Lan-kostu unitarioa • Soldatak • Zaintzari eskainitako denbora • Zor publikoa

GIZARTEA

Okupazio-tasa • Goi-mailako ikasketak • Errenta erabilgarria • Kontsumo-prezioak • Gini indizea • Pobrezia edo gizarte-bazterketa arriskua (AROPE) • Gizarte-babeseko gastua • Genero-berdintasunaren indizea • Bizitzarekiko gogobetetasuna

KULTURA ETA HIZKUNTZAK

Euskaldunak • Euskararen erabilera (lankideekin eta kalean) • Kultur enplegua • Kultur gastu publikoa • Euskarazko liburu-tituluak • Hizkuntza gutxituak Europan

INGURUMENA

Energia-intentsitatea • Energia berriztagarrien kuota • Ahalmen berriztagarria • Lurzoru artifiziala • Baso naturalak • Natura 2000 • Ur-masen egoera • PM2,5 partikulak • Isurketen ingurumen-inpaktua • Materialen kontsumoa • Hondakinen sorkuntza • Birziklatze-tasa

GAINDEGIAREN DATUATARIA

Euskal Herria datuen bidez ezagutzeko, aztertzeko eta alderatzeko tresna

Euskal Herriaren errealitatea ezagutzeko, datuak eskura. Gaindegiaren DatuAtari berriak Euskal Herriko errealitate soziala, ekonomikoa eta lurraldekoa aztertzeko tresna eskaintzen du. Datuen bidez, Euskal Herriaren bilakaera ezagutzeko, lurraldeen arteko aldeak aztertzeko eta Euskal Herria Europako beste erregio eta estatuekin alderatzeko aukera ematen du. Txosten honetan jasotako datuak, eta beste asko, DatuAtarian jarriko dira eskura.

Zer aukera eskaintzen ditu DatuAtariak?

1 Bi azterketa-aukera, adierazle bakoitzean

Adierazle bakoitzaren bidez, bi azterketa mota egin daitezke:

- **Euskal Herriaren barruko azterketa:** Euskal Herriko lurraldeen arteko aldeak, antzekotasunak eta bilakaerak aztertzeko aukera ematen du.
- **Euskal Herria Europarekin alderatzea:** Euskal Herriko datuak Europako beste erregio eta estatuetakoekin alderatzeko aukera eskaintzen du, Euskal Herriaren egoera Europako testuinguruan kokatzeko.

2 Datuak aukeratu eta azterketa pertsonalizatu

DatuAtariak azterketa bakoitzaren beharren arabera hautatzeko aukera ematen du. Horretarako, hainbat irizpide zehaztu daitezke:

- **Lurraldeak:** aztertu edo alderatu nahi diren lurraldeak aukeratu.
- **Urteak:** intereseko urteak hautatu eta datuen bilakaera aztertu.
- **Zeharkako aldagaiak:** datuak sexuaren, adin-tarteen, sektoreen edo eskuragarri dauden beste aldagaien arabera bereizi.

Aukera horiei esker, azterketa bakoitza interes eta behar zehatzetara egokitu daiteke.

3 Datuak hainbat grafiko motaren bidez ikusi

Aukeratutako datuak modu bisualean aurkezteko, grafiko mota desberdinak erabil daitezke:

- **Mapa:** lurraldeen arteko aldeak eta datuen banaketa geografikoa ikusteko.
- **Lerro-grafikoa:** adierazleen denborazko bilakaera aztertzeko.
- **Zutabe-grafikoa:** lurraldeen, urteen edo kategorien arteko konparazioak egiteko.
- **Piramide-grafikoa:** lurralde bateko biztanleria edo beste adierazle batzuk sexuaren eta adin-tarteen arabera aztertzeko.

Grafiko mota aukeratuta, datuak modu argiagoan interpretatu eta azterketaren emaitzak hobeto ulertzeko aukera dago.

4 Grafiko interaktiboak erabili, aztertu eta ikasi

DatuAtariko grafikoak interaktiboak dira. Haiekin elkarreraginez, informazioa aztertu, datuen arteko harremanak ezagutu eta emaitzetatik ikasteko aukera eskaintzen dute.

Interaktibitate horri esker, datuak ez dira soilik kontsultatzeko baliabide bat; Euskal Herriko errealitatea sakonago ezagutzeko eta galdera berriei erantzuteko tresna ere badira.

5 Datuak eta grafikoak formatu askotan deskargatu

Azterketa amaitutakoan, bai aukeratutako datuak, bai sortutako grafikoak hainbat formatutan deskargatzeko aukera eskaintzen du DatuAtariak.

Horrela, eskuratutako informazioa txostenetan, aurkezpenetan, ikerketetan edo bestelako lanetan erabili ahal izango da, baita emaitzak beste pertsona batzuekin partekatu ere.

Euskal Herria hobeto ezagutzeko tresna

Gaindegiaren DatuAtari berriak Euskal Herriko errealitate soziala, ekonomikoa eta lurraldekoa ikuspegi zabal batetik aztertzeko aukera eskaintzen du. Lurraldeen arteko konparazioak egitea, denboran zeharreko bilakaerak aztertzea eta Euskal Herria Europako testuinguruan kokatzea ahalbidetzen du.

Adierazleak aukeratu, datuak aztertu, grafikoak sortu eta emaitzak deskargatu.

Horrela, DatuAtariak datuak ezagutza bihurtzen laguntzen du, Euskal Herria hobeto ulertzeko eta haren errealitateari buruzko azterketa berriak egiteko.

gaindegia.eus

ZUZENDARITZA TALDEA ETA BATZORDE ZIENTIFIKOA

Zuzendaritza taldea



Batzorde Zientifikoa

Batzorde Zientifikoak eztabaidatu, baloratu eta berretsi zituen adierazle-sistemaren marko kontzeptuala eta adierazleak, Delphi prozesuan. Anjeles Iztueta da batzordearen arduraduna.



OHARRAK ETA ITURRIAK

Txosten honek Euskal Herriko datu nagusiak bi zatitan aurkezten ditu, bost atal berberetan (demografia, ekonomia, gizartea, kultura eta hizkuntzak, eta ingurumena): lehenengo zatiak Euskal Herria barrutik deskribatzen du, herrialdez herrialde eta denboran zehar; bigarrenak Europako estatu eta erregioen ondoan kokatzen du.

Lurraldeak

Euskal Herria. Zazpi herrialdeak: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia (Hego Euskal Herria), eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa (Ipar Euskal Herria). Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak osatzen dute. Euskal Herri osoaren biztanleria-datuak Ipar Euskal Herriko erroldekin bat datozen urteetan daude (1999, 2007, 2012, 2017 eta 2023).

Euskal Herria*. Asteriskoak adierazten du datuak Ipar Euskal Herria ez daukala (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), Iparraldean datu alderagarririk ez dagoelako. Ez da Euskal Herriaren estimazioa, beste perimetro bat baizik. Grafiko edo taula batean bi datuak daudenean, izenburuan «Euskal Herria» idazten da eta oharrak zehazten du zein den asteriskoduna; grafikoetan, mapetan eta datu gakoetan «Euskal Herria*» idazten da; gainerako testuetan, «Hego Euskal Herria».

I. zatia: Euskal Herriko panoramika

Iturriak eta lurralde-mailak. Iturri ofizialen datuak erabiltzen dira (EUSTAT, NASTAT, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, INE, INSEE eta beste), udalerri, eskualde eta herrialde mailan.

Serieak eta urteak. Serie bakoitza iturriak datuak eskaintzen dituen lehen urtetik azkenera arte doa. Euskal Herri osoaren datuak Ipar Euskal Herriko iturriek datuak dituzten urteetan bakarrik daude (biztanlerian, errolda-urteetan); gainerako urteetan, Euskal Herria*ren seriea erabiltzen da. Estimazioak eta interpolazioak, egotekotan, amaierako oharretan zehazten dira.

Grafikoak eta mapak. Herrialde bakoitzak kolore finkoa du atal guztietan, eta Euskal Herria laranjaz nabarmentzen da. Bilakaera-grafikoetan, markatzaile beteak (●) Euskal Herri osoa adierazten du, eta hutsak (○) Euskal Herria*. Mapetan, grisez agertzen dira daturik gabeko eremuak eta biztanlerik gabeko herri-lurrak (partzuergoak, faceriak, Bardeak).

Biztanleria eta dentsitatea. Udal erroldak (INE, EUSTAT) eta INSEEren erroldak. Lurralde-mailako zifrak udalerrien baturak dira; dentsitatea biztanleria eta azalera batu ondoren kalkulatzen da.

Jaiotzak eta heriotzak. EUSTAT, INE eta INSEE. Tasak = kopurua / biztanleria × 1.000, zenbakitzailea eta izendatzailea batu ondoren. Berezko hazkundea = jaiotzak − heriotzak. 2014-2015ean, Iparraldeko biztanleria errolda-urteen artean interpolatuta dago.

Migrazioak. INEren migrazio-estatistika. Saldoa = etorritakoak − joandakoak; tasa 1.000 biztanleko. Iparraldean ez dago urteko daturik.

Jaiolekua. Hegoaldean, INEren Udal Errolda; EAE eta Nafarroa Garaiaren arteko zuzenketa ez da aplikatu. Iparraldean, INSEEren erroldako mikrodatuak kantona mailan (jaiolekuko departamentua; Pirinio Atlantikoetan jaiotakoen %85 Euskal Herrian jaiotzat hartuta).

Adin egitura eta zahartzea. Hegoaldean, 5 urteko tarteak (EUSTAT, INE). Iparraldean, INSEEren 7 adin-bandak; piramiderako 5 urteko tarteetara estimatuta. Batez besteko adina tarteen erdiko puntuetatik kalkulatuta dago (85+ = 90). Zahartze-tasa: 65 urte eta gehiagoko biztanleen proportzioa.

Mapak. Udal- eta herrialde-mugen geruza ofizialak. Grisez, biztanlerik gabeko herri-lurrak (partzuergoak, faceriak, Bardeak). Kolore-eskalak Gaindegiaren 2025eko txostenekoak dira.

Ekonomia: BPGa, industria eta esportazioak. Eurostat (eskualde-kontuak, EAP, estatuko paritateekin), EUSTAT eta NASTAT. Ipar Euskal Herriko zifrak Pirinio Atlantikoetako datuetatik eskalatuta daude (INSEE FLORES, aduanak). Esportazioak: ondasunak, atzerrira bakarrik.

BPGa biztanleko, Ipar Euskal Herria (Gaindegiaren estimazioa). BPGa ez da Ipar Euskal Herrian neurtzen. Pirinio Atlantikoetako departamenduko (FRI15) balio erantsi gordina adarka banatu da (Eurostat, A*10), adar bakoitzean Ipar Euskal Herriko udalerriek duten enplegu-zatiaren arabera (INSEE FLORES), eta adarrak batu dira. Higiezinen jardueretan (L) biztanleria-zatia erabili da, adar horren balio erantsiaren zati handi bat jabe-okupatzaileei egotzitako alokairua delako (departamenduko enpleguaren %1, balio erantsiaren %19): etxebizitzei lotua dago, ez enpleguari. Zuzenketa hori gabe, Ipar Euskal Herriaren balio erantsia %5 inguru handiagoa litzateke. BPGa lortzeko, produktuen gaineko zergak proportzio berean banatu dira.

I+G. EUSTAT eta Eurostat (NUTS2). Ipar Euskal Herrian, estimazioa eskualde-eredu baten bidez (I+G vs. NACE 72 enpleguaren pisua).

Produktibitatea eta lan-kostuak. Eurostat, eskualde-kontuak (nama_10r_2coe, nama_10r_2emhrw, nama_10r_2gvagr, nama_10r_3gva). Lan-kostu unitarioa (2015 = 100) eta lanaren pisua balio erantsian, Euskal Herria* (Ipar Euskal Herriko daturik ez): osagaiak batuta eta ratioa gero. Pisu doituak autonomoen lana egozten du. Manufakturako lan-kostua orduko: Ipar Euskal Herrian, estimazioa (Frantziako kostua × INSEEren soldata-erlazioa, 0,83).

Soldatak eta zaintza. D.1 soldata-ordainsaria soldatapeko bakoitzeko (EUSTAT, Eurostat eta INSEE, Iparraldean estimazioa); Euskal Herriko zifra lurraldeen batura da, soldatapekoz haztatuta. EUSTATen eta Eurostaten arteko haustura metodologikoa (2019/2020): ikus 2.4. Soldata-arrakala, INEren Soldata Egituraren Inkesta; zaintza-denbora, EUSTATen Denbora-aurrekontuen Inkesta (EAE).

Ekonomia soziala eta enpresak. Kooperatibetako enplegua: CIRIEC eta Urssaf. Enpresa-demografia: Eurostat (Euskal Herria, Nafarroa Garaia, Ipar Euskal Herria) eta EUSTATen DIRAE (EAEko herrialdeak); bi iturriak ez dira zuzenean alderagarriak.

Zor publikoa. Espainiako Bankua (erkidegoak, GDP) eta Ogasun Ministerioa (toki-administrazioak); Iparraldean, DGFiP. Euskal Herriko zifran Iparraldeko toki-zorra baino ez dago.

Gizartea: okupazioa eta hezkuntza. Okupazio-tasa (15-64): Eurostat (LFS, NUTS2), EUSTAT (CEMPA) eta INSEE (errolda); Euskal Herri osoko zifrak zentsu-urteetakoak dira. Goi-mailako ikasketak (ISCED 5-8), 25-64 urte: EUSTAT, Eurostat eta INSEE. Adierazleak 25-64 urteko biztanleria hartzen du, ez 25-34koa.

Errenta, prezioak, pobrezia eta desberdintasuna. Errenta erabilgarria: Eurostat (nama_10r_2hhinc, EAP); Iparraldean, estimazioa (INSEE FILOSOFI). KPI: INE. AROPE: Eurostat EU-SILC (EB2030). Gini: INEren Errentaren Atlasa; Iparraldean, INSEE FILOSOFI. Gini serieak 2021etik du Hegoalde osoaren estaldura.

Babesa, berdintasuna eta ongizatea. Gizarte-babesa: EUSTAT eta NASTAT (ESSPROS). Genero-berdintasunaren indizea: EUSTAT eta NASTAT, EIGEren metodologia; urtea edizioarena da (datuak 2-3 urte lehenagokoak), eta edizioen artean metodologia berrikusi da. Euskal Herria* EAEren eta Nafarroa Garaiaren batez besteko haztatua da; Euskal Herri osorako ezin da kalkulatu. Bizitzarekiko gogobetetasuna: EUSTAT eta INE.

Kultura eta hizkuntzak: ezagutza. 2021eko zentsuak, 5 urtetik gorako biztanleria. Euskal Herria* = EAE + Nafarroa Garaia (kopuruak batuta); Ipar Euskal Herrian ez dago datu alderagarririk, Frantziako zentsuak ez baitu hizkuntza-galderarik. Eskualde-mapa udalerrien kopuruak batuta egin da.

Erabilera. Lankideekin: Inkesta Soziolinguistikoa (1991-2021), lanean ari diren 16 urtetik gorakoak; Ipar Euskal Herriaren seriea 2021ean bakarrik erabili da. Kalean: Soziolinguistika Klusterraren Kale Erabileraren Neurketa (1989-2021).

Kultura. Kultur enplegua eta gastu likidatua (gobernu autonomikoak eta udalak): Kultura Ministerioa (CULTURAbase). Euskarazko tituluak: J. M. Torrealdai; 2000-2004an ez dago euskarriaren araberako banaketarik.

Ingurumena: energia. Energia-intentsitatea eta berriztagarrien kuota: EUSTAT eta Nafarroako energia-balantzea; Euskal Herria* BPGz eta kontsumoz haztatua. Ahalmen instalatua: REE. Ipar Euskal Herriko daturik ez.

Lurraldea eta bioaniztasuna. Baso naturalak: mapa forestalak, sailkapen propioa. Lurzoru artifiziala: CORINE Land Cover (2006, 2012, 2018). Natura 2000: Standard Data Forms (izendapen-uneko ebaluazioak; herrialde txikietan, kasu gutxi). Ur-masak: URA (EAEko seriea) eta MITECO/WISE (2022ko alderaketa); bi iturriak ez datoz bat.

Airea, materialak eta hondakinak. PM2.5: EEAren sareta, biztanleriaz haztatua. IAI: CAMS 8.0 inbentarioa, WENFI haztapena (Amalur EIS). Birziklatzea: gaikako bilketa, errefusa barne. DMC: EAE bakarrik.

II. zatia: Euskal Herria Europan

Bi alderaketa-maila. Adierazle bakoitzean, Euskal Herria bi zerrendatan kokatzen da: Europako estatuena (adierazlearen arabera, 30 eta 40 artean) eta Europako erregioena (130 inguru; NUTS 1 edo NUTS 2 mailakoak, herrialde bakoitzean Euskal Herriaren pareko tamaina dutenak). Sailkapenetan, 1. postua baliorik handiena duen lurraldearena da.

Erreferentzia-urtea eta Euskal Herria*. Adierazle bakoitzean, datuak dauden azken urtea hartzen da, Euskal Herri osoaren datua lehenetsita. Euskal Herria* idazten denean (asteriskoarekin), adierazle horretan Ipar Euskal Herria ez dago kontuan hartuta. Euskal Herria*ren datua urte eguneratuago batekoa denean, testuan aipatzen da; bilakaera-grafikoetan bi serieak lerro berean doaz, markatzaile betea (Euskal Herria) eta hutsa (Euskal Herria*) erabilita.

Estatuen eta erregioen zifrak. Espainiako eta Frantziako estatuen zifrek Euskal Herriko lurraldeak ere barne hartzen dituzte. Erregioen zerrendan, aldiz, Euskal Herria bera da unitatea: Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa Garaia ez dira bereiz agertzen, eta Akitaniako zifrek (2016 aurreko erregioa) Ipar Euskal Herria barne hartzen dute.

Urtea. Adierazle bakoitzean, Europako alderaketarako datuak dauden azken urtea. Grafikoetan Euskal Herri osoaren datua erakusten da ahal den guztietan, beste urte batekoa izan arren; Euskal Herria*-ren datu berriagoa badago, grafikoaren oharrean ematen da. Laburpen-tauletan eta aginte-taulan, Euskal Herri osoaren datua erabiltzen da Euskal Herria*-renetik gehienez 3 urte atzera badago; testuetako postuak urte nagusiari dagozkio.

II. zatia: alderaketa-esparrua. Estatuak: Eurostaten datuak dituzten Europako estatuak (adierazlearen arabera, 30 eta 40 artean). Erregioak: Europar Batasuneko NUTS 1 edo NUTS 2 unitateak, herrialde bakoitzean Euskal Herriaren pareko tamainakoak (Frantzian, 2016 aurreko erregioak; Espainian, autonomia-erkidegoak); EBtik kanpoko erregioak (Turkia, Erresuma Batua, Norvegia, Suitza, Balkanetako estatu batzuk…) ez dira alderatzen, eta mapetan gris argiz agertzen dira. Erregio kopurua aldatu egiten da adierazlearen eta urtearen arabera, datuen eskuragarritasunaren arabera. Euskal Herria lurralde bat gehiago bezala sartzen da bi zerrendetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa Garaia ez dira bereiz agertzen.

Demografia Europan. Biztanleria urtarrilaren 1ekoa. Zahartze-tasa (65 urtetik gorakoen %): estatu eta erregioetan sexuka bakarrik dago, eta horregatik sexuaren arabera alderatzen da. Migrazio-saldoa: Eurostaten migrazio-saldo garbiaren tasa; Euskal Herria*rentzat, udalerrien saldoen batura. Lurralde eremutik kanpo jaiotako biztanleria: estatuentzat, bizilekuko estatuan jaio ez direnen ehunekoa; Euskal Herriarentzat, Euskal Herritik kanpo jaiotakoen ehunekoa (I. zatiko datu bera). Dentsitatea: biztanleak km² bakoitzeko; Euskal Herriarentzat, udalerrien biztanleriaren eta azaleraren batura (I. zatiko datuak). Migrazio-saldoa: Euskal Herria*rena bakarrik (Euskal Herri osoaren datu bakarra aldi baten batez bestekoa da, ez urtekoa).

Ekonomia Europan. BPGa biztanleko: erosahalmen-estandarretan (€, EAP). Industria: B-E sektoreak; manufaktura: C sektorea. Esportazioak: Euskal Herriarentzat aduana-datuak (ondasunak). Merkataritza-balantza: Euskal Herria*rentzat atzerriarekikoa bakarrik. Produktibitatea eta lansaria: euro korronteetan. Zaintza: Euskal Autonomia Erkidegoaren datua. Industria-establezimenduen tamaina (E1): langileak establezimenduko. Zor publikoa: erkidegoetako gobernuen eta toki-administrazioen zorra, BPGaren %; azken urteetako datuak bakarrik erabiltzen dira, estatu askoren serieetan aurreko urteak alderagarriak ez direlako.

Gizartea Europan. Goi-mailako ikasketak eta enplegua: EU-LFS (Lan Indarraren Inkesta); Euskal Herriarentzat, Ipar Euskal Herriko datuak erroldatik. Errenta: etxeen errenta erabilgarria biztanleko, erosahalmen-estandarretan (€, EAP). AROPE: pobrezia- edo bazterketa-arriskuaren tasa (EB 2030 definizioa). Prezioak: urteko aldakuntza (%); indizeen oinarriak ez dira alderagarriak. Genero-berdintasunaren indizea: EIGEren metodologia; Euskal Herria*rentzat Eustat / Emakunde eta NASTAT, biztanleriaz haztatuta; Euskal Herria*ren azken datua 2020koa da, eta estatuena EIGEren 2025eko ediziokoa.

Kultura Europan. Kultur enplegua eta gastua: Euskal Herria*rentzat Espainiako Kultura Ministerioaren CULTURABase (Biztanleria Aktiboaren Inkesta; autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen gastu likidatua); estatu eta erregioentzat, Eurostat (kultur enplegua; COFOG 08.2). Metodologiak ez dira berdinak, eta Euskal Herria*ren postuak orientagarriak dira. Erregioak: 2024ko datuak; Espainiako autonomia-erkidegoen daturik ez. Hizkuntza gutxituak: ezagutzaren adierazleak eta aldiak hizkuntzaren araberakoak dira. Euskara: ezagutza, 2021eko biztanleria-zentsuak (EUSTAT, NASTAT; Euskal Herria*, 5 urte eta gehiago), I. zatiko datu bera; bilakaera eta erabilera, Eusko Jaurlaritza (VII. Inkesta Soziolinguistikoa; Euskal Herri osoa, 16 urte eta gehiago).

Ingurumena Europan. Berriztagarriak: azken energia-kontsumo gordinean (SHARES). Lurzoru artifiziala: LUCAS inkesta (Euskal Herri osoarena CORINE kartografiatik, ez da alderatzen). Natura 2000: guneen datu-orri estandarretako ebaluazioak (A+B). Ura: Ur Esparru Zuzentarauaren azken plangintza-zikloa. PM2.5: biztanleriaz haztatutako urteko batez bestekoa. Energia-intentsitatea: barne-energia gordinaren kontsumoa (teP) milioi euroko BPGko. Isurketa antropogenikoen ingurumen-inpaktua: Amalur EIS (CAMS 8.1); Euskal Herria* = Euskal Autonomia Erkidegoa + Nafarroa Garaia (ES21 + ES22). Hondakinak: mineral-hondakin nagusiak kanpo (Eurostaten garapen jasangarriko 12.50 adierazlearen irizpidea). Birziklatzea: estatuentzat benetan birziklatutakoa; Euskal Herriarentzat gaika bildutakoa, errefusa barne (iturri mistoak), eta horregatik gainestimatuta. Materialen bertako kontsumoa (DMC): Euskal Autonomia Erkidegoarena bakarrik (Eusko Jaurlaritza, materialen fluxuen estatistika), urte bereko estatuekin (Eurostat). Baso naturalak: estatuentzat FAOren berez birsortutako basoa; Euskal Herriarentzat mapa forestaletako bertako espezieen basoa (sailkapen propioa).

Argazkiak

1. or.: Any Thalita (Pexels): pexels.com/photo/36130186

5. or.: Damien Dufour (Pexels): pexels.com/photo/38430121

6. or.: Nadine K (Pexels): pexels.com/photo/32533070

11. or.: CARLOSCRUZ ARTEGRAFIA (Pexels): pexels.com/photo/11073319

15. or.: Michel Meuleman (Pexels): pexels.com/photo/9939923

25. or.: Gioele Gatto (Pexels): pexels.com/photo/19882773

27. or.: Santiago Boada (Pexels): pexels.com/photo/17412738

29. or.: Santiago Boada (Pexels): pexels.com/photo/21760804

31. or.: José Antonio Otegui Auzmendi (Pexels): pexels.com/photo/31484138

32. or.: Mario Gómez (Pexels): pexels.com/photo/6245232

37. or.: Jose Rodriguez Ortega (Pexels): pexels.com/photo/38001752

38. or.: Ossianis Art (Pexels): pexels.com/photo/6837810

44. or.: Damien Dufour (Pexels): pexels.com/photo/37815534

47. or.: Eu Aragoneses (Pexels): pexels.com/photo/16946691

48. or.: Jonny Gios (Unsplash): unsplash.com/photos/5gckVGBArno

51. or.: Florian Chefai (Pexels): pexels.com/photo/6401251

60. or.: Pixabay (Pexels): pexels.com/photo/260907

61. or.: Julia Taubitz (Unsplash): unsplash.com/photos/NvVAGgPimGM

66. or.: Peter Wendt (Unsplash): unsplash.com/photos/-r5KSMkyoSc

71. or.: Milo Bunnik (Unsplash): unsplash.com/photos/7zb61IiSIV8

73. or.: Irving Marca (Unsplash): unsplash.com/photos/2N-SBTJMxXo

74. or.: David Gracia (Pexels): pexels.com/photo/12334707

79. or.: Jeriden Villegas (Unsplash): unsplash.com/photos/VLPUm5wP5Z0

81. or.: Unseen Studio (Unsplash): unsplash.com/photos/s9CC2SKySJM

82. or.: Joshua Hoehne (Unsplash): unsplash.com/photos/0F4duBPWlCw

83. or.: cottonbro studio (Pexels): pexels.com/photo/4855428

85. or.: Marcio Ribeiro (Pexels): pexels.com/photo/17883916

88. or.: Rafael Peier (Unsplash, Unsplash License): unsplash.com/photos/-sI5acWR0yc

89. or.: Vizi Kata (Pexels): pexels.com/photo/38780313

90. or.: Guy Bowden (Unsplash): unsplash.com/photos/lVDnLUACI18

91. or.: Miguel A. Ferreira (Pexels): pexels.com/photo/6135900

93. or.: Aleksander Dumała (Pexels): pexels.com/photo/20280087

96. or.: Pixabay (Pexels): pexels.com/photo/207541

99. or.: Javier Balseiro (Pexels): pexels.com/photo/20555980

101. or.: Gaindegia (Gaindegia): gaindegia.eus

BABESLEAK

Gaindegiak erakunde hauen babesa du:



gaindegia.eus